



ONINTZA ENBEITA
Artikuluak

Birari bueltakea



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

berria

berria.eus

ONINTZA ENBEITA

Birari bueltaka

Artikuluak

Artikulu hauek *Berriak* plazatatu zituen.

AURKIBIDEA

Librea denaz.....	12
Arrastoa	13
Nor nork.....	14
Xuhur eta zuhur	15
Tradizioa.....	16
Agurrak.....	17
Alardea	18
Vuelta bueltaka	19
Kukutza.....	20
Kukutza II.....	21
Memoria	22
Bidesaria.....	23
Hogei urte	24
Jende armatua	25
Hamar urte.....	26
Parte hartzeaz.....	27
Lanbidea.....	28
Animaliak	29
Lerro artean	30
Biktimak	31
Zigorra.....	32
Arriskua	33
Pisua	34
Kitatu	35
Sinetsi.....	36
Progresiboki	37
Donetteak	38
Geroa	39
Sarri eta ni.....	40
Besteak.....	41
Azeria	42

Hurbil.....	43
Amantalak	44
Telebista.....	45
Kontuak	46
Iparra.....	47
Egun arrunta	48
Dietak	49
Barkamena	50
Zahartzaroa	51
Gorbata	52
Trukea	53
Bakearen bila	54
Trofeoak.....	55
Osteguna.....	56
Kontatzea	57
Lezioa	58
Ona.....	59
Berriro hasi.....	60
Txarrak	61
Goxo	62
Astlehena	63
Loreak.....	64
Biharamuna.....	65
Txertatzen	66
Binaka.....	67
Migrazioak.....	68
Neurriak	69
Ohikoa	70
Aitortzak.....	71
Arazoa	72
Badoaz.....	73
Egunak.....	74
Etxean	75
Galderak.....	76

Autolesioak	77
Eskuburdinak	78
Lorrina.....	79
Hausnarketa.....	80
A-20.....	81
Zenbaketak.....	82
Muxuak	83
Ez da simplea	84
Eskuliburua	85
Egun alu hau	86
Estralurtarrak.....	87
Aukerak	88
Krisia.....	89
Humanizatu.....	90
Gutaz.....	91
Diktadoreak.....	92
Egun bat	93
Ezin ahaztu	94
Liburu bat.....	95
Durango	96
Durango II	97
Psikopatak.....	98
Gelditu.....	99
Durango III	100
'Señora'	101
Oharkabean	102
Ahaztu	103
Argazkia.....	104
Errelatoa	105
Finala.....	106
Ezberdina	107
Birusak.....	108
Normalak.....	109
Probabilitatea	110

Gutuna	111
Aitortza.....	112
Erlijioa	113
Arrakasta	114
Baldea	115
Balantzea.....	116
Misilak	117
Damu naiz	118
Bidea	119
Egin dezagun.....	120
Itsosupetekoa	121
Ama	122
Izenak	123
Okela	124
Ama II	125
Erralde.....	126
Burgesia	127
Txillardegi.....	128
Domeka.....	130
Dominak.....	131
Ume hilak	132
Kritikoak	133
Dioguna	134
Min	135
Borobila.....	136
Karratua	137
Printzesak.....	138
Zaintza.....	139
Borroka.....	140
Radarra.....	141
Erantzunak	142
Doilorrak	143
Elurra.....	144
Munduan.....	145

Meritua	146
Sasoia	147
Bateraezina	148
Naturala	149
Inhabilitazioa.....	150
Murritzua	151
Zapaldua.....	152
San Balendin	153
Zerbitzua	154
Gazteluak	155
Mozorroa	156
Momentuak	157
Harresiak.....	158
Egunkaria	159
Amodioa.....	160
Jaio	161
Hil	162
Lehentasunak.....	163
Isiltasuna	164
Frikiak.....	165
Harriak.....	166
Azalpenak.....	167
Hiru milioi.....	168
Grabaketa	169
Ni naiz.....	170
Erreferenteak.....	171
Lekua	172
Gaur eta beti.....	173
Kolektiboa	174
Etxekoandreak	175
Pasatu da.....	176
Nork ulertu?.....	177
Euskal Herrira.....	178
Akabo	179

Erlijioa	180
Jateaz	181
Iparra.....	182
Geltokiak	183
Negarra	184
Amerikanoak.....	185
Gaitasunak	186
Udaberria	187
Borobilean.....	188
Bidaiak.....	189
Jo eta hil	190
Eskubidea	191
Martxoak 31.....	192
Liburutegian	193
Maketoak	194
Lotsa	195
Beldurra	196
Gurutziltzatu	197
Aberria	198
Zelofana	199
Indarkeria	200
Politizatzeaz	201
Haizetan	202
Errepublika.....	203
Titanic.....	204
Elefanteak	205
Ulertezina.....	206
Ihes.....	207
Zezenak	208
Bertsioak	209
Memoria	210
Isilean	211
Kanpora.....	212
Sarraskia	213

Lekukoak	214
Pena	215
Desberdinak	216
Langileak	217
Gora	218
Adierazpena	219
Dotore	220
Modernoak	221
Bizkargi	222
Lehortea	223
Sinpleak	224
Ahaztuta	225
Aldartea	226
Lehendakaria	227
Etxeko lanak	228
San Isidro	229
Denborak	230
Gaixotasuna	231
Eroak	232
Kristorena	233
Txinatarrak	234
Alkatea	235
Txapelketak	236
Jakintza	237
Balioaz	238
Zentzua	239
Zaila	240
Zergatia	241
Harremanak	242
Txikiak	243
Gizon bat	244
Gabardina	245
Gutuna	246

Librea denaz

2011-09-01

Iruñean bota zuten txupina, Baionan bota zituzten giltzak udaletxeko balkoitik, Donostian bota zuten kanoikada eta Bilbora etorri zen Marijaia. Badirudi baina, batzuentzat, jaien hasiera baino zerbait gehiago ekartzen dutela kanoiak, Marijaiak edo eta giltzek. Batzuek pentsatzen dute behin kanoikadak jo eta gero astebetean dena libre dela, edo Marijaia Bilbon den artean bururatzen zaien guztia egin dezaketela; askok usteko dute txupina bota eta «gaixoa ni» kantatu bitartean kontsumitzen duten alkoholak edo dena delakoak dena justifikatzen duela, baina ez; dena ez da libre. Iruñean hiru sexu eraso salatu dituzte, Baionan bi eta Donostian bat. Bilbon, hiru eraso homofobo salatu dituzte gau bakarrean. Jaiak izan arren, odolean alkohola zein bestelako substantziak izan arren, dena ez da libre. Denok edo gehienok desfasatu gara inoiz burua galtzeraino, baina gehienok ez dugu ezetz esan digulako edo gure aukera sexual berdina egin ez duelako ondokoa jipoitzen edo gurekin sexu harremanak izatera behartzen. Horregatik uste dut jaiak horretarako aprobetxatzen dituenak urteko beste edozein egunetan ere gauza bera egingo lukeela.

Arrastoa

2011-09-02

Alhambran bere izena idazten harrapatu dute militar jordaniarra, eta atxilotu egin dute. Karlos V.aren jauregiko horma batean idatzi nahi izan zuen izena, baina turista batzuek ikusi egin zuten; haiek guardiei abisatu zieten, eta guardiek atxilotu egin zuten. Tontakeria dirudien zera hori ondarearen kontrako ekintza da, eta urte betetik hiru urte bitarteko kartzela zigorra jaso dezake. Garesti aterako zaio Sevillan zituen egitekoetatik tarte bat hartu eta Granadara joatea, baina leku guztietan arrastoa utzi behar hori, leku guztietako arrastoa batu behar hori, ez dut ulertzen. Chichen Itzara joan nintzenean esan zidaten ezin dela piramidearen gailurrera igo; antza denez, turistek eramandako harri pusketen ondorioz, eskailerak ez daude ondo. Zertarako behar ote du jendeak Chichen Itzako harri pusкета bat gau mahaiaren gainean? Zertarako balio du ez dakit nongo horma zahar batean *Onintza Enbeita hemen egon zenidazteak*? Besteei erakusteko argazkiak edo lagunei kontatzeko abenturak bizi nahi izaten ditugu goazen leku guztietan, eta, azkenean, benetako arrastoa, leku bakoitzaren esentzia, usaindu ere egin gabe itzultzen gara etxera.

Nor nork

2011-09-03

Badira hogei urte ezkondu nintzela; eta egun bat gutxiago damutu zitzaidala. Ez da egunik igaro harrezkero senarrak jipoitu ez nauenik, edo burua makurtzeraino oihu egin ez didanik. Batzuek esango dute ezkondu aurretik igarri behar niola, beste batzuek esango dute ez nuela hainbeste aguantatu behar, baina esango dutenak berdin dio; hogei urte eman ditut burumakur, kolpeak nondik etorriko. Azkenean, neure buruarengan federik ere ez nuenean, ukabilarekin mahaia jo dut. Nire borreroari distantzia jarri dio epaileak: ezin du nire kalera, lanera, ondora etorri. Nik ez dut ezer sinesten: edozein momentutan etorri egingo da. Lanera noanean edo lanetik natorrenean, Ertzaintzaren auto bat etortzen da nirekin. Inork ez dit ezer galdetzen, baina denek begiratzen didate. Lotsatu egiten naiz. Iluntzean, telebistan ikusten dut nola orain arte politikariak zaintzen egon diren bizkartzainek nire moduko emakumeak zaintzeko eskaini duten euren burua. Ez dakit zer egin: barre edo negar. Bizitza izorratu didana ez du inork zaintzen niregana hurbildu ez dadin, eta nik, orain artean gutxi jasan izan banu bezala, ezin dut orain ere bizitza normalik egin.

Xuhur eta zuhur

2011-09-04

Arratiako tranbia hartzen zuen egunero Bilbora joateko, eta kobratzailea pasatzen zenean egunero ematen zion paperezko diru handia. Kobratzaileak ez zuen kanbiorik izaten, eta joan-etorri osoa egiten zuen ezer ordaindu gabe, egunero diru-paper berbera erakutsiz. Beste guztiek haserre begiratzen zioten arren, kobratzaile lelo hark ez zion inoiz ezer esaten, eta berak soldatari bidaiaren gastua kendu gabe amaitzen zuen hilabetea. Kobratzailea, ordea, ez zen bera bezain xuhurra, baina bai zuhurra. Mendekua astiro prestatu zuen. Guztiek barre egiten zioten arren, traje xalauaren barruan harro zegoen, bazekielako azken barre egiten duenak lasaiago egiten duela barre; ozenago. Goiz batean, eguneroko moduan, tranbian sartu zen delako gizon hori, eta eguneroko moduan begira gelditu zitzaizkion denak. Etorri zen kobratzailea, eta, tenis partida bat balitz bezala, kobratzailearengandik bidaiariarengana eta bidaiariarengandik kobratzailearengana joan ibili begiak. Atera zuen bidaiariak diru-papera eta kobratzaileak hartu egin zion. Ez hori bakarrik, bere zorrotik errealez betetako poltsatxoa atera, eta bueltak eman zizkion: «Eutsi bueltei, hemendik aurrera zegaz ordaindu eduki dezazun!».

Tradizioa

2011-09-06

Ez zait iruditzen tradizioak ezer justifikatzen duenik. Tradizioa gauza ederra da zerbait ona denean, baina tradizioak daukan gauzarik onena da, txarra denean edo kalte egiten duenean, aldatu egin daitekeela. Ez dago inongo liburutan idatzita tradizioak ezin direnik aldatu. Euskal Herrian zezenzale amorratu asko dauden arren, ez dut uste tradizio zaharra izateak zezenketa bera justifikatzen duenik. Nire ustez, eta berriro diot, ni neure ustez, zezenketak torturaren erakusketa publiko txalotua dira. Zezenketak espainiartasunarekin lotzen ditugunez, ohikoa da euskaldun asko zezenketen kontra egotea, baina geure adibideetan, tradiziora mugatzen gara. Nik ez ditut animaliak bereziki maite; baina badira, oso geureak izanda ere, aldatu beharko genituzkeen gauza batzuk. Badira urte batzuk Lekeitioko antzaren jokoan erabiltzeko gomazko antzarak sortu zirela; ez dira inoiz erabili. Ez dira oso tradizionalak izango gomazko antzarak, baina egin zituztenean, hegaztien gripe garaian, esaten zen benetako antzekoak zirela. Gure tradizioan ere dena ez da ondo egin, eta bizi ditugun sasoiotan, ez diot zentzu handirik hartzen antzarak jolaserako hiltzeari.

Agurrak

2011-09-07

Gure aitita lastategitik erori zen, eta, ospitalera joan aurretik, amama eta etxeko hiru ilobak estu-estu besarkatu gintuen. Autoan zihoala atzera begira joan zen etxea bistatik galdu zuen arte. Ez zen etxera itzuli, ospitalean hil zen. Beste aititak ez zuen heriotza goxoa izan. Azken egunetan hitzik ere ezin zuen egin, baina seme-alaba eta iloba guztiak agurtu arte, ez zen joan. Bostekoa eman zidan azkenengoz ikusi nuenean. Egia da Gantza (konfiantza onartzen badidazu), jendeari helduta hil nahi izaten dugula, eta ahal dugunean azken mezua uzten saiatzen garela; irakurri orduko aitita bien irudia etorri zitzaidan. Inportantea da joan aurretik agur esatea gelditzen garenontzat zein joaten direnentzat; nahiz eta hil ondoren kontzientzian kargarik izan ez. Gerora jakin dut gorpua baino leku gehiago bete zutela aitita bien hilkutxetan gordeta joan ziren sekretuek; baina agur egin zigutenean, azken besarkada edo bostekoa eman zigutenean, ez genuen irudipen hori izan, eta lasaiago hil ziren. Ganoraz agur egiteak, azken mezuak dioena baino gehiago ezkutatu arren, zentzua ematen dio heriotzari, eta heriotzak zentzua badu, bizitzak berak ere badu.

Alardea

2011-09-08

Ni ez naiz Hondarribikoa, eta batzuentzat aitzakia nahikoa da alardeari buruz ezer esan ez dezadan. Dena den, Hondarribiko tabernetan ere esango zen zerbait Gaddafiri buruz azken egunetan, eta hondarribiarrak ez dira libiarrak. Lur labainkorra da alardea, eta ez azpian Txingudiko hezeguneak daudelako bakarrik. Agian, ez da korrektoa esatea, desfile militarra izaki, alardea egiteak ez duela zentzu handirik. Edozelan ere, egiten bada, eta egiten da, guztiek izan behar dute parte hartzeko eskubidea. Hamabost urte dira gaur lehenengo emakumeak Hondarribiko alardean sartu zirela, eta harrezkero edozer jasan behar izaten dute: lagunek agurra ukatzea, senarra konpainiatik bidaltzea, plastiko beltza jartzea haiek pasatzean... Herrizaingo Sailak entseguetarako ibilbidea aldatu egin die aurten. Batzuen ustez arazoaren muina direnak baztertu egin dituzte berriz ere; baina arazoa ez da Jaizkibel konpainiarena. Jaizkibel ez da alarde parekidea bultzatzen duen feminista koadrila bat, ez. Jaizkibel da, nire begietara behintzat, alarde logiko bakarra aldarrikatzen duen taldea. Eta besteak, XXI. mendean oraindik emakumerik onartu nahi ez dutenak dira alarde baztertzailea egiten dutenak.

Vuelta bueltaka

2011-09-09

Gaur ez dago erraz Bilbora sartzen bizikletaz ez doanarentzat; Vuelta Bilbora iritsi da. Grazia egiten dit. Espainiarrik espainiarrenek Euskal Herria ez dela esaten dute: dena da Espainia. Euskal Herriaren kontzeptua asmatua dela argudiatzen dute gure kontra, baina kontua da ez direla konturatzen Espainia ez dela Euskal Herria baino askoz zaharragoa kontzeptu gisa. Gure amak oraindik Castilla la Vieja eta Castilla la Nueva kantatzen ditu umetako lezioa gogoratzerakoan, eta haiek sinetsarazi nahi digute Leon beti izan dela. Espainia osoa da asmatutako zera politiko handi eta aske bat, diotenez. Orain, hau Espainia denez, Vueltaren buelta honaino etorri da. Ahal dutenero esplikatzen digute Euskal Herririk ez dela. Bandera hori-gorritz jantziko dute Bilbo txirrindulariak buelta-bueltaka non dabilzan ikus dezagun, eta esango digute hau Espainia denez logikoa dela Vuelta hemendik pasatzea. Espainiarrak gara, eta Espainian txirrindulari onak egon dira beti; animatu ditzagun. Ahaztu gabe Bilbon, Donostian edo Iruñean jaiotako txirrindulari oro espainiarra dela. Espainiarekin buelta-bueltaka beti. Nago Espainia hainbestetan aldarrikatu behar horrek ez ote duen erakusten Espainiarik ez dela.

Kukutza

2011-09-10

Kukuek beste txori batzuen habian jartzen dituzte arrautzak, eta gero ospa egiten dute. Ez dute habia propiorik egiten, normalean, baina maite ditugu kukuak. Maitasun-gorroto harreman arraroa daukate baserritarrek kukuarekin: ez da txori maitatua inoren habia baliatzen duena, baina noiz kantatu zain egoten dira udaberrero patrikan dirua hartuta. Izan ere, kukuak kantatzen duenean poltsikoan dirua izateak urte osorako aberastasuna ekartzen du. Antzina bizkaitarrentzat kantabriarrak izaten ziren kukuak: euren seme-alabak soldaduskarik eta erregearentzat zerbitzurik egin ez zezaten Bizkaian izaten zituzten umeak Kantabriako emakumeek. Bizkaitarrek aspaldi ez zuten soldaduska egin beharrik izaten hidalgotza unibertsalari esker, eta Bizkaian jaiotako guztiak nobleak zirenez, Bizkaian jaiotako kantabriarrek ez zuten soldaduskarik egiten. Baina, harrezkero, nobleak ez diren hainbat gizon-emakume jaio dira Bizkaian, eta Bilboko kukurik maitatuenak arriskuan daude. Hutsik zegoen habia batean sartu ziren, eta ospa egin beharrean proiektu oso bat eraiki zuten bertan; eta orain, bota egin nahi dute habia. Baten batek dirua aterako du Kukutza bota ondoren, baina eraikitzen dituzten etxe guztiek batera ere ezingo dute gorde Kukutzako horma bakar batek gordetzen duen beste amets.

Kukutza II

2011-09-11

Ametsak dituenak edonon garatu ditzake. Pentsatzen dut Bilboko Udalak Kukutza botatzeko baimena eman eta gero, gertatzen dena gertatzen dela, Kukutzako espiritua beste nonbait gauzatuko dela. Ia ziur dakit Kukutzatik botako dituztenek beste leku bat bilatuko dutela, eta aurkitu orduko lanean hasiko direla gogo biziz. Hala ere, eta ilusioak norbere barruan dirauen arren, zaila da hutsetik hastea. Gure bizitzetako alor guztietan da zaila hastea, eta are gehiago halako proiektu soziokulturalari buruz ari garenean. Gauzak ez dira egun batetik bestera eraikitzen, eta Errekaldeko Gaztetxearen barruan urte askotako lana dago: liburutegia, rokodromoa, flamenko eskola, arte martzialen gela, zirkua, eskulanak egiteko tailerra... hori guztia, ordea, ez dago hor hasieratik, landu egin dute, eta bakoitza arduratu da bere lekua sortzeaz, txukuntzeaz eta mimatzeaz. Orain, hori guztia hobetzen eta proiektu berriak sortzen erabili beharko luketen indarra, hutsetik hasten erabili beharko dutela ematen du. Ez dute oraindik Kukutza bota, eta ez dut gorpua ikusi aurretik hiletarik egingo. Baina badakit, Bilboko Udalak eman berri duen baimenak zer esan nahi duen: EAJK ez duela herriak herriarentzat egindako proiekturik nahi, baldin eta beti-betikoek etekinik ezin badute atera.

Memoria

2011-09-13

Urdaibaik Kontxako Bandera irabazi du, eta asko poztu naiz. Badakit beste kirolari batzuen aldean, esker txarreko ordu asko sartu behar izaten dituztela arraunlariek, eta ez naizenez Bermeotik urrunekoa, poza hartu dut bandera jasotzen ikusi ditudanean; iaz ere berdin poztu nintzen. Gogoan dut Elorrion bertso saioa neukala, eta etxeratzean, Jose Luis Kortari egindako elkarrizketa entzun nuela Euskadi Irratian. Harritu egin ninduen oriotarraren tonuak eta bere akusazioaren segurtasunak. Sekulako astrapala sortu zen, eta hurrengo egunean Urdaibaiko ordezkariak agertu ziren medioetan Kortaren kontrako salaketa jarriko zutela esanez. Kortaren jarrera lotsagarria iruditu zitzaidan orduan, eta berdin pentsatzen dut orain. Dena den, uste dut ez dela ahaztu behar Izortz Zabala, bermeotarra, Astilleroko patroia zenean gertatu zena. Astilleroko traineruak Kontxako Bandera irabazi zuenean, antzerako salaketak egin zitzaizkien arraunlariei, eta bandera eskuan zuela Bermeora arraunean etorri zenean, Izortz Zabalak pankarta desatsegina aurkitu zuen bere herrian *Astillero Pastillero* leloarekin. Mila zorion, Urdaibai, eta balio bezate egin eta hartutako minek etorkizunean zuzenago jokatzeko.

Bidesaria

2011-09-14

Bizitza honetan gauza askotarako ordaindu behar izaten dugu bidesaria, dirutan ez bada ere: lana gustatzen zaigunean etxetik urrun izaten dugu, lana etxetik hurbil dugunean gutxiago ordaintzen digute, lantalde jatorrena daukagunean ez gaitu lanak betetzen, soldatarik onena daukagunean muturrak baino ez ditugu ikusten zortzi orduz... Hegoaldeko saihesbidea Euskal Herrian inoiz egin den azpiegitararik garestiena da (AHTarekin batera). Herritar bakoitzari zenbat diru kosta zaigun kontuan izanda, orduak eta dirua aurreztu beharko genituzke Arrigorriagatik Santurtzira, baina ez; ez da hala izango. Ez dugu ordurik aurreztuko —lehendik ere ez delako hain tarte luzea— eta ez da doakoa izango. Garraiolariak Txorierriko saihesbidea erabiltzen jarraituko omen dute, ez dagoelako bidesaririk eta ez dutelako hainbeste denbora galtzen. Bidesari hau ere, Artxandako tuneletakoaren moduan, geuk ordaindu beharko dugu. Ez gara ziurrenez hegoaldeko saihesbidean asko ibiliko, baina bidesaritan ordaintzen ez duguna zergekin ordainduko dugu, eta garai lehorrotan beste gasturik ez balego legez, bidearen beharra asmatu dutenek beste bide bat asmatuko dute guk bidesaria ordaintzen jarrai dezagun.

Hogei urte

2011-09-15

Jugoslaviak historian iraun balu, laster beteko luke mende bete; lehen guda izan eta gero sortu baitzen. Oraintsuagokoa da bertako gerra, ordea: 1991n hasi zen Balkanetako gerra. Guda hura amaitu zenetik hona, Jugoslavia ez da. Haren lekuan Serbia, Kroazia, Eslovenia, Mazedonia eta Bosnia daude. Gerra hasi baino urtebete lehenago, Zagrebeko Dinamoren futbol zelaia izan zen herrien arteko ezinikusiaren lekuko. Kroaziakoa da Zagrebeko Dinamo taldea, eta 1990eko maiatzaren 13an Belgradeko Izar Gorriaren bisita izan zuten; Serbiakoa hori. Sekulako istiluak izan ziren. Ordubete pasa egon ziren zaleak elkar joka, eta Poliziak ezin izan zuen ezer egin. Elkarren kontrako min guztia kolpeka atera zuten. Hogei urte dira Jugoslaviako gerra hasi zela. Orduan hedabide guztietako notizia zen, eta bagenekien herri bakarrean batu nahi izan zituztela herri asko, eta azkenean leher egin zutela. Gaur, Kroazia oportetarako leku zoragarria dela baino ez dugu jakin nahi. Hogeita bat urte bete dira Maksimir futbol zelaiaren zaleek aulkiak elkarri bota zizkionetik, baina atzo Real Madrilen partida ikusten egon zen jende gehienak ez du horretaz pentsatu, futbolarik eta politikarik zerikusirik ez balute bezala.

Jende armatua

2011-09-16

Ez da gozoa izango pasieran zoazela armadun kuadrilla bat aurkitzea plastikozko botilei tiroka. Hiru aldiz pentsatuko nuke paretik pasatu edo ez, badaezpada ere. Plazaolan zebilen gizonari pasatzen utzi diote behintzat Guardia Zibilek, baina gizona igaro eta gero berriro tiro egiteari ekin diote. Arma eta munizio berriak probatzen ari omen ziren. Mendian zoazela, pasieran zoazela, zelaian zehar zoazela, edozein lekutan kuadrilla armatu bat munizio berria probatzen ari daitekeela pentsatzea latza da. Gernikako arma lantegi zaharra itxi ondoren, bertako kuarteleko Guardia Zibilak lantegi osteko patioan ibiltzen ziren tiroka. Batek jakin zertarako egiten zuten tiro: munizio berria probatzeko ala denbora emateko. Eskuak burura eramaten ditugu halakoetan, edo burua alde batera eta bestera mugitzen dugu ezetz esaten bageunde legez, gure harridura eta haserrea erakusteko. Nola da posible Plazaolako pasiera ere ezin izatea lasai egin? Ez da horren gauza arraroa, ordea. Gure txikian hiru polizia kolore ditugu hemen, eta armak erabiltzeko inolako eragozpenik ez duenak armak erabili egiten ditu ahal duenean: munizio berria probatzeko, denbora emateko edo hiltzeko.

Hamar urte

2011-09-17

Nire bizitzaren errepassoa egingo banu, azken hamar urteetan larri ibiliko nintzateke; izan ere, mugimendu handiko hamar urte izan dira. Laburpen gisara esango dizuet, hamar urteren barruan karrera amaitu dudala, eta mila artikulu inguru idatzi ditudala *Euskaldunon Egunkaria*-n, BERRIAN, *Hitza*-n, *Argia*-n, *Frida* aldizkarian... azken hamar urteetako bat Edinburgon egin dut, hilabete bi Mexikon, bana Kuban eta Senegalen eta egunak Londres, Belfast, Madril, Venezia, Bartzelona, Almeria, Brusela, Milan, Paris, Cadiz, Erroma eta gogoratzen ez naizen beste lekuren batean. Urte askotan hutsik egon den baserria konpontzen hasi gara ahizpa eta biok, baina Bilbon ere bizi izan naiz bi urtez. Ez dakit zenbat liburu irakurri ditudan, eta zenbat kanta berri deskubritu ditudan, baina larrutan ezagutu ditudan mutiletatik sei bereziki gogoratzen ditut. Besteak hor konpon! Maite izan dudan jendea joaten ikusi dut, baina berriak jaio dira, eta nire geografia humanoa berriro betez doa. Datozen hamar urteak ere antzekoak izango dira niretzat, baina *Bateragune auzian* auzipetutakoei nork itzuliko dizkie lapurtutako hamar urteak? Herri honi dagokiona ematen saiatzearren lapurtutako hamar urteak? Injustiziak ez du denboraz ezer ulertzen.

Parte hartzeaz

2011-09-18

Udaletako kultur teknikari gehienek kalkulatzen dute urte hasieran zenbat diru duten kultur jardueretan gastatzeko, eta, horren arabera, urteko agenda antolatzen dute. Antzokien sarearen barruan dauden herrietan antzerkiak izaten dira urtero, eta Zornotzan ez baduzu ikusi, Gernikan ikusiko duzu edo Bermeon bestela. Antzokirik ez dugun herriok ahal duguna egiten dugu, eta gero, batzuek zein besteek ikusle kopuruaren arabera parte hartzearen gaineko ondorioak ateratzen ditugu. Baina parte hartzea hori baino gehiago da, ikustea baino gehiago. Guk, Muxikan, edo Muxikako Ariatzan hobeto esateko, ez dakigu ezer antzerkiari buruz; ez digu inork irakatsi nola antzeztu behar den. Baina urtero behin, plazara ateratzen gara. Horrela, gaur eguerdian, gure aita galiarren buruzagia izango da, eta ni arrain saltzailea. Guk landutako gidoiaren arabera, gure auzoa izango da Galia eta Muxika Erroma, eta hor barruan zenbait gorabehera antzeztuko ditugu. Kanpotik datorren edonor aspertu egingo litzateke, ez lituzke txisteak ulertuko, baina guretzat, gauza ederra da. Geure inguruari barre egiten diogu, eta gure inguruan izandako pertsonaien izenak karikaturizatzen ditugu. Berdin dio adinak, koloreak, bertan jaio izateak edo kanpotik etortzeak... guztiok parte hartzen dugu.

Lanbidea

2011-09-20

Gure gurasoen garaian, jende gutxi joaten zen unibertsitatera, baina kasurik gehienetan gaztetan hasitako lanari eutsi diote erretiratu diren arte. Gure aitak etxean dauka lantegian 25 urte bete zituenean erregalatu zioten erlojua, eta handik urte askotara erretiratu zen. Gauzak aldatu egin dira, ordea. Guk batxilerra amaitu genuenean, unibertsitatera joan ginen, edo gutxienez, moduluren bat egin genuen guztiok. Gehienok ikasten egon gara 22 edo 23 urtera arte. Denok daukagu zerbait izaten badakigula esaten duen titulua, baina gero, lanetik bota egiten gaituzte, edo baldintza oso txarretan irautea eskatzen digute. Krisia deitzen dioten zera horren eraginez, lantegi gehienetan garbiketak egin dira, eta ondo doazenetan ez dute mila euro baino gehiago ordaintzen. Gure garaiko neska-mutilok langabezia kobratzera joan garenean, konturatu gara lanik egin gabe gehiago kobra daitekeela lanean baino. Neuri gertatu zitzaidan. Zenbait egunkaritan titulu hau irakurri dut: Lanbide ohartu da laguntza kobratzen dutenetatik %44k ez dutela lanik egin nahi. Mesedez! Idatz dezagun benetan eskandalagarria den titulua: gaur egungo langileen %44k (edo gehiagok) lanean irabazten duten soldata bera irabaziko lukete langabezian egonda.

Animaliak

2011-09-21

YouTuben ikusi dut bideoa. Ez dakit ze herritako plaza ikusten da bideoan, eta erdian, entzierroan atzean geratu den zezen beltza. Zenbait gazte saiatzen dira piztia bere bidera eramaten, baina hark ez die kasurik egiten; plazan jarraitzen du jo batera eta jo bestera jendea harrapatu nahian. Egurrezko hesiaren beste aldean dagoen jendearen kontra egiten du eta borobilean buelta-bueltaka erotzen ari den inpresioa ematen du. Halako batean, gazteen artean gizon bat agertzen da, eta zezena harengana hurbiltzen da. Alboan gelditzen da ezer egin gabe, eta gizonak lepoa laztantzen dio eta zezena bere bidean jarri. Tona erdiko animalia beltza astiro-astiro doa gizonaren atzetik, eta bideoa amaitzen denean, ez da oso ondo ulertzen zer gertatu den; ez baita ikusten gizon hori zezenari inolako lasaigarrik ematen. Bideoari buruzko informazioa irakur-tzean argitzen da dena: zezenari kumetan jaten eman zion gizona da gidari lana hartu duena. Harrigarria bada ere, jaten eman zion eskuaren ondoan doala, zezena ez da inoren aurka oldartzen. Ezagutu egin du, eta lasai doa. Bideoa berriro ikusi, eta pentsatu dut ea gizakia izango ote den jaten ematen dion eskuari hozka egiten dion animalia bakarra.

Lerro artean

2011-09-22

Goizeko zazpitan jaso nuen berria, eta kosta egin zitzaidan digeritzea: Ertzaintza Errekalden zegoen eta bertan bildutakoei oldartu zitzaien. Amaieraren hasiera baino ez zen izan. Notiziak gero eta beltzagoak ziren: atxilotuak, eskabadorak, tankeak... azkenean irakurri nuen nola hustu zuten Kukutza. Ez nuen irakurtzen jarraitu nahi izan. Behin eta berriro esan nion neure buruari egoteko lasai, badugula euskaldunok hegazti fenixaren generen bat eta badakigula errautsetatik ernetzen: Gernikan egin genuela, *Euskaldunon Egunkaria*-rekin eta *Egin*-ekin egin genuela, ez dela gaztetxe bat bota eta beste bat okupatzen den lehen aldia... Errekalden ere egingo dutela esaten nion neure buruari, baina konbentzitzeko zorian nengoela, berri garratza irakurri nuen. Une batez bihotzerrea ere eragin zidan notiziak: Mercedes Gallizo Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiak Zaballako kartzela inauguratu zuen atzo, eta, esan zuenez, Langraizko espetxe zaharrear Arabako gizarteratze zentroa egingo dute. Lerro artean hauxe esaten ari zela iruditu zitzaidan: berdin digu zenbat zareten, ze indar daukazuen, zer eraiki nahi duzuen; guk agintzen dugunaren kontra ezer egiten duzuen guztiontzako lekua dago hemen.

Biktimak

2011-09-23

Biktimak gora eta biktimak behera, orain legea eta gero dekretua ari gara. Gauza konplikatua dira biktimak; sufritu egin dutelako. Ahoa betetzen zaigu esaten dugunean alde guztietan daudela biktimak, eta hala da. Baina ez daukat lotsarik esateko nik biktima batzuekin bakarrik egin dudala negar. Eta negar diodanean, benetako negarra diot: sentimenduzkoa eta amorruzkoa. Ez naiz ari diskurtso politikoa dotoretzearren egiten den negarraz, ez; bakardadean barruak erretzen dizkizunaz baizik. Beste biktima guztiei errespetu handia diet, ikasi dudalako zerbait sufrimenduaz. Gure aitonaren anaia gerrara joan zen eta ez dugu harrezkero haren berririk, amama Klarari etxea hustu zioten, 50 urtetik gorako gure senide gehienek jaso zuten zigorren bat euskaraz egitearren, gure aitari aurpegia aldatzen zaio Guardia Zibila ikusten duenean eta oraindik ez dakigu zer egin zioten komisarian, gure lehengusinak zazpi urte eta erdi egingo ditu kartzelan 18/98 deitzen dioten zentzugabekeria bategatik, osabak kontatu zidan Indautxuko komisariatik atera zenean koloreak ez zituela bereizten, milaka euro gastatu ditut kartzelara bidean. Eta, hala ere, sufritu dugun arren, sufritzen dugun arren, ez digute inoiz onartuko biktimak garenik.

Zigorra

2011-09-24

Savannah izeneko hirian gertatu zen, AEBetan. Polizia bat hil zuen norbaitek, eta orduan hainbat lekukok esan zuten Troy Davis izan zela tiro egin zuena. Berak beti esan du ezetz, eta kartzelan eman zituen hogeitun urteetan ez da haren kontrako frogaririk agertu. Duela hogeitun urte Davis ikusi omen zuten lekukoek ere ez daukate hain garbi bera izan zen edo ez; ukatu egin dute orduko deklarazioa. Antza denez, lekuko gehienak poliziaren konfidenteak ziren. Abokatu on bat kontratatzeko dirurik izan ez zuenez, Davis erruduna izan da kontrakoa frogatu ahal izan duen arte, eta ez du ezer frogatzerik lortu, horretan saiatu arren. Bizitzaren erdia kartzelan egin du, patiora ateratzeko ordubete baino ez zeukala, baina azkenera arte egin du bere errugabetasunaren alde. Herenegun azken errekurtsioa bota zion atzera epaileak, eta lau ordu atzeratu arren, ezin izan zuen heriotza saihestu. Errugabea naiz, esan zuen, eta hil egin zuten. Litekeena da Davisek gezurra esatea ez zuelako hil nahi, baina litekeena da bera ez izatea polizia hura hil zuena. Ez dugu jakingo, eta jakiten badugu ere, berandu izango da. Ordurako Davis ustelduta egongo da. Pobrea eta beltza zen munduko herrialderik demokratenean.

Arriskua

2011-09-25

Eskolan esan zizkiguten gauza guztiez ez naiz gogoratzen, baina ez egiteko esan zizkiguten gauzarik gehienak egin egin ditugu. Gurasoek esaten ziguten ez dela autostopik egin behar, baina nik egiten nuen. Edariak ez nahasteko esan ziguten, baina txahal-eginean majo sufritu eta gero ikasi genuen edariari neurria hartzen. Manifestazioetan lehenengo ilaran ez egoteko esaten ziguten, baina kolpeka bidali gintuzten azken lerrora. Bakarrik bidaiatu dudanean beti joan naiz ez joateko esan didaten zenbait lekutara. Ez dut inoiz arriskurik ikusi nire inguruan. Beti pentsatu dut gauzak auzoan gertatzen direla, nigandik hirurehun metrotara gutxienez. Amak kontuz ibiltzeko esaten didanean, orain ere esaten diot berari kasu eginez gero kaskoa eramango nukeela kalera balkoiren batetik eroritako lorontziak buruan jota hil ez nadin. Baina, orain, benetan larritu naiz: gizakiak orbitara botatako zera handi horiek lurrera erortzen hasi dira. Aste guztia daramate notiziek horietako baten erorketarekin bueltaka, eta inoiz ez bezala arriskua ikusi dut nire gainean. Probabilitate handirik ez da egongo gure auzoan jaus dadin, baina notiziek eman dioten garrantziarekin, hurrengoetarako kaskoa erosiko dut, badaezpada.

Pisua

2011-09-27

Bartzelonako futbolariei poliester birziklatuzko elastikoak ekarri dizkiete aurten, eta partida erdirako pisu handia hartzen dute. Ez dute izerdia behar bezala zurrupatzen, antza. Denboraldi-aurrean igarri zuten jokalariek blai eginda erretiratzen zirela zelaitik eta kamiseta gorputzera pegatzen zitzairela. Klubeko zuzendaritzaren aurrean benetako kexa egin ahal izateko pisatu egin dituzte elastikoak, eta arrazoia zuten jokalariek: zelaira ateratzerakoan 200 gramo pisatzen zuten elastikoek deskantsuan 500 gramo pisatzen zuten. Nikek egiten die ekipamendua Bartzelonakoei, eta konponbidea bilatuko duela esan du; izan ere, ekipamendua aurkeztu zutenean izerdia zurrupatu eta lurrundu egiten zuela esan zuten poliester birziklatuari buruz. Plastikozko zortzi botila birziklatu erabili dira elastiko bakoitzean. Propaganda baino zerbait gehiago egiten ariko zen Nike etxea akaso, baina ez zaio ondo atera. Orain burmuina estutuko dute bulegoren bateko mahai borobilean eserita konponbideren baten bila. Jakin nahiko nuke elastiko santuok egiten diren lantegietan umeeek zenbat pisatzen duten, edo zenbat kobratzen duten, edo egunero aldatzeko kamisetarik ba ote duten, edo Bartzelonako jokalaria ezagutzen ote dituzten.

Kitatu

2011-09-28

Badakit Kukullaga Goikoan bizi den bikoteak prestamoa eskatu zuenean hala behar zuelako egingo zuela. Pentsatzen dut erabakia haiena izango zela, ez beste inorena. Hala ere, Berangoko baserriari buruzko notiziak irakurtzen ditudanean zerbait lehertzen zait urdailean. Traktoreak eta jendea ikusi dut baserriko atarian atzoko argazkietan, eta epaileak hamabost egun gehiago eman dizkielako lasaitu egin naiz. Delako prestamistari eskatu zioten dirua baino hogeitaz gehiago balio du baserriak, baina zorra ordaindu ezean, baserria kenduko die. Ziur nago dirua utzi zuenak hartu zutenek baino hobeto kalkulatu zutela hori, orain negozio borobila egingo dute Kukullaga eskuratuz gero. Hamabost egun gehiago eman dizkie, eta ez dira asko berez, baina denbora da, eta denborarekin zerbait beti egin daiteke. Irudipena dut, hala ere, prestamistek ez dutela zorra kitatu nahi: prestamistek baserria nahi dute. Bitartean, oso jende gutxi mugitu da baserri zahar bi eta baserri zahar baten alde. Ez daude modan, gizarteak ez ditu nahi, sistemak sobera dauzka halakoak, doazela zahar etxera. Nahikoa daukagu bakoitzak bere hipotekarekin inoren zorren ardura hartzeko; total, guztira ere zenbat galduko da baserri bategatik?

Sinetsi

2011-09-29

Fededunek *sinesten dot, sinesten dot* kantatzen dute elizan, eta ez dute Jaungoikoak seinale handirik egiterik behar benetan sinesteko. Besteok, fede handirik ez dugunok, frogak nahi izaten ditugu: Jaungoikorik balego, ez litzateke inor gosez hilko, esaten dugu, eta ez dugu sinesten. Niri, inbidia handia ematen didate fede itsua dutenek, benetan. Aste honetan hileta batean izan naiz, eta, nire logika kutre honetan, heriotza injustua dela pentsatu dut, munduko gauzarik naturalena dela onartu beharrean. Ez dut sinetsi nahi izan hilkutxa barruan zihoana hilkutxa barruan zihoana zenik; beste batek mereziko balu bezala, baina nik maite nuen horrek ez. Halako gertaeren aurrean, errudunak aurkitzen saiatzen gara federik ez dugunok: medikuek ez dute behar zena egin, ez du bere burua behar beste zaindu, edanda gidatu du... fededunek, ostera, «Jaungoikoak bere ondoan nahi izan du», edo halako zerbait esaten diote euren buruari. Ez esan ez zenuketela barne lasaitasun hori nahi! Fededunek, mendian galtzen direnean ere, ez dute pazientziarik galtzen, eta *o, gu hemen bidean galduak* kantatuaz agertzen dira bi egun beranduago, egarria kentzeko ihintza xurgatu eta gero, ezer gertatu ez balitz bezala.

Progresiboki

2011-09-30

Garaia duzue armak uzteko, politika egin behar duzue. Ondo da, konturatu gara azken urteetan ez goazela inora, eta politika egingo dugu. Kondenatu egin behar duzue orain arte egindakoa, bestela ezin duzue legezkoak izan. Tira, legez kanpo gelditu diren izen guztien omenez, berria sortu dugu eta gaitzetsi egin dugu indarkeria. Ez da nahikoa, orain arte kondenatu ez duzuna kondenatu egin behar duzue. Koalizioan bildu naiz, legez kanpo jarraitzen dut, baina erabakita daukat bide berriak jorratzea. Ondo begiratu behar dugu koalizio horrek zer ezkutatzen duen. Ez dugu ezer ezkutatu nahi: hartu ditugun erabakiak atzeraezinak dira. Boto asko bildu dituzue, baina gure gainetik ezin duzue nahi duzuen egin: eskatu zuen lagunei haiek ere alda daitezela. Gure lagunekin zuek negoziatu behar duzue. Ziur egon behar dugu. Zuek esaten diguzuen lagun zenbaitek bat egin dute gure proposamenekin. Tira, agian, zerbait egiteko garaia da: legea progresiboki beteko dugu. Barkatu, aspaldi behar zuten euskal preso politikoek Euskal Herrian; zuek idatzitako legeak esaten du. Bai, baina. Progresiboki nola da? Progresiboki da progresiboki. Utziko dituzue bertan behera mendeku hutsez ezarritako legeak? Ez dago erantzunik.

Donetteak

2011-10-01

Banekien enpresa guztiak daudela edozertarako prest ekoizten dituzten produktuak saltzeko, baina irakurri berri dudanak nire logikaren muga guztiak gainditu ditu. Garaiotan, askori ogia erosteko ere dirua falta zaionean, etorri da Panrico eta Donetteak jateko agindu digu. Umetan esaten zigutenaren kontra, edukazio arau guztien kontra etorri dira Panrico eta Donetteak. Eskatzea librea dela irakatsi ziguten, baina erratuta egon gara, antza. *Eskatzera Metrora! Nire Donetteak ez ukitu!* Aiko hor, ze lemarekin saldu nahi dituzten ahokada eskas bat diren bollo txikiok. Errespetu gutxi dago mezuan. Jakin badakigu jende askok eskatu behar izan duela munduko edozein lekutako metroetako ateetan, eta biolin jotzaile famatu batek esperimientua egin zuenetik argi dugu, jendearen borondate onak ez duela asko jateko ematen. Hala ere, Donette paketea geuk hasi eta buka dezagun, gure lagunak metrora bidali ditu eskatzera Panrico enpresak. Ez diezazkigula enpresak herritarroi bragetako edo sujetadoreetako donetteak ukitu, mesedez. Garaiotan, badakigu, askoz ere gehiago direla metroan eskatzeko zorian daudenak Donette zikin bat jateko beharra dutenak baino. Gosea kentzeko moduko zerbait balitz, sikiera.

Geroa

2011-10-02

Herri honek berezitasun asko ditu, baina politikoki zerbaitek ezaugarritu badu, hori banaketak izan dira. Ez dira oraingoak euskaldunek euskaldunen kontra egindako borrokak edo deklarazioak. Abilak gara gu etsaiak etxean aurkitzen, eta, burugogorak izaki, abilak gara etsaien kontra. Azken urteetako politikagintzan banaketa asko izan dira, eta banaketen barruan ere iritzi korronteak sortu dira. Badirudi ez dugula asmatuko bidearen zati bat bera ere elkarrekin egiten. Lehengo banaketen baturatik eta lehengo baturen banaketatik sortuko dira azaroaren hogeirako koalizioak ere. Izenak esan dizkigute aste honetan, eta posizionatu gara; ehiza txakurra oilagorretan bezala irteerako tiroa entzun zain gaude geurea defenditzeko. Izen hutsetik aukeratu beharko banu, zalantzak izango nituzke. Amaiur pisu handiko izena da, baina Geroa Bai ondo sartu zait belarritik. Hala ere, geroa iraganean hasten dela pentsatzen dut, eta orainak egin behar duela handik gerorako zubia. Orain Amaiurren izpiritua berreskuratu nahi nuke, herri izaeraren aldarria, garena izatea inori baimenik eskatu gabe. Dena den, beti defentsiban egon beharrean, oraina, sortzeko unea dela uste dut. Orain bai, eta gero gerokoak.

Sarri eta ni

2011-10-04

Amaren gau mahaiaren gainean *Atabala eta Euriaizeneko* liburua ikusi nuen umetan, eta aitak azaldu zidan nola alde egin zenuen kartzelatik. *Izeba Mariasunen Ipuinak* izan zen irakurri nizun lehen liburua, eta *Gartzelako Poemek* makina bat marapilo egin dizkidate urdaileko atean. *Ene ondasun guztia* entzun nuenean jakin nuen ez duzula «r» ondo ahoskatzen, eta irakurle batek inoiz egin didan erregalu bakarra *Narrazioak* izan da —erredakzioan utzi zuten nire izenean—. Zuri buruzko notiziak azaltzen diren bakoitzean ni baino gazteago agertzen zara argazkietan, eta 21 urte zaharragoa zara. Amets egiten dut egunen batean gure herriko liburutegira etorriko zarela eta iluntzean etxera noanean pentsatuko dudala, «Ainhoari gutunak idatzi zizkion gizonak, biluzten bagara errazagoa dela esan zuenak, muxu bi eman dizkit». Pertsonaia erromantikoa zara, Sarri: bazaude eta ez zaude. Batzuentzat terrorista bihurtu zaituzten esku berberak bihurtu zaituzte niretzat idazle berezi. Ez dakit esku lodiak, meheak, zahartuak, atzamar luzedunak, laburrak... izango dituzun, baina primeran jakin dute sentimenduak folio zurietan esplikatzen. Zorionak, Sarri, baina ez sari honengatik bakarrik: eskerrik asko guztiagatik.

Besteak

2011-10-05

Euren herrian izan den diktadorerik handienaren ilobak telebista izar bihurtu dituztenek ez dute Sarri maite; terrorista omen. Hil ondoren omenaldiak egiten direnean, defuntuaren familiak jasotzen ditu sariak, baina herritik urruti egotera kondenatuta dagoenak bere egoera erregulatu behar du. Ezin zaio saria haren familiari eman, eta gorde egingo dute. Lehendakari izendatu zutenean Sarriren hitzak erabili zituena ere isilik dago. Espainiako komunikabideetako foroetan diotenez, Sarrionandiar Euskadi Saria ematea Hitlerri Bakearen Nobel Saria ematearen besteko ekintza krudela da: umore absurdoa gustatzen zaigunontzat eztabaida interesgarria da hau! Dena den, saria nori eman eztabaidatu dutenen gainera, epaimahaiaren gainera, hartu dute erabakia zenbait politikaririk. Saria ez emateko erabakia politikoa da, beraz. Gero esango digute literaturak eta politikak ez dutela zerikusirik, eta sinesten saiatuko gara hala dela. Agian Sarri barreka egongo da, akaso hemen balego Utikan Euskadi Sariak manifestua sinatuko luke, litekeena da saria kabitzen zaigun lekuan gorde dezagula pentsatzea, baina kontua da, gustatu edo ez, berak irabazi duela eta punto pelota!

Azeria

2011-10-06

Beti pentsatu dut gaztelania egokia dela emakumeei burla egiteko. Adibide asko daude, baina deigarrienak animalien izena erabiliz egiten diren burlak dira. Gaztelaniazko *lobo* otsoa da euskaraz, baina *loba* ez da otsanda bakarrik. Norbaitek *loba* deitzen badit, pentsatu behar dut ohera eraman nahi ditudan gizonak neuk aukeratzen ditudala eta hori ez dagoela ondo. Txakurra esan behar dutenean *perro* esaten dute espainolek, baina emakume bati sexua bereziki gustatzen bazaio, *perra* deitzen diote. Ez dut inoiz entzun gizon bati zentzu horretan *perro* deitu zaionik; ezta larrutan lau hankan egitea gustatzen bazaio ere. Gizonei *perro* deitzen dietenean beti da ondo zelan bizi badakitelako. Nik ulertuta neukanez, berdin gertatzen da azeriarekin ere. *Zorro*, gizon argia da, bizia, egoera zailetan ere zirrikituak aurkitzeko gai dena. *Zorra* emakume larruzalea da, edonorekin larrua jotzeko prest dagoena. Hori orain arte, jakina. Badirudi, aurrerantzean, norbaitek *zorra* deitzen badit egoerei aurrea hartzen dakien emakumea naizela. Une batez, nazka sentitu dut, baina zer nahi duzue esatea, orain hau esan duen epailea da orain dela urte batzuk *Euskaldunon Egunkaria* ixteko agindua eman zuena. Zer espero zenuten?

Hurbil

2011-10-07

Aurten jende askok erakutsi du Espainian politikariek haserre dagoela. Baten batek pentsatzen badu hori ez dela horrela, maiatzaren 15eko mugimenduari jarraitzea baino ez dauka, politikariek, berriz, ez dute ezer egin gauzak konpontzeko: urte bi behar izan zituzten krisia dagoela onartzeko, eta gehiago beharko dituzte txarto egindako plan ekonomikoa aldatzeko. Gobernuak ez du jakin herritarren kezkei erantzuten, bankuek etxerik gabe utzi duten jendeari laguntzen, langabeak babesten... herriarengandik oso urrun egon dira hala nahita, baina orain hauteskundeak datoz eta botoak behar dituzte. Alfredo Perez Rubalcabak bere album pertsonaleko argazkiak argitaratu ditu hauteskundeetarako ireki duen webgunean. Horrela, maite dutenek haren historia arakatu ahal izango dute nolako gizona den jakiteko, eta maite ez dugunok politikari hotz horren atzean gizon bat dagoela deskubrituko dugu. Patetikoa da beharrezkoa denean kasurik ere ez egitea herritarrei, eta gero, tronua jokoan daukatenean halako sentimentalkeriekin etortzea. Ez nuke harritu behar, beti egiten dute gauza bera, baina harritzeko eta haserretzeko galtzen ditugunean, guztiz irentsi gaituzten seinalea izango da, eta ez dut hori nahi.

Amantalak

2011-10-08

Amantalak eramatera kondenatu zituzten. Sukaldean, soroan, isilik egin behar zuten egiten zekiten guztia. Esan zieten gizonak zirela mundua gobernatzeko kapaz zirenak, eta, bizirik irauteko, onartu egin behar izan zuten. Ez zuten historiarik idatzi, eta ez dakigu haietatik zenbat izan ziren lehen lerroko gudariak, politikariak, medikuak, artistak, alkateak... guk dakiguna idatzi zutenek ez zituzten kontuan hartu, eta orain guk ez dakigu haietaz ia ezer. Ezizenak asmatu zituzten liburuak edo prentsa artikulua sinatzeko, ez zegokielako halako lanik. Uste zuten ez zeukatela kontatzeko ezer interesgarririk ilobak altzoan hartu zituzten arte. Orduan garbi ikusi genuen bazekitela kantatzen, eta bazekitela kontatzen gerra, kartzela, errepresioa, hizkuntza, maitasuna eta beste nola bizi izan zituzten garai batean. Konturatu ginen ahal izan balute amantalaz bestelako uniformeak jantziko zituztela eta ahal izan zutenek jantzi zituztela. Isildutako amantalen ahotsa ia lehenengoz prestigiozko leku batera eraman zuten atzo. Ahots asko isildu dira dakiten guztia kontatu gabe, ordea. Bada ordua esateko duten guztia entzun dezagun, eta ondorengoei historia haiek irakatsi diguten moduan kontatzeko: emeki-emeki.

Telebista

2011-10-09

Telebistan ez dago emakume zaharrik edo begi okerrik. Akaso hanka okerren bat egongo da, baina ez aurkezleak zutik agertzen diren programetan. Ez dago emakume potolorik, ez baldin bada noizbehinkako kolaboratzailearen bat (badaezpada neuk esango dut, neu ere agertu naiz inoiz eta). Telebistan denetariko emakumeek lan egiten dute, baina pantailan agertzen diren gehienak ederrak dira; ez dago sudur luzerik edo belarri handirik. Gaitasuna dute dagokien lana egiteko, baina horretaz gainera, gehienak (denak ez esatearren) emakume ederrak dira. Telebistan agertzen diren gizonen erreparaturik gero, ezin dut nahita ere bista hainbeste alaitu: begi okerrak ikusten ditut, burusoilak, hanka okerrak, lodiak, sudur luzeak, belarri handiak... ez da nire obsesioa bakarrik. Galdetu egin dut, eta nire inguruan jende asko dago nirekin ados: telebistako gizonen artean denetik eta gustu guztietarako dago. Batera izan zein bestera izan, berdin ikusten ditut programak, baina galdera batek kentzen dit loa: halako begi oker, lodi edo belarri handia emakumea balitz, aurkezlea izango litzateke? Edertasun kanon konkretu bat betetzen ez duen neskari programa bat emango liokete? Erantzunak amorrua ematen dit.

Kontuak

2011-10-11

Arabako Foru Aldundian milioi askotako zorra dagoela diote, eta Gipuzkoakoan ere bai. Herri askotako udaletan kontuek ez dute kuadratzen, eta Donostiako Udalean egoera oso larria dela esan ziguten udan. Ez dut nik epaituko gauzak asmo onez edo txarrez egiten diren, baina argi dagoena da herri honetan gauza asko gaizki egin direla. *Krisia* hitzarekin ametsik gaiztoenak izan ditugu hitza bera entzutearen entzuteaz, baina inork ez du esan abiadura handiko trena egingo ez denik dirurik ez dagoelako. Hemen, dirua, betiko partidetan murrizten da: osasuna, hezkuntza, zerbitzuak... Ez da kasualitatea izango, justu aurten, Bilduk espero gabeko emaitzak lortu dituen urtean agertzea gaizki kudeatutako hainbeste kontu. Gehiengo osoa ez da ona inorentzat, eta gaizki egindako kontuek erakusten dute hori. Beti agintean egon direnek nahi izan dutena egin dute nahi izan duten moduan; beti jakin baitute beren hanka-sartzeak atzetik datorren beste batek konponduko dituela, «nola gure alderdi berekoek hartuko duten lekukoa». Baina ez da beti horrela, zorionez. Horregatik ibili behar lukete kontuz Bizkaiko Foru Aldundian eta Bilboko Udalean: gutxien espero dutenean gaizki kudeatutako kontuak argitaratuko direlako.

Iparra

2011-10-12

Bada mutil bat kartzelan dagoena, beste hainbat euskaldunen moduan. Ondarroarra da. Beste edonongoa izan zitekeen, baina ondarroarra da. Kartzelara sartu zutenerako, bazekien GIBduna zela, baina urte askotan bizimodu arrunta egin zuen birus eta guzti. Kontua da Espainiako kartzeletan ez dituztela gaixorik dauden presoak behar den moduan artatzen. Asko daude tratamendua jaso ezinik, eta horietako bat da aipatutako mutila. Kartzela eta GIBa entzunda, lehen eguerdi ostean ematen zituzten film sentsazionalista horietako batez ari naizela ematen du, baina ez, ondarroarra da eta Basauriko kartzelan dago; Euskal Herriko txoko urrunenetik hiru ordura gehienez. Ez dute askatu nahi, eta han dago egoerari eusten. Kostata ekarri zuten Euskal Herriko kartzela batera, eta badirudi kostata askatuko dutela. Gero eta gutxiago ulertzen ditut gauzak: Espainiako zigor kodeak esaten du preso guztiek bete behar dutela kondena etxetik gertuen duten kartzelan, eta gaixorik daudenak kaleratu egin behar dituztela. Hauek egiten dutena da gaixorik daudenak Euskal Herrira hurreratu, eta estutu. Mendeku politika horrek aspaldi galdu zuen nortea, baina pentsatu nahi dut Iparra galdu baino lehen erreakzionatuko dutela.

Egun arrunta

2011-10-13

Igande usaina dauka gaurko egunak (irakurlearentzat atzokoak). Goizean ohetik jaiki eta arraro egin zait eguazten batean lanera ez joatea, baina ez naiz joan. Gernikan dena edo ia dena itxita dago. Kafea hartzera joan naizenean, ez dut TAO ordaindu beharrik izan. Hori igandetan eta larunbat arratsaldetan baino ez da gertatzen. Gure ama lanera joan da, eta hasi naiz pentsatzen ea zer den arraroagoa: Hispanitatearen Egunean lan egitea, ala guztiok jai dugunean batzuk lanera joatea hala egin behar dutela sinesten dutelako. Herri honetan jai egunak ere arraroak dira azkenean. Egun osoa izan dut ospatzeko ezer zergatik ez daukadan hausnartzeko, eta neure burua ia konbentzitua nuenean gogoratu naiz nola esan zidan, behin, auzoko emakume batek: gauza bat da espainolak ez izatea, eta bestea leloak izatea. Alegia, jai egin eta kitto! Ez dut hain garbi ikusten, eta askotan lan egitea tokatu gabe ere lanera joan naiz, baina gaur jai egin dut. Eta oraindik min handiagoz egingo dut jai urriaren 25ean, edo abenduaren 6an. Sekulako gerra sortuko zait berriz ere barruan, baina goizeko 11:00 arte lo eginda gero, neure burua kontsolatuko dut: lasai, Onintza, ateoak Benidormera joaten dira Aste Santuan.

Dietak

2011-10-14

Dieta asko egindakoa naiz, eta badakit guztietan sufritzen dela. Beti pentsatu dut egongo dela dieta zoragarriren bat txokolatea jatea baimentzen duena, baina gero, praktikan, beti kentzen dizkirate lehen astean hasi eta hirugarren hilabetera arte faltan sumatzen ditudan gauzak. Azkenean, baina, aurkitu dut dieta egoki bat. Ez dakit argaltzeko balio duen, baina mauka itzela da. Dieta zoragarri hau ez da egin behar, jaso egiten da. Egin behar den bakarra da Nafarroako Gobernuan kargua izan eta CANeko ordezkariak hartzea. Alderdi konkretu bat ordezkatzeko baduzu gainera, hobeto: lehenago egingo dizu efektua. Kargua hartu, batzarretara joan, eta berehala aplikatzen dizute delako dieta hori, eta egunkarrietan irakurri dudanez, zazpi urtean, gutxi gorabehera 750.000 euro ematen dizkizute dietetan. Notiziak leher egiten duenean jendea haserretzen bada, ez duzu zertan larritu: egin behar duzun bakarra da komunikabideen aurrean onartzea gehitxo izan ote den jaso duzun dieta. Horrekin dena konponduko da, eta bestela, denborak egingo du bere lana memorietan. Halako dieta egiteko aukera izanda, ez nintzateke baskularen gainean jarriko dirua pisatzeko izan ezik. Handienak ez ditugu oraindik ikusi!

Barkamena

2011-10-15

Ez dut ulertzen barkamena eskatzeko ohitura. Bizi denak min hartu eta egiten du, maite du eta maite dute, gorroto du eta gorroto dute, jasaten dute edo ez eta jasaten du edo ez. Bizi garen seinale da gaur barrea eragin digun horrek bihar negarra eragitea. Ez baikaude geldi, eta dabilenari gauza asko gertatzen zaizkio. Ez naiz ni inor baino hobea, ezta txarragoa ere, baina badakit jaso dudan adina min egin dudala bidean. Askotan nahi gabe izan da, ondo pentsatuta emandako pausoren batek mindu dituelako inguruko zenbait. Saiatu arren, ezin izan dut besteen mina saihestu. Beste batzuetan jakinaren gainean mindu dut jendea. Badira norbere zilborrari bakarrik begiratuta hartu behar diren erabakiak, eta halakoetan zaila da maitasun adina min ez sortzea, nahiz eta ondorioak aurretiaz jakin. Nahi gabe min egin dudanean alferrik esan dut barka nazazu; denborak eramanez dituz urak bere bidera, eta maitasunak lekua hartu du. Jakinaren gainean min egin dudanean ez dut barkamena eskatzeko aurpegiarik izan. Aurretiaz jakin izan dut zertan ari naizen, eta besteen minari baino garrantzi handiagoa eman diet neure helburuei. Hain zuzen ere, horregatik ez dut sinesten barkamenean, ez gauza pertsonaletan ez kolektiboetan.

Zahartzaroa

2011-10-16

Lehen, *zaharra* hitzak ez zeukan euskaraz konnotazio txarrik; azken batean, saihestezina da denbora pasatzea. Gure amama Benitak goizero eskatzen zuen orrazteko, eta kolonia franko bota ondoren, etxeko atarian esertzen zen lasai. Amama Ramonak iloben ilobak ikusi zituen jaiotzen, eta presa handirik gabe zegoen heriotzaren zain. Armairuan gordeta zeukan hilkutxan jantzi ziezaioten nahi zuen arropa, eta etxeko ilobarik zaharrenari gogorarazten zion tarteka. Aitita Patxik lasai eman zituen azken urteak, bere gaixotasunaren jakitun: etxe bueltan ibiltzen zen pauso laburrean hara eta hona, urrutirako ametsik gabe. Zaharrak ziren, eta munduko egunak amaitzen zituztela esaten ziguten inolako larritasunik eta enbarazurik gabe. Orain zaharrak trapuak bakarrik direla esaten dugu, gaztelaniaz esaten duten lez; liftingak egiten ditugu inork ez igartzeko zenbat urte ditugun; arineketan gabiltza heriotzak harrapa ez gaitzan; ez dugu pentsatu ere egin nahi munduko egunak amaituko zaizkigunik; egun bat osorik edo ia osorik etxean pasatzen badugu, antsietateak jotzen gaitu; laurogei urterekin hiltzen direnak gazte hiltzen direla esaten dugu, zahartu direla ez onartzearren. Pena ematen dugu!

Gorbata

2011-10-18

Ilñaki Anasagastik gorbata janztea gomendatu zion Paul Riosi Nazioarteko Bake Konferentzira joateko. Grazia egin zidan, eta adi egon nintzen Bake Konferentziari begira. Paul Riosek gorbata jantzi zuen, baina ez berak bakarrik, hara joan ziren gizonezko guztiek zuten gorbata Donostiako alkateak izan ezik. Ez dut esango harritu ez ninduenik Rofi Etxeberria gorbatarekin ikusteak, baina, ze kristo, dotore zegoen. Jon Idigoras Madrileko kongresura joan zenetik hona, gorbatak aldatu egin dira ezker abertzalean, garai bakoitzera egokitzen jakin dute. Atzoko konferentziaren emaitzak potoloak izan ziren. Honezkerok, ordua da bakoitzak dagozkion urratsak egin ditzan. Asko itxaron dugu. Irudipena daukat bake prozesua hasi zenetik keinuak eta pausoak egiten ari direnak ordura arte terroristenak izandakoak direla, eta beste guztiok ere badugu espabilatzeko ordua. Dena dela, gorbatekin amaitu nahi dut, hasi naizen moduan. Konferentziaren emaitzak entzunda, Espainiako hauteskundeetako koalizioak nola dauden jakinda, euskal gizartearen aldaketarako gogoia usainduta eta lehendakaria aukeratzeko hauteskundeetarako zenbat falta den kalkulatuta, pentsatzen nago ez ote dien batzuei gorbatak saman itolarria eragingo.

Trukea

2011-10-19

Bost urtez egon da bahituta, eta familiaren hutsa sentitu du. Horregatik nahiko luke preso palestinarrek ere euren familiak besarkatu ahal izatea. Milak baino gehiagok lortuko dute. Horixe izan baita Gilad Shalit aske uzteko Hamasek Israelgo Gobernuari jarri dion baldintza. Askok pentsatuko du ez dela truke justua mila baten truke, baina Hamasek ez dauka aukerarik mila israeldar bahitzeko. Nahikoa meritu da garaiotan bahitu bakarra bost urtez mantentzea ere poliziak aurkitu gabe. Israelek, oster, estatu boteretsua denez, milaka palestinar hartzen ditu preso. Komunikabideek eta botereak terroristatzat hartzen dituztenek bahitu egiten dute jendea, baina estatuiek preso eramaten dituzte. Edozelan ere, egun handiak izango dira atzokoa eta gaurkoa Gazan eta Zisjordanian. Mila seme-alaba bueltan datoz etxera. Pentsatzen jartzen naiz eta nire herrian ez gara mila baino askoz gehiago bizi. Asko dira mila; atera kontu, beraz, zenbat izango diren barruan utzi dituztenak. Ez baitu Israelek ahuleziarik erakutsiko Hamasen aurrean. Mila baten truke ikusi dugu eta azterketa kuantitatibo bat-batekoan asko dela pentsatu arren, kontuz! Israelek tratua onartu badu, soldadu baten bizitza baino askoz ere gehiago irabazi dezakeelako izango da.

Bakearen bila

2011-10-20

Makina bat urte daramagu euskaldunok Bakearen Bila izeneko mahai jokoan. Barbaro eta burugogor samarrak izaki, ezin izan dugu saihestu jokoari eusteko sortu ditugun zenbait mahai haustea. Horixe gertatu zen Aljerreko, Loiolako eta Lizarrako partidetan: hotz ibili ziren parte hartzaileak, eta hotzaren hotzaz mahaiak apurtu egin ziren. Hotz edo bero ibiltzen baita bat bilaketa jokoetan: bilatu behar duenera hurreratu ahala, berotu egiten da, eta urrundu ahala, hoztu. Orain arte jokalaria guztiok izan ditugu geure motiboak ez berotzeko: disoluzio eskaerak, demokraziarik eza, ekintza armatuak, ilegalizazioak, kondena eskaerak, erabakitze eskubidea onartu nahi eza... halako oztopoak aurkitu ahala, atzera egiten izan dugu, eta hoztu egiten izan gara. Pentsatzen dut ez gabiltzala guztiok gauza beraren bila bakeaz ari garenean: batzuentzat nahikoa da ETA desagertzea, eta besteok hori baino askoz gehiago nahi dugu bakean bizitzeko. Horregatik kostako zaigu hainbeste, akaso. Ez da erraza bakera hurreratzea eta berotzea; gutxiago oraindik, nazioarteko hainbat aditu zure etxera datozenean zuk urrunera ospa egiten baduzu. Iruditzen zait New York Donostiatik urrutiegi dagoela bakearen alde atxixarratzeko.

Trofeoak

2011-10-21

Nik ez dut gerrarik zuzenean bizi izan. «Nahi duenak irabazi dezala, baina hau amaitu dadila», esaten duten begiak telebistan bakarrik ikusi ditut. Gerran beti baitaude irabazleak eta galtzaileak. Irakatsi diguten historiak halaxe kontatzen du: irabazten duenarentzat izaten da tronua, erreinua, gobernu edo petrolio. Galtzen duenarentzat ez da ezer ere geratzen; ahal badu, irabazleak ohorea ere kendu egiten dio. Erregea hil ondoren, beste bat jartzen da haren tronuan eta historiak jarraitu egiten du. Gehienetan, irabazten duenak ahalik eta gehien kriminalizatzen eta umiliatzen du galtzen duena, gerra tirorik gabe irabazi izan balu bezala. Trofeoak erakusten dizkigute plazan edo sarean. Ez zen nahikoa izan Bin Ladenen aitzakian Afganistango petrolio hodian gaineko kontrola hartzea, ez: ez zuten bakerik izan Bin Laden hil arte. AEBek ezin izan zuten bere botere gosea ase Saddam Husseinen estatua lurrera bota eta Irakeko gobernu berriaren kontrola hartuta: Saddam Hussein nola urkatzen zuten ikusi behar izan genuen guztiok. Eta ez da nahikoa izan Libia eta bertako baliabide ugariak hartuta: Gaddafi hil dute errebeldeei laguntzeko aitzakiarekin. Penaz ikusi dut bere argazkiak nola zabaldu dituzten sarean.

Osteguna

2011-10-22

Gogoratu naiz Klara eta Balendinez: Herri Batasunarengan sinetsi zuten auzotar bakarrak izan zirelako orain hogeita hamar urte baino gehiago. Gogoratu naiz nola irakatsi nien Beñat eta Aintzinari Txikia kantatzen oraindik irakurtzen ere ez zekitenean, eta badakite bereziki poztu nintzela lehenengoz manifestazio batean topo egin genuenean. Ezin dut burutik kendu Maddik nola esan zidan arratsalde batean: «Onintza, badakizu gauza bat? Nire ama atxilotu egin dute». Lau urte baino ez zituen. Akorduan daukat amama Klarak nola eraman gintuen hiru ahizpok beheko errepidera Santi Brouarden hilkutxari ohore egiteko Lekeitiorako bidean Muxikatik pasatu zenean. Milaka aldiz errepasatu dut nire memorian Ina Zeberio Gernikan hil zuten eguna. Aurrean banu bezala ikusten dut gaur ere Alaitz, bederatzi hilabeteko umea besoetan duela, Fleuryko bisita gelara irribarretsu sartzen. Hainbeste sentsazio nahastu zaizkit barruan, eta ez dakit nola bide eman guztiei. Dakidana da osteguna berezia izan zela, eta bide luzeak ekarri gaituela ostegunera arte. Batzuek diote ez dela nahikoa, irabazi egin dutela, porrota izan dela... niri bost! Seguru nago, eguenean eta seguruenik barikuan ere, nire aldean gaizki lo egin zutela.

Kontatzea

2011-10-23

Duela urte asko lagun talde bat elkartu zen Espainiako diktadura militar ankerraren kontra eta Euskal Herriaren alde ekiteko. Hasierako ekintzek izan zuten eragina ikusita, konturatu ziren arerio hura mugitzeko armak behar zituztela. Bai, bai, armak; eta erabiltzeko konbentzimendu osoarekin erosi zituzten. Lehenengo etsai armatua hil eta berehala, etsai armatuek hil zuten taldeko bat, eta momentu hori, oso gogorra izan zen. Beste guztiek hartutako erabakiaren larria ulertu zutelako lagunaren gorpuan. Baina aurrera egin zuten, eta militarren bihotza zauritu: diktadorearen ondorengoa hil zuten. Gero urte nahasiak eta latzak etorri ziren: diktaduratik demokraziarako trantsizio faltsua, torturak, hildakoak, atentatuak, sakabanaketa... gazteagoek hartu zuten lekukoa, eta beti asmatu ez zuten arren, gure herriari bazela gai erakutsi zioten, Euskal Herriak noizbait bere etorkizuna erabaki ahal izango duela konbentzitu gintuzten. Eta hala, herriak erakutsi zuenean baduela indarra pertsona oro, hitz oro herriaren aldeko arma bihurtzeko, beste armak isildu egin ziren. Ez dakit borroarena edo biktimarena den; berdin dit. Hau nire seme-alabei kontatuko diedan historia da, nik bizi izan dudana.

Lezioa

2011-10-25

Eskolan irakatsi ziguten gerra ez dela ona, eta esplikatu ziguten munduan onak eta txarrak daudela. Irakasleek esan ziguten ez dela erantzupen txarrik eman behar, eta isilik egoten ikasi egin behar dela. Eskolara joanez ikasi genuen ez dela barre ozenegi egin behar, ingurukoak molestatu egiten direlako. Matematikan, zenbakiak irakatsi zizkiguten, eta kimikan, balentziak eta formulazioa. Irakasleak ia-ia lotsatu egiten zirenez, umeak nola egin behar ziren ikasi genuen, baina plazeraz ez ziguten ezer kontatu. Orduak eman genituen eskolan, eta orduak institutuan eta unibertsitatean, eta itxura gordetzen ikasi genuen. Irakasleek esaten zutena zeinen garrantzitsua den frogatzen genuen azterketetan, ez baikenuen besterik ikasten irakasleek esaten zigutena baino. Gauza asko ikasi arren, uste dut zenbait lezio falta izan zaizkigula. Bada bat, dokumental batean ikusi dudanez, Japoniako irakasle batek oso ondo irakasten duena. Haren ikasleak izan nahi dute eskolara doazen neska-mutil guztiek. Kazetariak irakasleari kurtso honetarako zein helburu duen galdetu dionean, argi esan dio zein den bere helburua kurtso honetan eta beti: umeek bizitza zein garrantzitsua den ulertzea, ez dezaten alferrik galdu.

Ona

2011-10-26

Gure familian gauza normala da despeditzerakoan «onak izan» esatea, eta ez dago amorru handiagorik ematen didan ezer. Onak ona izan behar du ikasketetan, jendearekin, familiarekin, lanean, parrandan eta urteko 365 egunetan kabitzen zaizkion ekintza guztietan. Umeei ikatza ekartzen die Olentzerok onak ez direnean, eta Gabonen aurreko hilabetean gustura egingo lituzketen gauza asko autozentsuratzen dute. Nik ez dut ona izan nahi. Ona izan naizenean gizarte potrozorri honek belarrondokoak eman dizkit: ondo jokatu dudanean ligeak kendu dizkidate; lanean ona izan naizenean ondokoen lana ere neuk egin dut; lagun ona izan naizenean herri osoaren penak entzuten amaitu dut; militante ona izan naizenean, bakarrik ibili naiz kartelak pegatzen; euskaldun ona izan naizenean, gustuko ditudan gauzak alboan utzi ditut euskaldunak ez direlako. Gizartearentzat onak diren neska-mutilak ez zaizkit gustatzen: nota onak ateratzen dituzte, lan ona bilatzen dute, bikotearekin bizitzen jartzen dira, hipoteka fin ordaintzen dute eta umeak ekartzen dituzte. Gehiago interesatzen zaizkit besteak: harremanak noiz amaitu jakin dutenak, dena utzi eta abentura bila joaten direnak, ikasketetan huts egin zutenak... jende onarekin aspertu egiten naiz.

Berriro hasi

2011-10-27

Badakit programa igande gauean ematen duela Espainiako telebista kate batek, baina nik asteartean ikusi nuen Internetez. Aprobetxatu egin behar dira sinesten ez ditugun jaiegunak ere. Joan den igandeko programari *Reiniciando Euskadi* ipini zioten titulua; Euskadi berriro hasten, gutxi gorabehera. Ez dut nik ukatuko urriaren 20tik hona gauzak asko aldatu ez direnik, baina berriro hasten ari garen inpresioak harritu egiten nau. 52 urteko jarduera militarra bertan behera utzi du ETAk, baina Euskal Herria ez da berriro hasten ari; ez baikaude, inondik inora ere, orain dela bost hamarkada geunden tokian. Euskal Herriak independentea eta euskalduna izan behar duela sinesten dudalako pentsatzen dut jarraitzen ari garela eta ez berriro hasten. Batzuentzat hobeto eta beste batzuentzat okerrago egingo ziren gauzak, baina ibilbide militarrek ere eragin du orain gauden lekuan egotea. Baliteke hau ez izatea egon behar genukeen lekua, eta bakoitzak albokoaren astoari botako dio horren errua, baina hemen gaude, eta hemen bagaude, urteetan gertatu diren gauza on eta txarren ondorioz da. Beraz, momentu historiko hau, egoera hau edo bidegurutze hau ez da berriro hasteko tokia: aurrera jarraitzeko tokia da.

Txarrak

2011-10-28

Behin onei buruz idatzita, txarrei buruz idaztea zor nuen, baina kosta egiten zait; txarra zer den argitu nahian, nahastu egiten naiz. Adibidez, txarrak kartzelara joaten direla esan zidaten niri ere umetan, baina handitan ez da horrela izan: onak ikusi ditut kartzelan usteltzen, eta herritarren odola zurrupatu arte tiraka ibili direnek gorbata erantzeko beharrik ere ez dute izan. Gaddafi bera ere txarra dela esan digute, eta hala izango zen akaso, baina hil dutenak ez dira bera baino askoz hobeak. Osasuntsu egoteko txarrak omen diren gauzak gustuko ditut: txokolatea, garagardoa, gominolak, maionesa, ardoa, txorizoa, arrautza frijitua, pizza, gazta tarta... Eta hainbeste gustatzen bazaizkit, ez dira hain txarrak izango, noski! Antzerki obra txarrekin lehertu naiz barrez, eta film txarrek hunkitu egin naute. Nire garapenerako txarrak izan behar zuten pertsonak markatu dute nire bidea, eta askok uste baino pertsona hobea naiz gaur egun. Gerta liteke arazoa neurea izatea, edo gerta liteke, eta gehienetan hala izaten da, sistemak edo gizarteak agintzea txarrak direla enbarazu egiten dioten gauzak. Kontua da sistemarentzat edo gizarte zoro honentzat txarrak diren gauzak beti ez direla guretzat txarrak.

Goxo

2011-10-29

Ez du merezi ozpinduta bizitzea. Alferrik emango ditugu orduak gustuko ez ditugunei min nola egin pentsatzen. Nahiz eta guri pilota asko gustatu, ez dago ondo erabiltzen ez den frontoi batean bizi den jendea kalera botatzea. Ez da kudeaketa duinaren eredu, eta jendea haserretu egiten da. Jakin behar da norbere buruari barre egiten, eta norbere akatsak zein ezinak jendaurrean onartzen. Hiri jakin bateko alkatetza lortu duen lehen emakumea izan arren, ez dago inor baino gogorragoa zarela demostratu beharrik; poztu zaitez lortu duzulako. Jaien hasierako txupina txandaka botatzen bada, ezin dituzu gustuko ez dituzunak baztertu haien txanda denean; ez dago ondo, eta haserretu egingo dira. Akaso, batzuei ez die ardua izango nor haserretzen zaien; eurak haserre daudelako beti. Edozelan ere, hobe da besteei entzutea, eta besteei begiratzea. Entzun, ukitu eta ikusi besteek egiten dituzten gauzak. Ez da pentsatu behar norbera denik gauzak ondo egiten dakien bakarra; akats propioak ere onartu egin behar dira. Osterantzean, gutxien espero duzun egunean, zure zeurekoikeriarekin haserretutako lagun batzuek tarta bat botako dizute aurpegira; eta orduan, ez zaizu aldartea esnegain azukretuarekin ere goxatuko.

Astelehena

2011-10-30

Gernikako astelehenak bereziak dira: batetik azoka egoten delako, eta bestetik, azokaren aitzakian tabernak ere bete egiten direlako eguerdian. Biharkoa gainera, astelehen bereziagoa izango da urriko azkena delako. Jendetza batuko da Gernikan, eta askok eramango ditu poltsikoak bero standetan generoa erosteko. Han egongo dira asteleheneroko baserritarrak merkatuko plazan, baina jendea ez da hara joaten. Haiek ez dute normalean baino gehiago salduko, nahiz eta standetan baino merkeago izan generoa. Taloa jateko ilaran egongo da jendea, eta azkenean asko ordainduta ere, talo onik ez du jango. Gazte askok ipiniko dute Bilboko dendaren batean erositako aldeanoen trajea. Aldeanoak. Baserritarren alaba naiz ni. Urtean pare bat aldiz haiek maite ditugun antza ematen dugu, baina nor gogoratzen da benetan baserritarrez? Esaten dugu ez garela astelehenetan azokara joaten lanean gaudelako, baina astelehen goizetan supermerkatuak bete egiten dira eroslez, Gernikako plaza ez bezala. Saihesbide berrian azpian erori dira baserri zaharrak, eta belardiak sasiak hartu ditu. Galtzen ari garenari erreparatzen ez badiogu, urtean lau urriko azken astelehen eginda ere, ez dugu lurretik eta lurrarentzat bizi ziren haien kontzientzia berreskuratuko.

Loreak

2011-11-01

Gazteegia zinen betiko joateko. Hilerrira arte lagundu nizun loreak eskuan, baina ez nuen oso ondo ulertu hurrengo igandean zergatik ez zinen Lehenengo Jaunartzea egitera etorri. Zure argazkia ipini zuten aldarean presente egon zintezan, baina argazkia han egoteak, zure ordeaz argazki sinple hori han egoteak, nabarmendu egin zuen utzi zenigun hutsunea. Urte asko pasatu dira, baina oraindik ere gogoratu egiten naiz nola ezkututzen ginen autobuseko jesarlekuen azpian eskolatik etxerako bidean. Ez duzu inoiz jakingo, baina kazetaritza amaitu nuen eta egunkari batean idazten dut egunero. Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean hiru aldiz kantatu dut, eta lagunek pankartak egiten dizkirate animatzeko. Bai, lagun zoragarriak egin ditut honainoko bidean. Ez gara autobuseko eserlekuen azpian ezkututzen, baina hogeita hamarrek ondo pasatuta ere, jarraitzen dugu okerkeriak egiten. Umeegia zinen beti-ko joateko, eta umeegia nintzen ni ganoraz agur egiteko. Gauza gehiegi utzi zenituen bizi gabe, eta gauza gehiegi gelditu zitzaidan barruan zuri esan gabe. Gaur, berriro ere egingo dut hilerrirainoko bidea, fedez baino gehiago pozez, eta lore bat utziko dizut bizi zinela eman gabeko muxu guztien akorduz.

Biharamuna

2011-11-02

Kosta zait betiko kafetegira heltzea. Kristalezko zein plastikozko botilak ostikopetik kendu ezinda egin dut hiri erdirainoko bidea. Oinezkoentzat bakarrik diren kaleen hegaletan plastikozko eta kristalezko espaloi artifizialak egon dira, eta erditik ibili da jendea, burumakur. Kafea eskatu dut eta lotsa pixka bat eman dit atzo neu ere parrandan ibili nintzela onartzeak: lurrean egon den zikinkeria guztiaren ehuneko zero koma bost edo neuk botatakoa izango zen. Kale garbitzaileak izerditan ibili dira kale printzipalak garbitzen, eta betiko moduan, azkenerako utzi dituzte bazterrak. Taberna batzuek ez dituzte ohiko orduan zabaldu, eta eguerdian oraindik garbitu nahi eta ezinean ibili dira. Pertsiana azpitik plastiko eta kristal gehiago botatzen izan dute kalera zenbait lokaletatik, eta zabor biltzaileek ez dute kamioi bakarrarekin aski izan. Pintxoa jan eta kotxerantz noala, espaloian lo seko egon den mutil batekin estropezu egin dut, eta ez da konturatu ere egin. Standak batu dituzte, eta udaltzainek trafikoari itxitako kaleak zabaldu dituzte. Tabernariak pozik daude atzoko jendetzarekin eta jendea goiz oheratuko da gaur atzoko eta gaurko loak gau bakarrean egiteko. Bihar beste egun bat izango da.

Txertatzen

2011-11-03

Hego haizearekin batera mukiak eta eztulak ekartzen dizkigu udazkenak. Temperaturen gorabehera ero honetan, etxe guztietara sartzen da gripea. Zaharrak eta bronkioetako gaixotasunak dituztenak arrisku handia dutenez besteok baino gripe gogorragoak pasatzeko, txertoa jartzeko kanpaina egiten du Osakidetzak gurean. Ez digu esaten sintomaren bat badaukagu ohean gelditzeko, lasaitzeko, erritmoa jaisteko, ez. Badaezpada txertoa har dezagula da osasun agintarien aholkua. Eta ez dut nik esango txertoa txarra denik, baina gaixotasunei aurrea hartzeko beste bide batzuk ere izango dira. Kontua da enpresa farmazeutiko handiek saldu egin behar dutela eta guk gaixorik sentitu behar dugula horretarako. Txertoetan doan dirutzaz gain, kontrolik gabe kontsumitzen dira muki jarria egun bakarrean kentzen duten pastillak edo sobreak, eta inor ez da egun batez ohean gelditzeko gai. Gure lanean ezinbestekoak bagina bezala joaten gara lanera sukar eta guzti, birusa etxean hil orde, lantegian hedatuz. Iruditzen zait txertoa bera baino gehiago txertatzen digutela medikamentuak derrigorrezkoak diren sentazioa, eta batzuek beherapenetara joaten garen moduan joaten direla beste batzuek medikuarenera eta farmaziara.

Binaka

2011-11-04

Baserria konpontzeko diru bila hainbat ate jo genituen ahizpak eta biok. Erantzun polit bat ez genuen jaso, baina bereziki erantzun batek larritu ninduen. Begira-begira geratu zitzaidan banketxeko langilea eta esan zidan: «Mutil-lagunik ez daukazu?». Banekien nire fitxarako ez zela datu garrantzitsua, baina harrituta erantzun nion ezetz. Orduan, zera erantzun zidan: «Bada, aurkitu egin beharko duzu! Bakarrik zail daukazu». «Ahizparekin nator *pack* batean kontu honetan», esan nion, baina ez; horrek ez ninduen salbatuko: bikotekidea behar nuen, eta heterosexuala eta zuria bazen hobeto, noski. Norbera bakarrik kabitzeke zaila bada gizarte hau, pentsa ezazue zer izango den binaka kabitzea. Ni ohituta nago ohera bakarrik joaten, eta bakarrik jaikitzen, eta tarteka zenbait gauzaren falta igarri arren, ez naiz hain gaizki bizi, benetan. Ez dut ulertzen zergatik behar dugun beste norbaiten besotik joan bankura dirua eskatzera. Ni banaiz nor osoa eta bakarra, eta badaukat lana, eta bizitza proiektu bat. Harrezkero, burkoari galdetu izan diot ea hain txarra den bakarrik egotea, eta neure buruari erantzuten diot akaso bankuek nahiago izango dutela jendea binaka engainatzea. Hartara, eskukada bakoitzean txori biri osten diete.

Migrazioak

2011-11-05

Epeltasun bila iparraldetik hegoalderantz doazen hegaztiak Euskal Herrian aurkitzen dute atsedena. Urrutitik begiratzen diegu prismatikoekin, ikaratuta alde egin ez dezaten. Izugarri gustatzen zait Urdaibaiko itsasadarrean pausatutako hegaztiei begiratzea. Ingurua guztiz kontrolatuta daukaten sentazioa transmititzen didate; lasaitasun osoan daudela ematen du. Hegaztientzako propio prestatutako lekuak daude, hegoalderako bidean pausa daitezten eta deskantsu har dezaten. Ez dira egunero dozenaka ikusten, baina bertan zaudela suertatzen direnean gauza ederra izaten da begira egotea. Bizimodu berriaren bila hegoaldetik iparralderantz datozen pertsonak ez dute Euskal Herrian ere atsedetik aurkitzen. Urrutitik begiratzen diegu geure pausoan goazela, eta ez zaigu gustatzen begira egotea. Gaizki begiratzen diegu ea etorri diren bidetik alde egiten duten. Ingurua ez dute kontrolatzen, eta urduri daudela ematen dute. Ez dago hegoaldetik etorritako pertsonak hartzeko propio prestatutako lekurik. Ez dugu nahi gurean atsedetik har dezaten iparralderagoko bide neketsuan. Egunero ikusten ditugu dozenaka, baina inguratzen zaizkigunean nahiago izaten dugu ez begiratu, CDrik edo gerrikorik sal ez diezaguten.

Neurriak

2011-11-06

Kreditu txartela eta dirua poltsan sartu, eta pozarren abiatu naiz gaur ere ispiluaren aurrean dotore egon nahi dudanerako zerbaiten bila. Holakoetan kirola egiteak ez dit ardura izaten, eta gogotsu ekin diot bideari. Sartu naiz denda batean eta bestean eta beste batean ere bai. Seigarrenean garbi ikusi dut: ez dago nire neurriko arroparik. Kontsumitzeko gogoia belarritakotan edo seguru kabituko zaidan zerbaitetan ito orduko, azken ahalegina egin dut. Alferrik. Ez dago ezer. Orduan gogoratu naiz badagoela denda bat nire moduko emakumeentzat, baina ez dut hara joan nahi: erakusleihoko kartelak neurri bereziak jartzen du. Nik ez dakit zergatik izan behar duten nire neurriek bereziak argalegi daudenentzat denda guztietan badago arropa. Ez dut inoiz ulertuko nola izan daitekeen normala 25 urtetik gorako emakume batek 14 urteko ume baten neurriko arropa erabiltzea. Denda guztietan daude neurri txikiak, eta handiak oso gutxitan. Norbaitek esplikatuko dit zergatik den hain berezia 44 edo 46 neurriko praka pareta, eta hain normala 34 edo 36 neurrikoa? Garagardo eder batean xahutu ditut arratsaldeko lehenengo euroak. Ni ez naiz berezia. Ez da nire kulpa irribarrea ez bazait XS neurriko soinekoetan kabitzen.

Ohikoa

2011-11-08

Gipuzkoako egoitzako lankideekin hitz egitea tokatzen zaizu, eta norbaitek galdetzen dizu, «gaur pozik egongo zara, ezta?». Ez dakizu zertaz ari den, eta eskertu egiten duzu telefonoz hizketan egotea daukazun mamala aurpegia inork ez ikusteko. «Atzo Athleticek irabazi egin zuen», esan dizu seguru, baina zuk ez dakizu oraindik zein den pozteko motiboa. Parrandan zaudela nongoa zaren galdetzen dizute, eta bizkaitarra zarela susmatu orduko, «Athleticekoa, beraz», esaten dizute. Edo lan berri batean hasten zara Donostian, eta lehen egunean esaten dizute, «zu Athleticekoa izango zara, noski!». Zuri bururatzen zaizun erantzun bakarra «ez» da, baina lehorra ez izatearren, «ez zait futbola gustatzen» gehitzen duzu. Bazoaz Gasteizko taberna batera lagun batzuekin, eta haien lagun bat agertzen da; orduan esaten du batek, «hau zure taldekoa da». Askotan entzun duzu, eta lehenengoan ulertzen duzu Athleticekoa dela. Nazkatuta nago. Litekeena da ohikoa izatea bizkaitarrak Athletikecoak izatea, gipuzkoarrak Realekoak, eta nafarrak Osasunakoak. Ohikoa izango da, baina ni Muxikakoa eta Bizkaikoa izan arren, ez naiz Athletikecoa. Jarraituko duzue denok horrela begira, edo berba egingo dugu beste zerbaitez, mesedez.

Aitortzak

2011-11-09

Egunkari batean irakurri nuen gure gatazka honetan egindako minen aitortza egiteari buruzko artikulu polit bat. Facebookera igo nuen, eta gogoeta interesgarriak egin zizkidaten zenbait lagunek. Aldi berean, beste lagun batzuek sare sozialetan eman zuten Matalasen hilketaren urteurrenaren berri. Nik ez nekien azaroaren zortzian moztu ziotenik burua Mauleko apaiz iraultzaileari, baina hala gertatu omen zen 1661ean. Batzuen memorian gaur ere lekua du oraindik, baina iragan mendeko gauzekin ahaztu egin gara guztiz. Aitortzaz ari ginela, Matalas etorri zitzaidan bidera, eta nolabait lotu egiten nituen nire buruan. Egindako mina egin egin duela aitortu behar du hala egin duenak, eta 1661 urrutiegi dago aitortza ariketa historikoa egiteko. Baina oraintsuago egindakoak ere ez ditugu gogoratzen. Lurrak estali zituen hilobiak, eta besterik ezean karez erre zituzten izenak. XX. mendean berreskuratu genuen Matalas, baina ezingo ditugu beste 300 urte itxaron Euzko Gudarostea berreskuratzeko. Ez dugu ariketa mingarririk egin nahi, baina benetako aitortzarik izango bada, egin egin beharko da. Memoriaren hilarriak mugituz gero, lur gainekoak ere mugituko dira, eta errudunak seinalatzen dituenak ez du erruduna izan nahi.

Arazoa

2011-11-10

Espainiako komunikabideak aztoratuta dabiltza Palmako Dukea, ustez, diru publikoaz baliatu delako aberasteko. Titulu asko idatzi dituzte, baina ez dakit zergatik harrotu dituzten hautsak orain, Palmako Dukea, haren aitagarreba eta amagarreba, emaztea eta koinatu-koinatak gure kontura bizi badira bestela ere. Noiz egin du lan Juan Carlos I.aren familiak? Eta guri ere, espainiarrak ez izan arren, eragin egiten digu gai horrek. Guk ere ordaintzen ditugulako alfer kuadrilla horren kapritxoak. Orain, oinordekoaren oinordekoari euskara ere irakatsiko omen diote eta gaitz erdi! Francok ipini zuen erregea orain dagoen lekuan, eta herritarrek hala nahi duten galdetu ere egin gabe jasan behar izan dugu pertsonaia horren presentzia; baita Euskal Herrian ere. Erdi Aroan artotan edo garitan kobratzen zutena dirutan kobratzen dute orain, eta batzuentzat gauza normala da. Bada, ez; ez zait normala iruditzen. Arazoa ez da Palmako Dukeak faktura faltsuak erabili izana: arazoa da, inolako fakturarik erakutsi gabe, guztion diruz ordaintzen dituztela beraien luxu guztiak, eta protokolo bidaietan gastatzen duten diruarekin hobeto egingo geniokeela aurre krisiari. XXI. mendean monarkiaren existentzia bera da arazoa. Doazela *porai!*

Badoaz

2011-11-11

Gehienetan autoz pasatzen naiz Zabaleko trenbidearen gaineko zubitik, baina oinez noanean ere ez dut Paula han ikusten. Urteak dira Eustasioren falta dagoela goiko pinudian; inor ez da egoten han eserita Besangizera begira. Sabinen Ducadosak ez du kerik ateratzen, eta Balendinek eta Klarak ez didate txokolaterik ekartzen astelehenetan. Mariaren taberna itxita dago, eta beste Maria biak falta dira. Parranda egitea ez da hain ederra: goizeko 10:00etan etxera noala, ez zait Erasmo barreka etortzen lanerako aitzurra eskainiz. Etxetik perfumatuta ateratzen naizenean ez dut Aiko ikusten muxu bi emateko, eta Juezak ez gaitu bidean gelditzen jakin nahi duen guztia galdetzeko. Batzuk Alzheimerrak eraman zituen; beste batzuk beheko errepideko zirkulazio handiak, eta bakarren bat logureak eta nekeak. Medikiak dio Irene ere badoala. Belaunaldi osoa ari zaigu joaten Zabalen, eta munduari berdin dio. Mundua abiadura bizian doa beheko errepide nagusian, baina guri nork egingo dizkigu txurroak eta txokolatea hotz egiten duenean? Nori kontatuko diot nik alfonbra gorriarena, Irene, nori? Pena ematen dit. Gure umeei inork ez die kontatuko 1937ko apirilaren 26an nola ikusi zuten goizean goiz hegazkin bat zeruan bueltaka.

Egunak

2011-11-12

Beti ez naiz berdin jaikitzen. Batzuetan hobe izaten dut ez jaikitzea ere, baina jaiki egin behar denez, jaiki egiten naiz. Alkandora berrira botatako lehen kafetik, afalorduan jasotzen dudan dei desatseginera arte, ez zait ezer ganorazkorik gertatzen egun batzuetan. Goiz joaten naiz ohera halakoetan, hurrengo egunean guztia desberdina izango den itxaropenarekin. Eta gehienetan, hurrengo eguna desberdina izaten da: inoizkorik kafe gozoena egiten dut goizean, espero gabeko deiak jasotzen ditut, lagun zaharrek topo egiten dut, behar nuen zera hori aurkitzen dut... kontua da ez dakidala zergatik diren desberdinak egunak. Edo, hobeto esanda, kontua da pentsatzen dudala egunak berdinak direla berez baina neu naizela aldarte hobea edo okerragoa izaten dudana. Egun guztiek dituzte 24 ordu, gehienetan lanera joaten naiz, izaten ditudan konpromisoak ere gutxi gorabehera antzekoak izaten dira, baina batzuetan lagun zahar batekin topo egitea erregalutzat hartzen dut eta besteetan astunkeria itzela balitz legez. Errutinak, baina, ez du derrigor txarra izan behar. Neu naiz egunak politak izatea lortu behar duena. Izango dudanaren esperoan egon gabe, dudanarekin gozatzen dudan egunetan, ez naiz nire buruarekin haserretzen.

Etxean

2011-11-13

Jhovaren lekukoek gelditu naute kalean (berriro ere). Aldizkari pare bat eman didate irakurtzeko. Esan didate oso interesgarriak direla, eta ez dizkiotela edonori ematen. Antza denez, halako material baliotsua alferrik galtzea pena litzateke, eta interesa duenari ematen dizkiote zerok irakurri ditzan. Ezin izan diot tentazioari eutsi eta hartu egin dizkiot emakumeari aldizkariak. Poltsatik atera eta eskura eman dizkit, eta esateko zeukana adi entzun diot. Ez da Jhovaren lekukoekin topo egiten dudan lehen aldia, eta gutxi gorabehera betikoa esan dit. Ondo ulertu diodalakoan egin dut kalean aurrera, baina ez diot jakin-minari luzaroan eutsi: aldizkariak irakurtzen hasi naiz. Ahalegina egin dut hain testu interesgarriak izan behar zutenok ulertzeko, baina ez dut lortu. Izenburua lau bat aldiz irakurri dut zer esan nahiko zuen ondorioztatu baino lehen, eta testuaren bigarren lerroa heldu orduko amore eman dut. Aldizkariak errumanieraz idatzita zeuden! Ez didate egundo euskarazko testu triste bat eman neure etxera etorri direnean ere, eta orain, gurean bizi diren hizkuntza arrotzetan idazten eta publikatzen hasi dira. Eta zeren aurpegia ikusi dit emakume horrek ni naizen bezain euskaldun folklorikoa izanda?

Galderak

2011-11-15

Nire barruan beti izan ditut erantzunak baino galdera gehiago, eta horrek eraman ninduen behinola kazetaritza fakultatera. Orain ere nire barruko radar guztiak pizten zaizkit norbait ez dakidan zerbaiti buruz hitz egiten hasten zaidanean. Ez dakit lotsatu egin beharko nukeen, baina izugarri gustatzen zait galderei erantzunak bilatzea. Dena edo ia dena interesatzen zait. Jakin egin nahi dut. Hala ere, fakultatetik kanpora bizi izan dudan kazetaritzak ez du galderarik. Grabagailua hartu, eta prentsaurrekoetara joaten dira kazetariak. Hainbeste prentsaurreko egiten direnez, gainera, aukeratu egiten du kazetariak, edo saileko buruak, zeintzuetara joan eta zeintzuetara ez. Ez dago notiziaren atzetik ibili beharrik, galdetu beharrik, irakurri beharrik. Halako lekura joan; apunteak ondo hartu, eta txukundu. Horretara mugatzen da askoren kazetaritza. Eta orain urte batzuk moda berria sortu zen: galderarik onartzen ez duten prentsaurrekoak. Hori ezin dut ulertu, eta ezin dut jasan. Erantzunik ez daukanak hobe luke isilik egon esaten ari denari buruzko erantzunak izan arte. Ez bakarrik kazetarien lanari zor zaion errespetuagatik, esaten ari dena interesatzen zaien guztiei zor dielako baizik. Diktaketak eskolan egiten genituen.

Autolesioak

2011-11-16

Igor Porturi ospitalean egin zizkioten argazkiak ikusi nituenean, mutil zorteduna zela pentsatu nuen. Txarren egonda ere, banekien ospitalean hobeto egongo zela polizia etxean baino, eta, bien bitartean, Mattin Sarasola polizia etxean zegoen. Auskalo zein zulotan, zein egoeratan, zenbatgarren kolpea jasotzen, zenbat poliziaz inguratuta, zenbat wattetako elektrizitate deskargen mehatxupean... Epaitu zituztenean, kontatu egin zuten egin zieten, baina Espainiako justizia sistemak bigarrenez kolpatu zituen: ez entzunarena egin zuen. Atxilotu zituzten guardia zibilak ere epaitu zituzten. Epaiketa bera beharrezkoa zen, baina pentsatzen dut hirugarren kolpe lehorra jasoko zutela bertan: jasandako guztia, kolpe bakoitza, mehatxu bakoitza, berriz ere bizi izan zutelako kontatu ahala. Baina Espainiak kolpatzen zaituenean, kontzientziaz kolpatzen zaitu: Espainiako Auzitegi Gorenak absolbitu egin ditu Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak Portu eta Sarasola torturatzeagatik zigortutako Guardia Zibilak. Beste kolpe bat. Dena egin omen zioten beraiek beraien buruei, den-dena. Begi ubeldu hura, eskumutur haustu haiek, bizkar belztu hura, bernetako arrasto haien gorri bizia... eta besarkatu nahi eta ezin hau. Kolpeak, eta kolpeak, eta kolpeak...

Eskuburdinak

2011-11-17

Eskuburdinek ez dute efektu bera atxilotu guztiengan. Euskal Herrian, eta batez ere kausa politikoengatik atxilotzen dituztenak, eskuburdinak jarri orduko izenak esaten hasten dira. Nahi gabe, eta inork behartu gabe oka egiten dituzte dakizkitenak eta ez dakizkitenak; badaezpada ere. Euskal Herrian atxiloketak inoiz ez dira banan-banan etortzen: eskuburdinak dituenak zenbat eta ordu gehiago egin komisarian, orduan eta jende gehiago ateratzen dute gauez ohetik. Andaluzian, ostera, atxiloketak banan-banan gertatzen dira. Eskuburdinak jartzen dizkiote umemoko biri, eta, gogorik ez dutenez, ez dute esaten hil duten adingabeko neska non lurperatu duten. Ezta abokatuaren, fiskalaren, familiaren eta epailearen aurrean ere. Andaluzian, eskuburdinek ez dutenez Euskal Herrian duten efektu bera, umemoko bik adarra jotzen die justizia sistema ordaintzeko zergak ordaintzen dituzten herritarrei. Ez nuke nahi, inondik inora ere, eskuburdin magiko horiek Euskal Herrian duten efektua Andaluzian izan dezaten, noski. Hori esango banu, torturaren apologia beldurgarria egingo nuke. Izan ere, torturarik ez badago, eta eskuburdinak magikoak ez badira, zuek esplikatuko didazue halako desberdintasunak zer dela-eta sortzen diren.

Lorrina

2011-11-18

Herri txikietara enpresa handiak datozenean jendea poztu egiten da. Pentsatzen dut muxikarrak ere asko poztuko zirela 1963an FINSA-INAMA Kurtzerora etorri zenean. Lan asko eta buruko min gutxi eman zituen lantegiak hasierako urteetan, baina denborak aurrera egin ahala, buruko minak gehitu egin dira. Langile askok lan egin du han, eta enpresak hori ondo erabili du: nahi dudana egiten ez badut, joan egingo naiz. Egoera belztu egin da ordea: lantegiari Ingurumen Baimen Bateratua kendu dio Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zion eman handitzeko baimenik, opor fiskaletan ordaindu gabeko zazpi milioi euro itzuli behar ditu... eta ixtea erabaki du. Langileek udalari ere eskatu dizkiote kontuak; enpresaren zarataren erruz lorik egin gabe daudenak seinalatu dituzte askok; EAJk —hogeitaz alkatetzan— Bilduri bota dio errua; buzoian hainbat eskuorri utzi dizkigute norbaitzuek gezur piloa kontatuz, eta dena kakaztu da. Jendea haserre dago; igarri egiten da tentsioa taberna batera sartzen zarenean. Hiltzailearen jokoan bezala ari gara herritar guztiok albokoa seinalatzen: nik zu, zuk hura, hurak ni, nik haiek... Eta zer egin dute enpresariak? Guri lana ekartzera etorri ziren gizon on horiek? Diruak hartu, eta beste batera joan.

Hausnarketa

2011-11-19

Behiek erraz egiten dute hausnar. Beste ezer egitekorik ez daukadanean begira egoten natzaie, eta dotorezia handiz hausnartzen dute. Han ibiltzen dira burua makurtuta belar bila, eta aurkitu ahala, jan egiten dute. Gero lurrean etzanda, gerizpean jarrita, alanbraden inguruan zutik, hausnar egiten dute. Jandakoa berriz jatearen antzeko zerbait omen da hausnartzea. Behiengana hurbilduz gero, barruan errota bat dutela ematen du hausnarrean badaude. Erraza dirudi, baina ez da. Hamabost egun izan ditugu informazioa jateko, eta gustuko proposamenaren bila ziur joan garenok ere beste milaka mezu irentsi ditugu. Telebista, irratia, kalea, jendea... ezin izan diegu mezuei ihes egin. Barruan errota bat daukagu guk ere martxan; baita botoa nori eman argi dugunok be. Errota guztiak lehertuko dira hautestontzietan, maiatzean lehertu ziren bezala, eta urte eta erdi barru lehertuko diren bezala. Hauteskunde batzuek dakartzaten aldaketak hausnartzeko astirik gabe heltzen dira hona hurrengo hauteskundeak. Hamabost egunean bonbardatzen gaituzte eta egun bakarra ematen digute hausnartzeko edo erreflexiorako. Batek esan zidan moduan, hausnarketa egunak baino, arnasketa egunak beharko ditugu laster boto-emaileok.

A-20

2011-11-20

Gaur beteko dira hogeita hamasei urte euskaldunen ametsik gaiztoenetako bat amaitu zela; izan ere, gaurko moduko egun batean hil zen Francisco Franco, askok nahi baino urte gehiago bizi ondoren. Diktaduraren amaieraren pozak ez zuen asko iraun. Badaezpadako trantsizio baten ostean demokrazia deitu zioten zera ilun bat eraiki zuten Espainian. Zera horrek torturak ahalbidetu ditu gaur arte, alderdiak legez kanpo uzteko aukera eman du eta legeak aldatu egin ditu Espainia kolokan jarri dutenak gehiago zigortzeko. Demokrazia izenean baino ez duen munstro horrek Francok hiltzen zituen moduan hil ditu hemen gatazka bat egon badagoela esatera joan zaizkionak, eta ez du inoiz onartu gatazka konpontzeko bide bakarra eseri eta hitz egitea denik. Eta hala, gaurko moduko egun batean, Josu Muguruza hil zuten Madrilen. Norbaitek nahiago izan zuen kongresura ez zedila inoiz heldu. 1989ko azaroaren 21ean Muguruza gabe osatu zituzten Madrileko kongresua eta senatua. Ez dut uste gaur Espainiako presidentetzarako lehiatzen ari diren alderdiei asko ardurako zienik. Beraz, gaurko eguna ez da atzokoaren biharamuna bakarrik. Gaur azaroaren 20a da, eta senak esaten dit, 2011ko azaroaren 21ean, Muguruzari eskuetan gelditu zitzaion mezua bere lekura helduko dela.

Zenbaketak

2011-11-21

Letretakoak garenontzat ehunetik gorako zenbaki guztiak handiak dira, eta ehun milatik gorakoak izugarriak. Imajina ezazue, beraz, atzo gauean nola nituen begiak hainbeste zenbakiren artean. Hainbeste mila boto, hainbeste eserleku, ehuneko ez dakit zenbat igo bototan, ez dakit zenbat mila boto jaitsi... baina zoramenaren erdian zoriontsu ere sentitu nintzen, ze arraio! Hego Euskal Herrian atzo emandako milaka botoak askotariko helburuekin emanak izango ziren, zalantzarik gabe. Batzuek tabakoaren legea ken dezaten emango zuten botoa; besteek, eskuinak irabazi ez dezan; besteren batek, homosexualen arteko ezkontzak bermatzearen; gutxi batzuek, konpetentzia berriak eskuratzearen alde; eta askok eta askok, Euskal Herria badela erakustearren bakarrik. Hautestontziak ireki ziren. Bat, bi, hiru... urduritasuna. Lau, bost, sei... tximeletak urdailean. Zenbaketa amaitu zenean inork ez zuen onartu nahi izan galdu zuenik. Guztiek irabazi zuten: gehiengoa eskuratu duena zoriontsu da; galdu duena indartuta atera da; besteek badute proiektu hobea hurrengorako... inork ez du galdu, antza, baina bada bat atzo bereziki irabazi zuena: Euskal Herria. Ilusioa berreskuratu duen herria da gurea, eta askoren begietan sumatu genuen zenbakietan neurtu ezin daitekeen indar hori.

Muxuak

2011-11-22

Ez esan ez zaizuela muxuak ematea eta hartzea gustatzen: matrailetan, ezpainenetan... edonon. Ez esan aspaldiko lagun bat ikusten duzuenean ez duzuela konpromisozko muxu biak baino gehiago emateko gogoia izaten. Ni al naiz maite dudan jendearekin nagoenean eskatu gabeko muxuak ematen dituen bakarra? Ez gaizki ulertu, ez naiz inpultso sexualak deskribatzen ari, muxu emateko beharra baizik. Ez esan umeeek pa emateko adurrez betetzen zaituztenean ez zaretela urtzen. Ez al dugu guztiok muxuren bat bereziki gordetzen bihotzeko txokoren batean? Muxuak ematea hartzea bezain zoragarria da, eta gainera, kaloriak erretzen dira ematean. Badira muxu bereziak ere, larru jotzerik onenen pare iltzatzen direnak memorian. Ezin dut imajinatu nire bizitza muxurik gabe. Ez esan berdinak direnik muxurik gabeko egunak eta muxudunak. Bai, badakit muxu guztiak ez direla berdinak eta derrigorrean ematen direla asko, baina euskaldunok gure arteko distantziak apurtzeko ariketa egin behar dugu. Maitasun gehiago behar dugu, kontaktu fisikoa. Gure ezaugarria berbakoak izatea da, eta hori ondo dago, baina ezpainek ez dute berba egiteko bakarrik balio, eta muxu batek mila hitzek baino askoz ere gehiago esan dezake.

Ez da sinplea

2011-11-23

Badakit jendeak beteta daukala burua hauteskunderen osteko panorama politikoaz eztabaidatzeko. Badakit gehienok nahiago dugula zoriontsu izango garen esparruetan jartzea arreta. Zoriona, egotekoan, eguneroko gauzetan dagoelako; eta horrela esanda hala ematen badu ere, ez da sinplea. Zoriona, badago, elkartzen gaituzten gauzetan dago. Azken batean, konpartitu ezin den zoriona garbigailuak jan duen loteria zenbakiaren antzekoa da: tokatuta ere, ezingo dugu erabili. Dena den, zoriontsu egiten gaituzten gauza txiki horietarako bidea oztopoz beteta dago, eta horrek izorratu egiten du zoriona. Umea izateko amorratzen dagoena ezin da haurdun gelditu, umerik nahi ez duena haurdun gelditzen da, mendeetan familiarena izandako enpresa itxi du beste anbiziorik ez eta lanean han hasi zenak, goizero egunkaria irakurtzea beste biziorik ez zeukana itsutzen ari da, babes ofizialeko etxeari uko egin dio lanik eta hipotekarik gabe gelditu denak, diruz ondo dagoena bikotekideak utzi du, dena ondo atera zaionari aitaren gaixotasunak ez duela bueltarik esan dio medikuak... eta lagun handi batek esaten dit bizitzan aukera bi daudela: zoriontsua izatea ala arazoak konpontzea. Guk arazo gehiegi konpondu behar izaten ditugu zoriontsuak izateko.

Eskuliburua

2011-11-24

Kokoteraino nago. Ez zait Ternua eta North Face markako mendiko arropa gustatzen; edo bai, baina nik janzteko ez. Zer nahi duzue esatea? Mendira joateak ez dit ilusio berezirik egiten. Euskal Herrian egiten den musika gustatzen zait, munduan egiten dena ere bai, eta Espainian egiten diren hortera zenbaitekin izugarri gozatzen dut. Dantza soltea badakit, baina rantxerak kantatzen hobeto pasatzen dut. Behar baino diru gehiago gastatzen dut behar ez ditudan gauzetan, eta behar dudana baino arropa gehiago daukat. Konplejuak ditut nire gorputza ez delako inposatutako kanonetan sartzen, eta depilatuta ez nagoenean ligatzen badut, urduri jartzen naiz. Inoiz ez diot inori ken ditzan esan, baina rastei ez diet itxura higienikoa hartzen, eta beti oinetako berekin doan jendeak atentzioa ematen dit. Pelikula erromantikoak ikusten negar egiten dut, eta egun txarra daukadanean gominolak eta txokolatea jaten ditut oka egiteraino bete arte. Ez, nik ez dut abertzale-ekertiar-feministaren eskuliburua betetzen. Urruti nago hortik, baina benetan zer gustatzen zaidan eta zer ez onartu nuenetik askoz ere hobeto bizi naiz. Egunen batean beteko dut manual osoa, ikasiko dut nolakoa izan beharko nukeen; baina bien bitartean, gutxienez, naturala naiz.

Egun alu hau

2011-11-25

Arazoa handitzen ari zela ikusi zutenean, egun bat jarri ziguten gure arazoari irtenbidea emateko. Komunikabideetan hildako emakumeak gehitu ahala, egun alua jarri ziguten: azaroaren 25a. Hasieran etxeko indarkeria deitu zioten, eta gero indarkeria matxista. Baina, betiko moduan, aludunon arazotzat hartu zen. Geure burua geuk hilko bagenu legez; heziketak, erlijioak eta gizarte egiturak zerikusirik ez balute legez. Eta, noski, nik ez dut gure kontrako indarkeriaren kontra egiteko egun bat nahi. Nik nahi dudana da nire alaben gizartean bikoteak hildako emakumerik ez egotea. Katolikoek esaten dute gizonaren saihetsetik sortu zela emakumea, eta milaka urte geroago, gizonak saihetsak apurtzen dizkigute kolpeka. Baionako alkateak minigonei botatzen die bortxaketen errua, eta, bakea modan badago ere, emakume askok sukaldeetan daukate gerra. Nola konponduko dugu gure kontrako indarkeria guztia egun alu batekin? Zakildunok ulertu beharko duzue aludunok ez garela zuenak, eta instituzioek hobe dute egun alu hauek utzi eta gizarte libreago bat osatzen laguntzea: zakil eta alu librez osatutako gizartea. Bakarrik orduan utziko ditugu egun aluak alu-egunak ospatzeko. Eta ordena baino gehiago aldatzen zaio hitzari horrela irakurrita.

Estralurtarrak

2011-11-26

Ikastaro oso bat pasatu nuen behin nire alboko neskari euskaraz bizi nintzela esplikatzeko: «baina, baina... zu neska moderna zara», esaten zidan behin eta berriz, begiak zabal-zabal eginda. Bilboko Kafe Antzokian garagardo bat hartzen ari zarela euskarazko musika entzutea ohikoa da, baina ez joan aurreko espaloiko tabernetara. Ez dakite Berri Txarrak, Gatibu, Ken 7, Esne Beltza edo Bide Ertzean badirenik ere. Badut lagun handi bat, itxuraz munduan gertatzen diren gauzez asko arduratzen dena eta egunkaria sarritan erosten duena, baina nik azaldu arte ez zuen jakin 18/98 zer zen. Ordurako epaiketa ere amaituta zegoen. Ziurrenez izango dira galdera hauek sarritan entzun dituzten kazetariak: Euskarazko egunkaria? Non saltzen dute hori? Ingurukoek esaten didate asko irakurtzen dutela, baina, euskarazko liburuez hitz egiten hasita, arraro begiratzen didate. Ohi dudanez, nire albokoek elkarrizketa entzuten noa metroan, eta, disimulatzeko, ateetan eman didaten egunkaria irakurtzen hasi naiz: Titanen bizona omen dago. Albokoek jarraitzen dute gaztelania garbian: hemen Espainian, guk espainiarrok... ez dago Titanera joan beharrik. Edo besteak edo ni, baina baten bat estralurtarra da Euskal Herrian bertan ere.

Aukerak

2011-11-27

Gaur igandea da. Mezetara joaten ez garen arren, oraindik ere, funtzionatzen du igande eguerdiko txikiteoak. Meza ateratzen den ordurako, soziedadean edo tabernan egoten gara ateook fededunen zain. Txakolina eskuan dugula, ez da igartzen nor joan den mezetara eta nor ez, eta domekaroko elkarrizketetan galtzen gara: larunbat gaua, gero eta jende gutxiago dabilela kalean, norbaitek kontatuko du bezperan mutilarekin afaltzen joan zela eta jatetxeetan ez dela krisia igartzen... Egoera ekonomikoak okerrera egin duenetik txikiteoa asteburuetara mugatuta gelditu da, eta tabernek asko igartzen omen dute. Egia da tabernetan ibiltzera ohituta gaudenok beti ikusten dugula jende asko: jende asko dagoenean hala delako, eta gutxi dagoenean gehiago edaten denez, jende asko ikusten dugulako. Baina tabernariak igarri dute beherakada, eta haiekin batera marka handien banatzaileek ere bai. Eskaintzak gero eta ohikoagoak dira: menua merkeago, happy hourrak, pintxoak doan, zozketak, marka konkretu batzuk merkeago saltzen dira orain... nik ez dut tabernak ixterik nahi; galdua nengoke. Hala ere, aukera bi baino ez dizkiot ikusten honi guztiari: edo orain justu samar irabazten ari dira bai tabernak eta bai banatzaileak, edo sasoi batean diru asko egin dute.

Krisia

2011-11-29

Esan ziguten oporretan etxean geratuz gero, ez genuela deskantsatuko, eta urruneko hondartzen bila joan ginen. Inork ez zuen gutxiago izan nahi, eta bankuetako atea jo zituzten batzuek oporretarako dirua lortzeko. Batzuk krisirik ez zegoen garaiko oporrak ordaintzen ari dira oraindik. Inoiz gurea izango ez den etxe baten errenta ordaintzea dirua errekarara botatzea dela sinetsi arazi ziguten, eta etxeak erosten hasi ginen guztiok. Gero eta garestiago jarri zizkiguten, eta krisirik ez zegoen garaiko etxebizitzak ordaintzen ari dira asko oraindik ere. Bizitzeko beharrezkoak omen ziren gauzak asmatu zituzten: bideo kameradun segapotoak, segapotorik gabeko bideo kamerak, gero eta definizio gehiagoko argazki kamerak, sukalderako telebistak, egongelarako telebistak, logelarako telebistak, autorako DVDak... ia dena erosi genuen. Gauza onak derrigor asko ordaindu behar zirela zioten zurrumurruek, eta dirua genuenean denda garestietara joan ginen modan egoteko. Gero krisia asmatu zuten, eta orduan bai, orduan benetan ari ziren. Orduan konturatu ginen gauza batzuk ez zirela beharrezkoak, baina ahaztuta genuen benetan zer den garrantzitsua. Itoegi gaude, zorrak ordaintzeko lan egin behar dugu, baina hori ere kendu egiten digute gutxien espero dugunean.

Humanizatu

2011-11-30

Badakit Margaret Thatcherrek historia egin zuela: Ingalaterrako Lehen Ministroa izatera iritsi zen lehen emakumea izan zen. Meritua badu, baduenez, eta filma egin dute hari buruz: *The Iron Woman* (Burdinazko Dama). Ez dut ikusteko gogorik. Halakoetan filmek ohi dutenez, humanizatu egingo dute Thatcherren figura, ziurrenez: bidegilea, alaia, kezkatua... nik ez nuke ulertu nahi IRAko presoek astero bisita bat onartzea baino gose greban hil zitezten uztea nahiago izan zuen Lehen Ministroak bihotza bazuenik. Berdin dit emakumea edo gizona zen: sexuak ez du egindakoa aldatzen. Gizonen besteko gaitasuna badugula frogatu beharraren frogatu beharraz, gauza lotsagarriak egin ditugu emakumeok ere. Ez dut filma ikusi nahi. Azken arnasara arte goseari eta duintasunari eutsi zioten preso haien senideei seme-alabak indarrez elikatzeko ardura eman zien, eta behazuna irentsita, presoek nahia bete zutenei senideak hiltzea egotzi zien. Ez. Ez ditut historia egin duten emakume guztiak maite, historia egin duten gizon guztiak maite ez ditudan bezala. Ez dut Hollywoodek izorra nazan nahi, ez dut burdinaren atzean haragirik ikusi nahi. Errealitatean hala izan ez bazen, fikzioan zergatik ikusi behar dugu hezur-haragizko bihotza?

Gutaz

2011-12-01

Bigarren perfila prestatzen ari zen talde bati klasea eman ondoren bulegorantza nindoan. Astelehen goizeroko moduan aharrausi batean nindoan kotxean irratiak berria eman zuenean. Logurea eten egin zitzaidan, eta zerbait apurtu zitzaidan non den esaten ez dakidan leku horretan. Nik ez nuen Mikel Laboa ezagutu; ez nuen inoiz harekin aurrez aurre hitz egiteko plazerik izan. Eta hala ere, beti egon da hor: etxean ikasi genituen kantuetan, agurretan eta ongi etorrietan, maitasunean, manifestazio amaigabeetan, bertsoetan... ez dakit azken ihesa betea izan ote zuen, edo bakea aurkituko zuen, baina guk orain ere etxe ertzeko loreak maite ditugu. Eta ikusten dugu liliak hosto hosto nola erantzi daitezkeen gizona kantuz kantu erantzi genuen moduan. Kontua da, musikaria erantzi ahala kantuak geure egin genituela, eta orain, kantatzen ditugunean, gu ere erantzen gara. Geuretzat izan ditugun gauzei buruz hitz egiten digute oraindik ere Laboak kantatzen zizkigun kantuek: izarrez eta hautsez, txoriez eta hegoez, negu hurbilaz eta uda beteko beroaz, zilbor esteez, lekeitioez, aintzinako bihotzez, Iturengo arotzaz, zure begien dir-dir eztiak, aterpea eskatzen duten gizonez, egun saminez, neskabilen irriez eta Goizuetako gizon batez, liluraz... eta batez ere gutaz.

Diktadoreak

2011-12-02

Liburuetan kontatu dutenez, Tuxpan ibaia ilunpean zeharkatu zuten, eta Mexikoko kostatik urrun zeudela ikusi zutenean piztu zuten argia. 1956ko azaroaren 25a zen, eta mugazainak engainatu zituztela ospatzeko Kubako ereserkia kantatu ei zuten. Gaurkoa lako egun batean iritsi ziren Kubara: 1956ko abenduaren 2an. *Granma* ontzia kostan utzi, eta ekialdeko mendietara iristea zen plana. Han prestatuko zuten iraultza, eta indarrak batu ahala, herrietara jaitsiko ziren ibilian-ibilian Habanaraino heltzeko. Camilo Cienfuegos bere zaldi gainean Habanan sartu zenean, ez ziren hamar yatetan ere kabitzen iraultzarekin bat eginda zeuden herritarrak. Lau eroren ametsa izandakoa, herri osoaren egia zen. Fulgencio Batista diktadoreak alde egin zuen, eta gobernu iraultzaileen eskuetan geratu zen. Ezinezkoa zirudien, baina lortu egin zuten. Are ezinezkoagoa zirudien urteen buruan, eta piztia hain hurbil izanda, eutsiko zutenik, baina eutsi egin dute. Orain espedizio haren buruari diktadore deitzen diote batzuek. Kontuz: ez dute dena ondo egin, baina gure eredu sozioekonomikoaren zilegitasuna kolokan jarri dute, bestelako ereduak posible direla erakutsiz. Eta horixe da iraultzaileei diktadore izena jartzen dietenei beldurrik handiena ematen diena.

Egun bat

2011-12-03

Gaur abenduaren 3a da. Goizean, Bai Euskarari ziurtagiria banatzeko ekitaldia aurkeztuko dut Gernikan; ondoren, bertso bazkaria daukat Elantxoben, eta handik Etxebarrira noa, ziatikak jotako lagun batekin bertsotan egitera. Ez dira lan gogorrak, baina nekatuta nago atzotik: atzo goizean Bermeoko institutuan bertsotan egin genuen, eta gero Gernikako institutuko bertso saioan gaiak jarri, eta arratsaldean Urretxindorra ikastolan kantatzea tokatu zitzaidan, Bilbon. Egun guztiek dituzte hogeita lau ordu, baina bertsolarion, euskal idazleen edo kirolari euskaldunen abenduaren 3ak amaigabeak dira. Kalkulagailua atera duenari ere esango diot ez apurtzeko bururik: esandako guztiak eginda ere, ez naiz aberastu. Euskaraz aberastea oso gaitza da Euskal Herrian. Hemen gehien kontsumitzen diren telebista kateak, diskoak, liburuak, irratiak, aldizkariak, kultur adierazpenak... erdarazkoak dira. Pentsatzen dugu urtean egun batean euskarazko produktuen aldeko apologia eginda, euskara salba dezakegula, baina euskararen iraupena hiztunek bakarrik berma dezakete. Eta, hala ere, pentsatzen dut eskerrak egun hori daukagun, ze administrazioak duen jarrera ikusita, batzuegatik urteko egun bakarra ere ez litzateke izango euskararentzat.

Ezin ahaztu

2011-12-04

Ni ere langile baten alaba naiz. Ez aita bezain langilea, baina langilea neu ere. Zuri ikasi nizun handitzen ginenean ikusiko genuela isilik egoteak zenbat balio duen, eta gizaberez jositako gizarte honetan halaxe izan da. Mundu guztiak agindu nahi du, eta gu, gizabereok, gero eta makurrago goaz haren edo honen zerbitzurako lanera. Ia inork ere ez ditu sustraiak lurrari lotuak. Zuk Euskadi behar zenuen, baina gaurko jendeari Euskadi txiki gelditu zaio; munduko hiritarren mundua da oraingoa. Dena den, lehen zein orain, mundua amodio amorek mugitzen du. Euskaldunoi asko kostatzen zaigu amorea deklaratzeari, baina badugu maitasuna jendearentzat zein herriarentzat. Urtebete da amets gabeko loak hartu zintuela, eta ez dakizu Kantauriko urak nola handitu diren. Espero dut urak euren bidera itzuliko direla eta aro zoragarri bat zabalduko dela murgildu nahi dutenentzat. Xabier, zuk ezin zenuen Euskal Herri zeurea maite, eta, hala ere, ezin zenuen bizi bertatik aparte. Nik ez dakit Euskal Herri gureak merezi adina maite izan zintuen. Ez dakit. *Ez nazazu utzi* kantatzen zenigun zuk, eta azkenean zeuk utzi gintuzun. Gaur, bainila gozo artean kontsumitu nahi dut zure oroimena, iragan denbora arrotzean irakatsi zenigun guztiaren akorduz.

Liburu bat

2011-12-06

Imajinatu duzue inoiz, inork zalantzan jartzen ez duen liburu batean jartzen duela Euskal Herria osotasun zatiezina dela? Ez da hain arraroa: 1978ko Espainiako Konstituzioaren bigarren artikulua araberak, Espainia osotasun zatiezina da. Imajinatu duzue inoiz, inork zalantzan jartzen ez duen liburu batek definitzen nor den gure estatuko burua? Ez da hain arraroa: 1978ko Espainiako Konstituzioaren zortzigarren artikulua definitzen du erregea dela Espainiar Estatuko burua. Imajinatu duzue inoiz, inork zalantzan jartzen ez duen liburu batek esaten duela euskaldun guztiok ditugula Euskal Herria defendatzeko eskubidea eta betebeharra? Ez da hain arraroa: 1978ko Espainiako Konstituzioaren hogeita hamargarren artikulua horixe esaten du espainiarrei buruz. Kontua da konstituzio hori defendatzen dutenek indarrez sartu gintuztela euren nazio horren osotasun zatiezinean. Guk ez genuen erregerik nahi. Are gutxiago, diktadore batek hil aurretik estatuburu kargua eman zion erregea; eta gure zergetatik jaten dute Juan Carlos Borboikoak eta haren familiak. Nahigabe ikasi genuen gure hizkuntza, lurraldea, nortasuna... defendatzeko betebeharra genuela, baina konstituzio horrek demokratizazutako alderdi politikoek ukatu egin digute garena defendatzeko eskubidea.

Durango

2011-12-07

Euskal Liburu eta Disko Azokako egunetan gustatu egiten zait Durangora joatea. Azokan ikusi eta erosi, Goienkalen garagardo freskoak edan, goizaldean Plateruenako jendetzan lekua egin eta aspaldi ikusi gabeko lagunekin egon. Durangoko abenduaren hotzean oso erraza da gaizki amaitu ziren ligueei hurrengo tabernara ihes egitea, eta, Landakoko berogailuaren beroan, oso erreza da ondo amaitzea nahiko zenukeen fitxajeen aurrean abrigua kentzea. Bai, Durangoko azokak badu xarma. Hala ere ez dakit magia horrek ez ote gaituen euskaldunok itsutzen. Urte betean bururik altxatu gabe irakurtzen egoteko beste liburu erosten ditugu aurten bai eta hurrengo urtean ere bai, hainbeste interesatzen ez zaizkigun gaiei buruzko bideoak erosten ditugu egilea ezagutzen dugulako edo diskoak erosten ditugu gustatuko zaizkigun edo ez ziur jakin gabe. Azokako atean pentsatzen hasten naiz barrura doan bakoitza ze standetara joango den, eta ez dut inoiz asmatzen. Ezagutzen dudala uste dudan jendeak ere harritu egiten nau. Baina gustatu egiten zait Durangon sortzen den euskal irlatxoa. Hizkuntzen eta kulturen itsaso zabal horretan zerbait bagarela sinesten laguntzen dit, nahiz eta han erositako zenbait liburuk loka dauden mahaiak nibelean jartzen amaituko duten urtero.

Durango II

2011-12-08

Landakoko ateari zeharkatu orduko, mikrofonotik norbait liburuak edo diskoak sinatzen ari dela abisatzen digute. Erosleok ilaran itxaroten dugu erosi dugun liburua edo diskoa sina diezaiguten, eta ez zaitezela aurrekoari lekua kentzera ausartu. Idazlearen edo musikariaren nekea ez dugu ulertzen sinatzen hasi denetik ordu bi pasatu direnean ere. Guk gauza originalak nahi ditugu: preso daukadan lagun batentzat da; ipini zeozer polita nire alabari; kanpoan bizi den semearentzat da; nire senarrari asko gustatzen zaio nola idazten duzun... eta euskal idazle eta musikariek irribarre bana oparitzen digute eurengana hurbildu garen berrehungarren aurpegia bagara ere. Asteartean pailazoak ikusi genituen azokan. Euskal Herriko umeei gehien maite dituzten pailazoak. Ehunka ume eta guraso hurbildu zitzaizkien argazkiak, muxuak eta sinadurak eskatzera. Bidean aurrera egiteko nahiko lan bazuten. Kokotean neraman ilobari pailazoei agur egiteko esaten nion, nekatuta zeudela, eta bide batez, haien inguruko korroa pasatu egin nahi nuen behar nuen lekura heltzeko. Bidean, guraso ezagun batzuk ikusi nituen, eta ilobarekin nuen elkarrizketa entzun orduko erantzun zidaten: «Gu ere nekatuta gaude itxaroteaz». Ze gogorra den Durango artistentzat.

Psikopatak

2011-12-09

Bagenekin herri honetan erakunde armatu bat zegoela. Bagenekien erakunde armatu horrek jende asko hil duela 50 urteko jardunean. Bagenekien herri honetan uniformedun asko dagoela, eta, koloreak aparte, polizia indar guztiek torturatu egiten dutela. Bagenekien Espainiako Gobernuak fondo erreserbatuak erabili zituela euskal herritarrak hiltzeko, eta badakigu, hiltzaile horiek etxean bizi direla lasai. Kontua da, genekien guztiaren gainetik, argi genuela bai era bateko zein besteko hiltzaileek eta hildakoek argi izan dutela beti non eta zertarako dauden. Bagenekien guztiok ez genituela ekintza armatu berdinak defendatzen, baina bakoitzak jakin du berak defendatu dituen gizon-emakume armatuek zein helburu zuten. Oker egon gara. Euskal Herrian egin diren hilketa asko ezkerreko hankarekin jaiki diren gizon-emakumeek egin dituzte gustuko ez duten jendearen kontra; inongo polizia edo talde armatutako kide izan gabe. Ze guk bagenekien Andoaingo Udaltzainen burua ETAk hil zuela, baina orain epaileak esan du, ustez hura hil zuelako 32 urteko kartzela zigorra jaso duena, ez dela ETAKoa. Norbaitek azalpen logikoren bat izan dezake, baina hori ikusita, edo Euskal Herrian psikopata asko dago, edo Espainiako Justizian egundo sinetsi ez dugunok zuzen geunden.

Gelditu

2011-12-10

Gaur mundua gelditu egingo dela irakurri nuen Espainiako kirol egunkari batean atzo. Egunkari horrek iturri fidagarrietatik ateratako datuen arabera, bostehun milioi lagunek ikusiko dute gaur Real Madrilek eta Bartzelonak jokatuko duten futbol partida. Munduak bueltaka jarraituko du, baina ulertzekoa da futbolzale horien mundu partikularra gelditu egingo dela. Laurogeita hamar minutuan pizzak, gominolak, garagardoa, ardoa, azkazalak... jan edo edango dituzte bostehun milioi lagunek, eta gu, bitartean, furgoneta batean etorriko gara Almeriatik etxerako bidean. Guretzat gaur ere mundua ez da geldituko. Kasualitatez ere ez dizkigute bisitak luzatuko, eta, gaur ere, labur egingo zaizkigu kristalaren beste aldera begira egindako minutuak. Euskal Herrira iristen garenerako atzoko zerbait izango da partida, munduak berdin jarraituko du bueltaka, eta gu hurrengo bisita prestatzen hasiko gara, gaur esan ez duguna hurrengoan esateko. Gaur mundua gelditu egingo dela irakurri nuenean, pentsatu nuen furgonetetan loak hartu ahal izateko errepideko marrak zenbatzeari uzten diogunean mundua gelditu egingo dela une batez; eta une horretatik aurrera, kilometroak memorian geldituko dira betiko. Eta munduak ordura arte baino askeago egingo du aurrera.

Durango III

2011-12-11

Pasatu da. Badakigu zeintzuk izan diren libururik salduenak, diskorik sinatuenak. Honezkero, baten batek esango du gutxiago falta dela datorren urteko azokarako, eta honezkero, badakigu datorren urtean zuzendari berria izango duela. Kuriositateari eusten diotenek Gabonetarako gordeko dituzte Landakoko erosketak, eta besteok Olentzero datorrenerako diskoak markatuta edo liburuak irakurrita izango ditugu. Nik egundo ez diot kuriositateari eusten: erosi ditudan hiru liburuak hasi ditut, eta ez dakit zeinekin jarraitu. Akaso, hirurak uztea izango da onena; irakurriko ditut astia dudanean. Aurten, gainera, ez ditudanez libururik salduenak erosi, elkarrizketatik kanpo geldituko naiz berdin-berdin. Azokako atean lagun musikari batekin topo egin nuen, eta berbetan hasi ginen ekoizpenaz, salduenez, krisiaz... eta berak esan zidan arazoa dela batzuek pastelaren erdia baino gehiago jaten dutela, eta horrek pastelaren zatirik gabe uzten dituela besteak. Saltoki guztiek ez dute tamaina bera: batzuetan jendetza biltzen da, eta besteetan, inor ez... Hausnarketa eginda, Euskal Herriko kulturaren iritzia kontuan hartzen zaien gizon-emakume askok liburu eta disko berberetz hitz egiten dutela konturatu nintzen. Batez ere abenduan. Arrazoia izango ote zuen nire lagun hark?

'Señora'

2011-12-13

Kartzeletako metal detektagailu guztiak dira gogaikarriak, baina batzuk besteak baino gehiago. Almeriako kartzelakoa pasatzeko arorik gabeko sujetadorea erosi nuen aspaldi, baina joan zen zapatuan alferrik izan zen hori ere. *Pi pi pi* hasi zen metal detektagailua lehenengo bueltan, eta abiapuntura itzultzean berokia kendu nuen barreka: nola ez nintzen lehenago konturatu! Bigarrenenez pasatu nintzen, eta berriz ere *pi pi pi* egin zuen makinak. Urduri jartzen da bat halakoetan: funtzionarioak begira-begira, beste senideak zain, ijitoak kentzen ari zaren prenda guztien errepassoa eginez... oinetakoen kordelak askatzera nindoala, *señora* entzun nuen. Neurean jarraitu nuen. «Aizu, *señora*...». Gero eta hurbilago sentitzen nuen ahotsa eta burua jaso nuen, «aizu, *señora*, buruan daramatzazun gauza horiek eta sortija handi hori ere kendu». Nirekin ari zen, eta *señora* deitu zidan bi aldiz! «Buruan daramatzadan gauza hauek orkila sinpleak dira, eta sortija hau zilarrezkoa da». Pasatu nintzen ortozik eta neure sortija handia gabe, eta gauza guztiak berriro ipini orduko, bakarrik gelditu nintzen. Azkena sartu nintzen lokutorioetan. Funtzionario batek lagundu zidan ateraino, nahiz eta bidea banekien: «Hemendik, *señora*». Arduratzen hasita nago: edade kritikoa sartzen ari naiz.

Oharkabea

2011-12-14

Badira oharkabea pasatzen diren efemerideak, egunak eta orduak norbaitek gure memoriatik ezabatu balitu bezala. Badirudi gauza batzuk orain diren modukoak izan direla beti, inork ez duela ezer egin hala izan daitezzen. Eskoletako liburu gehienek izen berdinak ahaztu dituzte. Aurtengo apiril ingurura arte ez dut jakin Clara Campoamor Donostian lurperatuta dagoenik. Nor zen Clara Campoamor? Emakumeok boto eskubidea izan dezagun lan egin zuen politikari bat. Baina ez zen espainiarra? Bai, baina besterik lortu arte guk espainiarrekin batera ematen dugu botoa udaletxerako, foru aldundirako, Autonomia Erkidegorako edo Madrileko Kongresurako. Beraz, gutxi bada ere, zerbait zor diogu. Boto eskubidea ez zuen demokraziak ekarri; bigarren errepublikan lortu zen, baina nork, noiz, nola? Ez dakigu garbi. Zergatik ez da efemeride garrantzitsua? Oharkabea pasatzen diren gauzarik gehienek zergatik dute emakume izena? Eta zergatik nator ni gaur honetaz hitz egitera? Ez dakit ziur, baina pentsatzen dut egun guztiak direla onak memoria ariketa egiteko. Nereak eta biok promes egin genion elkarri Campoamorri loreak eramango genizkiola Polloera. Pentsatzen dut isil-isilik joango garela, oharkabea; inork esan ez dezan erotuta gaudenik.

Ahaztu

2011-12-15

Ez *ahaztu alzhemerraz* izan zen atzoko leloa, eta ni, nahi gabe, amama Klaraz gogoratu nintzen. Duela hogeita bost urte atzeman zioten gaitza, eta inork ez zigun garbi esplikatzen zer ari zitzaion gertatzen buruan. Egun batean diruak zertarako balio duen ahaztu zitzaion, eta gauza arraroak egiten hasi zen. Elizara eramaten genuen domeketan, eta meza osorik kantatzen zuen, baina nola gure izenak ahaztu egin zitzaizkion, ez zuen jakiten elizara norekin joaten zen esplikatzen. Gau batean hitz egiteko gogoia joan zitzaion, eta ez zigun berbarik egin sei urte luzez. Bere kabuz jateari eta edateari utzi zion, fardela ipini behar izan genion bere parteak ondo gordetzera ohituta zegoen emakume bati. Nortasun handiko emakume izandakoa sekulako karga izan zen guretzat bederatzi urte luzez: etxetik alde egiten zigun, eta inoiz ez zuen bueltarako bidea bere kabuz aurkitzen. Hurrengo sei urteetan presentzia soila izan zen, ohean geldi eta isilik. Begirada, berriz, non dagoen inoiz jakingo ez dugun mundu batean galduta. Alzhemerra krudela da: gaixoari guztia ahantzarazten dio, baina zaintzaileen memorian betiko gelditzen da. Ulertzen ez dudana da, halako gaixotasunak gero eta ohikoagoak diren gizarte honetan, heriotza duinerako aukera legezkoa ez izatea.

Argazkia

2011-12-16

Ateetan bostekoa eman diote elkarri, eta zaharrak barrura pasatzeko esan dio gazteagoari. Argazkilariak tira eta tira ibili dira, eta flash hots artean polita izango zen gizon bien arteko elkarrizketa entzutea. Ezin, ordea. Lehen begiratuan badirudi ez dutela elkarri esateko gauza handirik, baina pentsatzekoa da gizon betaurrekoduna ez dela joan eskumuinak ematera. Hemezortzi urte pasatu dira zaharrak halako inor azkenekoz hartu zuenetik. Halako inor: hau da, ezkerrekoa eta Euskal Herriaren independentziaren aldekoa den inor. Batez ere, bigarrenari helduko diot nik, ze ezkerrean bolantea baino ez da gelditu XXI. mendean. Hemezortzi urteren buruan asko zahartu da Juan Carlos Borboikoa. Ordezkatzen dituen erakundea eta gizarte eredu feudala bezain zahartuta dago Espainiako Erregea. Errekondok Euskal Herriaren bakerako bidean konpromisoak eskatu dizkio, eta besteak baietz. Barruan, «zergatik ez zara isiltzen?» esango zuen bere kolkorako. Inork baino gehiago berak nahi izango du bakea gainera: herritarren lepotik lasai bizitzen jarraitzeko Mallorcan atentaturik izateko arriskurik gabe. Eskubaloi jokalaria izandakoa eta euskal herritarra da Errekondo, Juan Carlosen suhia bezala. Agian, alaba ezkontzerakoan pertsonaz erratu zela pentsatzen geldituko zen zaharra.

Errelatoa

2011-12-17

Denbora igarri barik pasatzen da, eta ezin dut kalkulatu ere egin zenbat gauza pasatuko ziren Gernikan 75 urtean: berriak jaio ahala zaharrak hil egin dira, lapurretak egon dira, etxe berriak eraiki dira, jende berria etorri da bizitzera, kiroldegi berria dago, saihezbideak... baina bada zerbait bai Gernikak, zein Durangok eta Otxandiok duela 75 urte inguru egin behar izan zutena: erraustutako herriaren gainean herria eraiki. Ez zen erraza izango hildakoen eta gerratik itzuli ez zirenen oihartzunari eustea, baina eraiki zituzten kaleak, etxeak, parkeak... 75 urte beteko dira gure aitita-amamen memoria erre zigutenetik, eta ordua dugu guk ere gure egia kontatzeko; sasoia da etxean kontatu digutena egunkarietan argitaratzeko edo eskoletan ikasteko. Gaur goizean bilera berezia izango da Gernikan (10:00etan Elai Alai aretoan, bada ez bada), eta badaukat esperantza guztion parte hartzeak are eta bereziago egingo dituen datarren urteko ospakizunak. Gure errelatoa geuk idatzi behar dugu. Ez ahaztu, 1936an eta 1937an bonbak bota zizkigutenen ondorengoak direla oraingo demokratak, eta ezer idatzi dutenero, gezurra esan dute. Dagoen bertsio ofizial bakarraren arabera, Gernika gorriek erre zuten. Sasoia da historia ofiziala aldatzeko.

Finala

2011-12-18

Gaur Illunbera noa. Duela urtebete BECera joan nintzen baino askoz ere lasaiago joango naiz. Bidean bazkaldu, kafea lasai hartu, eta han nonbait eseriko naiz. Ez dut ukatuko zortzi bertsolariak taulara bidean ikusten ditudanean emozionatuko naizenik. Badakit gai zail samarren bat entzuten badut urduri jarriko naizela, edo norbaiti bertsoak ihes egiten badio urdaila itxiko zaidala. Hala ere, izugarri gozatuko dudana badakit. Ez bakarrik bertsoez, baita giroaz ere. Hainbeste mila lagun isilik, bertsoa noiz hasiko zain, ondoren txalotan lehertzeko, edo negar egiteko, edo barreari ez eusteko. Txalo egingo diegu, naturalari, poetari, damari, esperientziadunari, faboritoari, bizkorrari, klasikoari eta freskoari. Eta igual da zein den zein, momentu bakoitzean halako edo bestelako roletik kantatuko du bakoitzak, eta guk dena eskertuko dugu. Bidean gelditu direnen pena izango dugu han gauden gehienok, baina orain, egindakoak eginda, finalean disfrutatu egin behar dugu. Ni arriskatzera nator. Ez da txapelerako daukadan izen bakarra, baina busti egingo naiz. Apustua onartzen didanari afaria jokatuko diot txahala izandakoak finaleko azken bertsoa bota baietz (ez aurpegi arrarorik jarri; bertsotan, azkena beti botatzen du irabazten duenak).

Ezberdina

2011-12-20

Bi aldiz esan gabe ere sinetsiko didazue bertso saio asko entzundakoa naizena, eta horietako asko txapelketakoak izan direla. Dena den, bertso asko entzun eta bertsolari asko ikusi baditut ere, igandean Ilunben bizitakoa ezberdina izan zen. Orain arte bertso txapelketetako finaletan egin gabeko gauza asko egin ziren Ilunben: kartzelako gaia bideo bidez eman, bertsolariak mikrofonoak baino gorago eseri, finala seiko motzarekin hasi, gai jartzaileek ez zuten hankadun mikrorik izan eta parkeko banku batean eserita zeudela zirudien... Hala ere, amaierak harritu ninduen gehien. Esan zuten txapeldunaren izena (zorionak Aitor!), eta txalotu genituen haren ostean zetozen izen guztiak. Etorri ziren Kalitatea Fundaziokoak eta Kutxakoak eta BERRIAko Zuzendaria eta Bertsozale Elkarteko kideak eta Laxaro Azkune. Eta tartean, han izan ziren, Donostiako alkatea eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusia. Eta inork ez zien txisturik jo, eta pentsatu eta pentsatu, ohartu nintzen agian ez dela ideologia kontua bakarrik izango. Jarrerak ere zer esana badu, eta memorian arakatuta, ez nuen aurkitu Bilboko alkaterik edo Ahaldu Nagusirik Bizkaiko azkeneko finaletan. Eta horrek asko esan nahi du ekitaldi bati ematen zaion garrantziaz.

Birusak

2011-12-21

Gizarte modernoan gauza kuriosoak gertatzen dira. Ordenagailua piztu, eta posta elektronikoko postontzia zabaltzen duzun ia aldiro abisuak jasotzen dituzu: halako mezua birusa da, halako gonbidapena bidaltzen badizute ez ireki disko gogorra jango dizu-eta... harrigarria da zelako azkartasunarekin abisatzen diogun elkarri ordenagailua birusak harrapatzeko arriskuan badago. Birus errealei buruz, ordea, ez du inork ezer esaten. Ekarri zuen gure txotxok eskolatik birusa, eta hemen egon zen gau osoan umea botaka eta negarrez. Gero umearen ama jausi zen (gure ahizpa, alegia), eta amama eta aitaita ere bai. Azkenean, umearen izeba batek deitu zigun zein gaizki zegoen esplikatzeko, eta jausi behar zuenez, jausi zen izeko gazteena ere (neu, alegia). Zergatik ez digute abisatzen umearengana ez hurbiltzeko, bere gorputz txikian bonba nuklear bat daukalako erasorako prest? Egin barre, baina amorru handiena ematen didana da farmaziara joan, eta gure herri txiki honetan denek dena dakitenez, farmazeutikoaren errosarioa entzutea: goiko etxeko zaharrak ere badauka, zuen alboko umeak pasatu du... eta zuk, hainbeste jakinda, ezin duzu «kontuz birusak» jarri farmaziaren aurreko plazan? Ez noski. Gaixoei aurea hartzen irakasten badituge, botika gutxiago salduko dute.

Normalak

2011-12-22

Ez dakit ze adinetako irakurleak ditudan, eta esango dut Mari Domingiren lagun handia naizela. Hurbiletik jarraitzen diet Olentzero eta Mari Domingiri Gernikako ikastetxeetan dabiltzanean. Mundiala da: ikusi behar zenituzkete umeak nolako maitasunez ematen dizkieten muxuak. Emozionatu egiten naiz ikaratuta negar egiten dutenekin ere. Zenbat txatxutzen garen pertsonak hazten garenean, inozentzia deitzen dioten poz natural hori galtzen dugunean. Umeek magia badagoela sinesten dute, eta nik mirestu egiten dut sinesteko gaitasun hori. Pozteko eta harritzeko gaitasuna dute eta hori zoragarria da. Hala ere, badira ume batzuk gizarteak ahaztu egin nahi dituenak: karroetan daudelako, normalak ez omen direlako (munduan diren galdera ikur guztiak jartzen dizkiot nik *normal*/hitzari), euren kabuz bizitzeko gaitasunik ez dutelako. Eta ez dakizue ze poz izaten duten Olentzero ikusten dutenean eta etxera eramateko goxokiak banatzen dizkietenean. Gizarteak ahaztu dituenek, haiekin gogoratzen direnei dena ematen diete, eta ez naiz ni haiekin bereziki gogoratzen dena. Baina ematen dit zer pentsatua nahi duten guztia duten umeen irakasleek hainbeste eskatzeak eta baztertu ditugun umeen hezitzaileek behin eta berriz eskerrak emateak. Gu ez gara normalak.

Probabilitatea

2011-12-23

Atzoko egunak zapore arraroa uzten du gehienon ahoan. Loteria tokatzea zorte kontua bada ere, beti pentsatzen dugu tokatu zaionak baino gehiago merezi dugula guk. Zortearen izenean erosten dugu loteria, eta tokatzen ez bada, «osasuna badaukagu behintzat», esaten diogu geure buruari. Bitartean, gure esperantzarekin aberasten dira asko: lan eskasa uzteko dugun esperantzarekin, nagusiak jasan behar ez izateko esperantzarekin, etxe handiagoa izateko esperantzarekin edo auto hobea izateko esperantzarekin erosten baitugu loteria. Neuk ere erosten dut, baina inbidiagatik: ingurukoak aberastuko balira, ezingo nuke jasan nik berdin jarraitzea. Badaezpada, haiek erosten dituzten zenbakiak erosi egiten ditut. Azken batean, probabilitate kontua da: zenbat eta gehiago jokatu, tokatzeko aukera gehiago. Eta matematika kontua ere bai: zenbat eta gehiago jokatu, orduan eta irabazi handiagoak betikoarentzat. Esaten zidan niri Estik hala ere: «Gurelakoari ezin leixo egundo loterixek urten!». Nik barre egiten nion. «Zenbat eta gehiago jokatu, probabilidadade gehiago eukiko doduz toketako». Nik baino garbiago zituen gauzak: «Gurelakoak ez tie sartzen probabilidadadietan. Gure numeroak sortetotik kanpora dauz!». Aurten ere arrazoia eman behar diot.

Gutuna

2011-12-24

Badakizu gauza bat, Olentzero? Denek esaten dizute onak izan direla, baina ez da egia. Gaur, Euskal Herriko etxe guztietara etorriko zara, eta, besterik ez bada, ikatza utziko duzu arbolape guztietan, baina askok hori ere ez dute merezi. Ustez gaiztoak zirenek konpromiso handia hartu dute gure gatazka konpondu dadin, eta demokratek barre egin diete. Olentzero, gure lagunak eta senideak legeak agintzen duen baino 1.000 kilometro urrunago dauzkagu, eta gero eta zailagoa da astebururo haiengana iristea. Euskarazko komunikabideak ez daude ondo, eta instituzioek ez dute ezer egiten laguntzeko. Udako Euskal Unibertsitateari dirua kendu diote, eta orain, ezingo ditugu Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen ez dituen hainbat gai interesgarri euskara hutsez landu. Talde parlamentarioak ere, gogoaren arabera banatzen dituzte. Hobe duzu opariak eta ikatza gurean utzi. Aspaldian behar baino lehen ihes egiten du osasunak gure familiarik, eta utzi nire zapatetan dosi bat maite ditudanen artean banatzeko. Ikatza ondo etorriko zait neguan, bakarrik banago hankak berotzeko. Baina gure zoriona izorratu dutenei, ez ekarri ezer. Seguru nago, bere suhiak lapurtu digunarekin, erregeak ekarriko diela merezi baino gehiago urtarrilaren 6an.

Aitortza

2011-12-27

Baserrian jaio nintzen. Bueno, jaio ospitalean, baina 24 ordu nituenetik baserrian bizi naiz. Baserriko lana gogorra dena badakit, baina zorionez, ez orduak eta orduak eman ditudalako lanean. Gu umeak ginenean, gure inguruko gazte gehienek baserritik alde egin zuten, eta guk alde egiteko edadea izan dugunerako, alderantzizko migrazioa jarri da modan. Jendea baserri zaharrak erosten edo etxeak egiten hasi da landa inguruetan. Aitortzen dut: trabes begiratzen diet auzokide berriei. Egiten dituzte etxeak, eta etxeen aurrean hormak. Eurek erosi duten lur zatia zehatz markatzen dute hormaz inguratuta. Amaitu ziren auzoko etxeetako ateak beti zabalik izaten genituen garaiak; orain, «hau nirea da», esaten digute harrizko hesi dotoreek. Zer esanik ez ekartzen dituzten animaliei buruz. Gu ez gara egundo arduratu etxeke txakurrek eta katuek auzokoekin borrokan egiten duten edo ez. Ez dugu egundo jakin etxeke katakumeen aita nor den, edo txakurraren zauriak txakurrez mozorrotutako zein piztiak egin dizkion. Orain jabeek amaitzen dituzte mekaguendioska txakurrek haginkadaka hasitako borrokak. Pentsatzen dut Heidiren mundu bukolikoak kalte handia egin diola gaur egun baserritarrek ematen duten irudiari, baina Heidi marrazki bizidunak baino ez ziren.

Erlijioa

2011-12-28

Na'ama Margolese 8 urteko neskato israeldarra da. Zoriontsua behar luke bere adinean, baina arazoak ditu eskolara joateko: tu egiten diote etxetik eskolarako bidean. Zenbait gizon helduk erabaki dute, ez dakigu zein Jaungoiko edo erlijioaren izenean, Na'ama Margolese ez dela egoki jantzita joaten eskolara, eta hori pentsatzeak umeari tu egiteko eskubidea ematen die, antza. Hau guztia judu ultraortodoxoen obsesio berria baino ez da. Izan ere, orain bururatu zaie emakumeak eta gizonak ezin garela espaloi beretan ibili: sexu segregazioa deitu diote. Margoleseren hirian seinaleak ipini dituzte espaloi bakoitzetik zakilek edo aluek ibili behar duten argitzeko. Israelgo lehen ministroak fanatismoaren kontra egin du, baina nago erru handia gobernuak berak ez ote duen. Askotan sinetsarazi nahi izan digute Israel eta Palestinaren arteko gatazkaren atzean erlijioa dagoela, eta aitzakia horrekin Israelgo Gobernuak elikatu egin ditu judu ortodoxoak. Elikatzearen elikatzeaz, ortodoxoak nahikoa ez, eta ultraortodoxoak erne zaizkio. Inori botatzeko eraikitako armek min handiagoa egiten dute etxean lehertzen direnean, eta ea orain nola geldiarazten dituzten erlijioaren izenean zentzugabekeriak egiten ari diren zorook.

Arrakasta

2011-12-29

Euskaldunok ez dugu arrakasta maite. Itxura batean ez zaigu gustatzen, eta gustatzen zaienek ederto disimulatzen dute. Olatuaren gainean gaudenean lotsati egiten dugu barre, eta ez zaigu gustatzen maila intelektual baxua duten telebista edo irrati programetatik deitzerik. Aparretan dagoena beste bat denean, berriz, urperatu egiten dugu. Sortzaile, artista askori buruz entzun dut jendea txarto berbetan, eta konturatzen hasita, arrakastarik handiena dutenak dira. Nazkatuta nago entzuten ez dakit nor diruzalea dela, edo ez dakit zeinek ez zuela ez dakit zein itsasgarri jarri eskatu zitzaionean, edo halako New Yorketik etorri denetik ezin dela aguantatu, edo beste batek txoroarena egin duela telebista programa batean. Gure futbolariei edo pilotariei ez diegu diruzaleak direnik esaten, eta artistarik onenaren aldean, diru asko kobratzen dute. Erabil ditzagun antzerako kriterioak esparru guztietan. Eta New Yorketik, Pekindik, Bruselatik edo Paristik arrakastaz lepo etorri denari, lotsatuta begiratu behar genioke. Zenbat jenderi onartu diogu ona dela, etxetik kanpoko kritikariek hala onartu eta gero? Euskaldunok ez dugu beste euskaldunen arrakasta maite, eta pena da: hain gutxi izanda, elkarri gehiago lagundu behar genioke.

Baldea

2011-12-30

Aaldea: jatorragoak ziren hasieran. Gure herriko gaztetxean dohan jo zuten pare bat aldiz, eta herriko jaietan talde onen aurretik jotzeko aukera eman genien katxi batzuen truke. Orain, urteen poderioz, ezin da pentsatu halakorik: arrakasta burura igo zaie, eta urtean kontzertu bat ere ez dute dohan egiten. Sekulako dirutza eskatzen dute, eta guk ez daukagu, jakina. Diskoak grabatzera tokitara joaten dira, eta hori ordaindu egin behar da, badakizue. B aldea: kostata, baina lortu dugu gehien maite duguna eginez bizitzea. Zoragarria litzateke jendeak hori ulertzea, baina hortik urrun gaude. Kontzertu bakoitzarekin tratuan aritzen dira, eta soinu ekipoa jarri duenari, garagardoa ekarri duen enpresari edo txoznak alokatu dizkioten elkarteari ez diote prezioa eztabaidatzen. Lehen, herriko jaietan dohan jotzen genuen: gure ostetik jotzen zuten talde guztiek eskatutako tarifa kobratzen zuten, baina, gu hasi berriak ginenez, ez ginen ezer esatera ausartzen. Orain, ez digute deitzen. Ez dugu gure ostetik jotzen zutenek baino askoz gehiago kobratzen, baina guri ez digute deitzen oso garestiak omen garelako. Gure arrakastarekin pozten direla esaten digute, baina gure lana hau dela onartu genuenetik, merezi gabeko kritika gehiegi jasotzen dugu.

Balantzea

2011-12-31

Agur, agur urte zaharra, joan zaitez lotara, sasoia dozu ta zoaz atsedendutera». Horrela kantatzen dugu gaurko egunez enbeitatarrok. Doala, bai, aurtengo urtea, eta eraman ditzala berarekin gauzarik txarrenak; onak memorian geldituko zaizkigu-eta. Memorian geldituko zaigu Gatzia Zornotzara itzuli zen eguna. Gure zati izango da Troitiñok Espainiako mendeku politikari barre egiteko izandako gaitasuna, eta ez dugu hain erraz ahaztuko Jon Agirrek Basauriko kartzela utzi zuen eguna. Oroitzapenen kutxan gordeko ditugu egindako kilometroak, ukitutako kristalak, emandako muxuak, eman gabe utzitako besarkadak... «Urte barri ondo etorri» jarraitzen du kantuak, eta ez nuke nahi 2012a amaitzen denean betiko penez hitz egin gura; urteak gauza onak bakarrik ekarri dizkidala kontatu nahi nuke. Izan dadila 2012a nire seme-alabentzat aita egokia topatuko dudan urtea, izan dadila banketxera noan bakoitzean sutan aterako ez naizen urtea, izan dadila nire inguruko langabe guztiek lana aurkituko duten urtea, izan dadila gure familiak negar egiteko motiborik ez daukan urtea, izan dadila euskararen urtea, izan dadila emakumeon urtea, izan dadila sexu aukeragatik baztertu dituztenen urtea, eta, batez ere, izan dadila han urrunean ditugun lagunak sutondoan besarkatuko ditugun urtea.

Misilak

2012-01-03

Aspaldi amaitu zen Gerra Hotza, edo hori ikasi genuen institutuan, behintzat. AEBek misil berriak sortu ahala, orduko SESBek hobetu egiten zituen, eta alderantziz. Orain ez omen dago mundua blokeetan banatuta, baina blokeoak badira, eta armen salmenta zerbaitegatik da hain errentagarria. Herri indartsuenek armak erabiltzen dituztela ahulagoak menderatzeko, eta mende honetan iraultzek ez dute aldatzen mundua. Orain herri indartsuenen beharrak asetzeko txikien kontra egiten diren injustizia armatuek aldatzen dituzte mapak. Iran modan dago. Ormuzeko itsasartea itxi egingo duela esan du, eta Persiako Golkotan misilak probatzen hasi da, inork bere helburuari trabarik jarriz gero ere. Izan ere, Iranen helburua trabak jartzeko modukoa da: Persiako Golkotik ateratzen den petrolio guztia ateratzen da Ormuzetik. Nork ez du nahi haren kontrola? Mundua Iranen kontra jarri da, baina ez haren inguruko herritarrek pena ematen dietelako misilen mendean. Ez dezagun geure burua engainatu: AEBek eta Europak daukaten beldurra da petrolioaren gaineko kontrola galtzea, eta, hori gerta ez dadin, prest daude Iranen misilei misil modernoagoz erantzuteko. Ez gure interesak defendatuko dituztelako, jakina; mundua gobernatzen duten indar ekonomikoek hala nahi dutelako baizik.

Damu naiz

2012-01-04

Gutxi gorabehera bizitza normala izan dugunok ez gara ia ezertaz damutzen, edo hori da jendearen aurrean esaten duguna. Pentsatzen hasten banaiz, egin ez ditudan zenbait zorakeria izango dira gauz loa kendu didaten gauza bakarrak, eta uste dut nire inguruan horrela bizi dela jenderik gehiena. Pentsatzen dut desberdina izango dela zerbait desberdina egin dutenen kasua: bankua lapurtu dutenak, menpekotasun gogorretan erori direnak, erakunde armatu bateko kide izan direnak, abortatu duten emakumeak, bizitzan zerbait izateko nahi ez zuten norbaitekin ezkondu zirenak, azpiegitura handiei baietza eman dioten ingeniariak... eta ez naiz ari horiek guztiak zaku batean sartzen. Esan nahi dudana da egin dutela zerbait bizitzan, berez hala delako, edo gizarteak hala erabaki duelako, beste guztiongandik bereizten dituen. Eta, hala ere, gauza ganorarik gabea iruditzen zait damua. Azken batean, damutzen denak nahi duena da bere okerrak zuzentzea, eta eginda dauden okerrak zuzentzeko, egindakoen adina ekintza egin behar dira berriz. Hori hala bada, pentsatzen dut, damutzen direnek besteok baino urte gehiago bizi beharko dutela ustez gaizki egin dituzten gauza guztiak gero ondo egiteko, eta ez dago Jaungoikorik hainbeste urte bizi araziko dituenik.

Bidea

2012-01-05

Euskal Herria inoiz ez da izan konkista handiak egin zalea. Gehiago izan dira gure lurra konkistatzen ahalegindu direnak Euskal Herriak zapaldu dituenak baino. Hala ere, gure herrian hasten diren bideek norabide bakarra dute, jendea ez baita bueltan etortzen. Gure herritik urrutira eraman zituztenek urteak daramatzate etxerako bidea aurkitu ezinda. Guk astebururo egiten dugu haienganako bidea autoz, autobusez, trenez edo hegazkinez. Errepideko marrak zenbatzen ditugu, sudokuak egin, irakurri, treneko tabernan garagardoak edan, Parisen esnatu, Cadizen loak hartu, Madrileko eskalestrian galdu, Almeriako hondartzara joan, Burgosen gelditu... eta, hala ere, luze egiten zaigu bidea. Liberen bideak 4 urte ditu, Maiterenak 28, Marijerenak eternitate bat Frantzian eta beste bat Espainian eta Pauleren bideak hiru norabide ditu. Urteak daramatzagu bidea egiten; urteak eta urteak. Kontua da harantzako bidea egin zutenentzat gero eta beharrezkoagoa dela honantzako bidea egitea. Ondarroarrek esaten zuten moduan, *iparra galdu barik* egin behar dugu bidea, baina ez dakit hegoaldera larregitan joan ez ote garen iparra begiak itxita aurkitzeko. Egin dezagun bidea, baina bueltakoa. Horrek bakarrik sendatuko digu egun batean eraman zizkigutenek utzitako mina.

Egin dezagun

2012-01-06

Egin dezagun ariketa. Itxi begiak, eta pentsatu hiru bider bi metroko gelan zaudela. Leiho txiki bat dago gelan, baina ez duzu zerurik ikusten. Egunero 22 orduz egon behar duzu gela horretan, eta gehienetan beharrezkoa duzu argi artifiziala piztea. Gelatik kanpo egiten dituzun ordu bi eskasetan hormaz inguratutako gela handiago batera eramaten zaituzte gizon-emakume armadunek. Ez dizute uzten beste inorekin hitz egiten, eta han sartzen zaituzte, piztiak zoologikoan bezala: hamar pauso aurrera, eta horma jotzen duzu eskuaz, buelta eman eta beste hamar pauso beste aldera, horma jo, berriz beste aldera, horma eta buelta, hamar, horma, hamar, hamar, hamar... bukatu da. Gelara berriz. Hantxe dago daukazun guztia: ohea, liburuak, kartazalak, komuna, arropak... zure esparru geografikoa hiru bider bi metrora mugatuta dago. Orain egin dezagun ariketa begiak irekita. Nork izan ote zuen halako gelak eraikitzekeo ideia? Zergatik ukatuko dio norbaitek beste bati zerua ikusi ahal izatea? Ez pentsatu gela horretan dagoena zergatik dagoen hor. Gela hori eraiki zuenak pertsona gaiztoak on bihurtzea helburu bazuen, bera ona zelako eraikiko zuen, baina, antza denez, hormen jabeak ez dira hain onak. Egin ariketa. Erantzunek esango dizute bidea egitea zein urgentea den.

Itsosupetekoa

2012-01-07

Eskerga, itzela, ikaragarria, izugarria, egundainokoa, sekulakoa, demasekoa, upielakoa, berebizikoa, itsosupetekoa, alimalekoa, astuna, printzipala, beregainekoa, gehiegizkoa, agurgarria, ez sinestekoa, nagusia, sekulakoa, oso handia, egundokoa, berealdikoa, izigarrikoa, kristorena, terriblea. Ez halakoak bereziki gustatzen zaizkidalako; bai halakoak egitea beharrezkoa dugulako. Ia 700 preso politiko daude Espainia eta Frantzia barreiatuta, eta nik ez dakit zenbat iheslari munduko txoko ezkutuetan gordeta. Gaur Bilbon Athleticen ereserkia inoiz baino presenteago izango dut: herritik sortu zinetelako maite zaituzte herriak. Elkarrekin hasi genuen bidea, baina guk pauso bat eman genuenerako zuek hamar eman zenituzten, eta orain elkarrengandik urrunegi gaude. Joaten gara bisitan, egiten dugu topa haien alde, bidaltzen dizkiegu dirua eta liburuak, esaten diegu maite ditugula, baina haiek han daude, eta guk gaur ere garagardo batzuk edango ditugu Zazpikaleetan manifestazio ostean. Herritik sortu ziren eta herrian behar dute. Gutako bakoitzaren askatasun pertsonala haien askatasun fisikoak baldintzatuko du preso dauden artean. Ekar ditzagun etxera. Manifestazio kolosalik behar izango ez dugun etorkizuna demasa izango da, sekulakoa, upielakoa, itsosupetekoa...

Ama

2012-01-08

Ama izatea mitifikatuta dagoela iruditzen zait. Obsesio baten antzera bizi ditut amari egindako kantuak, ipuinak, bertsoak... Batzutan ematen dugun amaren irudia sakrifizioarena da, eta benetan esaten dizuet, hainbesterako sakrifizioa bada ama izatea, nik ez dut ama izan nahi. Bestetan, badirudi umeak derrigor behar duela ama bizitzeko. Bizitzak ematen dituen palukadekin badakigu asko hazi eta hezi direla amarik gabe. Ama izatea eta ama bat izatea gauza ederra dira, dudarik gabe. Gogorra egiten zait ama izan nahian dabiltzan lagunen etsipena entzutea, eta oraindik gogorragoa, ama behar baino lehen galdu zutenekin gure amaz hitz egitea. Erditzea emakumeoi tokatu zaigun pribilegioa da, eta pozik nago; nahi badut, neuk ere ama izateko aukera izango dut. Amak eman zidan bularra, eta haren zilbor hesteari lotuta jaio nintzen; baina horrek ez du esan gura bitzta guztian amak aitak baino hobeto ulertuko gaituenik. Nik gauzak okertzen direnean behar dudana altzoa aitarena da. Kontsolatzen nauen presentzia isila aitarena da, eta askotan amari, maitasun handiz, zelloa jarriko nioke ezpain itxien gainean. Eta ez naiz horregatik gaizki sentitzen, eta badakit hori hala izanda ere biak maite ditudala. Ez bat bestea baino gehiago: biak berdin, biak asko.

Izenak

2012-01-10

Badakit izenak ez duela izana egiten, baina izena oso garrantzitsua da. Amaren sabelari forma ematen hasi ginenerako, hasi ziren gure gurasoak gure izena zein izango zen pentsatzen, eta guk ere berdin egiten dugu edo egingo dugu sasoa datorrenean. Etxeko abereei izenak jartzen dizkiegu, eta behar dugu bizi garen lekuak izena izatea nongoak garen esan ahal izateko. Kaleen izenak ere garrantzitsuak dira. Ez da berdina Askatasuna kalean edo Konstituzio Plazan bidez. Leku zoragarrienari ere, glamour pitin bat kentzen dio guk maite ez dugun zerbaiten izena izateak. Eta zapatuan Autonomia kalean nengoen manifestazioa noiz etorriko, eta pentsatu nuen kale horren izena gainditu egin behar genuela independentziarako bidean, eta urrunera euskal preso politikoen senideak ikusi nituen zapiak eskuan. Argazkirik ez. Izenik ez. Eta edozelan hil dituztela ere, ETAko kideen izenak kendu egin dituzte kaleetatik. Baina gu manifestazioaren zain geunden puntuan Autonomia kalearekin gurutzatzen den kaleak Marcelino Oreja du izena. Banketxeko gutunetan, telefono fakturretan, lagunek oporretatik bidaliko postaletan... han agertuko da beti Marcelino Oreja, eta ez da iguala manifestazioari Autonomia kalean ala Marcelino Oreja kalean itxarotea. Izen batzuek min ematen dute.

Okela

2012-01-11

Aspaldi amaitu zen biztanle bakoitzak jateko adina ekoizten zuen sasoi. Ekoizle gutxi dago orain, baina jatunok jarraitzen dugu asko izaten. Erraza da jateko adina produktu lortzea: supermerkatuara joan eta kito. Han dago behar duguna: janaria eta komuneko papera, arropak eta gorputz biluzian emateko kremak, liburuak eta bihotzeko aldizkariak, elektratresnak, kontsumo baxuko bonbilak... ahaztuta daukagu gauzak ekoiztea zein nekeza den. Okela merkearen eta garestiagoaren artean dagoen desberdintasuna zein den pentsatzen jarri beharrik ez dugu. Gura badugu merkea erosten dugu, eta ahal badugu okela ona jaten dugu. Baina guk okela eros dezagun beste batzuek ganadua zaindu egiten dute, jaten ematen diote, eta hil egiten dute. Ganadua hiltzeko hiltegiak behar dira, eta Bizkaia hiltegirik gabe utzi nahi dute. Ikusi gura ez duguna da, Bizkaiko hiltegi bakarra ixten badute, bizkaitar guztioi kenduko digutela konfiantza osoko okela jateko eskubidea. Begetariano egin gaitzke, edo gure gaitzen errua jan dugun okelari bota (txirrindulari batek egin zuen moduan), baina geuk erabaki behar dugu zer nahi dugun: edo bertoko eta kalitatezko produktuak jaten ditugu egunero, edo zentzurik gabeko esplotazio handiei jaten ematen diegu. Ez dago besterik.

Ama II

2012-01-12

Manifestazioetan ikusten nuenean, irribarre egiten nuen: Antepara etorri da, hasteko moduan gaude. Bere txikian ze indar zuen emakume hark, bere txikian ze hutsune handi biziko zuen seme txikia Donostian hil ziotenetik, bere txikian ze handia izan zen semea kartzelan izan zuen hogeitun urteetan erakutsitako duintasuna. Isil-isilik hil da Espainiako kartzela guztietan egona zen emakumea (hiru edo lautan izan ezik esaten zuen berak).

Sekulako barreak egin nituen elkarrizketa batean «ez dakite gu bistatik nola kendu» esan zuela irakurri nuenean. Berak jakin zuen ikusi nahi ez zutenei aurrez aurre begiratzen: zapia lepoan, Josuren argazkia eskuan, Iñakiren hutsunea indar bihurtuta barruan, tente beti. Azkenean, herri honi merezi baino taupada gehiago eman ondoren, gelditu egin da Blankaren bihotza.

Urbina plaza ez da lehengoa izango. Lehen semeak utzitako hutsuneari amarena gehitu zaio, eta pentsatu nahi dut nonbait elkartuko zirela ama-semeak, eta ez dutela sekula gehiago elkar bistatik galduko. Lander Garrori irakurri nion atzo Euskal Herriko emakumerik ederrena joan dela. Bai; galanta izan da Blanka.

Erralde

2012-01-13

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak euren buruari bakarrik kasu egiten jarraitzen badute, litekeena da Erralde zabalik dagoen azken eguna bihar izatea. Lehen sektorea deitzen dioten horrentzat galera handia izango da, baina gehienek ez dute ikusi nahi. Kontzentrazioan izan nintzen baserritarrekin. «Ganadu gutxi daukanak garraioan gastatu beharko duenarekin kendu egingo ditu behiak, eta gero eta abeltzain gutxiago izango gara», esan zuen batek. Beste batek erantzun ona eman zion, «hori horrela duk, baina gero zartaginera botatzen denean guztiek ikusiko ditek desberdintasuna! Supermerkatuko okela erdira jaisten duk!». Badakite baserritarrek zertaz ari diren kalitateaz ari direnean: «Nik ez daukat ganadu askorik, baina dendako edozein okela erosi baino gurago dut etxean hil lehenago hiltzen genuen moduan: borrarrekin jo buruan eta izozkailura!». «Orduan, ferreteruek irabaziko dute!», esan zion beste batek eta denok egin genuen barre. Baina baserritarrek badakite okela ona saltzeko bakarrik ez, jateko ere okela eskasa baino hobea dela. Kontua da, besteok, hirietan bizi direnak edo gurasoen ortutik majo gizendu garenok, okela meatzeetan egiten dela edo pentsatzen dugula; ze ez digu batere ardurarik nekazaritza osoa pikutara joateak.

Burgesia

2012-01-14

Norbaiti entzun nion atzo irratian Euskal Herriko burgesia berria Amaiurren sartzen ari dela. Pozik egongo dira burgesok; ez baita polita noraezean ibiltzea botoa nori eman ez dakizula, konponbiderik inork eskaintzen ez dizula, konponbideak eskaintzen dituztenak ilegalak direla... Pentsatzen dut ni ere burgesagoa naizela langilea baino gehiago. Bizimodu eroso samarra daukat, eta eskuak ez zaizkit sekula laztu gure gurasoei bezala. Hala ere, berdin dit burgesia berria nora doan. Hori ez da gure arazoa, eta horrek ez liguke lorik kendu behar. Larriago daude burges zaharrak. Inork esango al dit nora joango diren Euskal Herriko burges zaharrak (eta ez zahartutako burgesak) benetan egin dutenaz jabetzen direnean? Nora joango dira AHT inposatu digutenak konturatzen direnean Bilbotik Gasteizera 20 minutuan iristeko ez duela merezi izan durangalde guztia jatea? Nora joango dira burges zaharrak konturatzen direnean euskararen alde egin duten bakarra adierazpen instituzionalak izan direla? Nora joango dira konturatzen direnean BEC Europako azpiegitura garestiena izan dela, eta oraindik diru publikoarekin akzioak eta akzioak erosten ari garela ordaindu ahal izateko? Aukera zaharren ondorioek arduratu behar gintuzkete, eta ez aukera berriek oraindik egin ez dutenak.

Txillardegi

2012-01-15

Euskara, independentzia, amnistia, presoak, ETA, herria... zer ziren ulertzen hasi ginenean, galdera askoren erantzunak hasten ziren bere izenarekin. ETAREN sortzaileetako bat, ETARI izena jarri zion gizona eta ia-ia hil arte gure herriko politikan ekarpenak egin dituen gizona joan dira pertsona bakarraren heriotzarekin. Gehiago oraindik: akademiak onartu ez arren, euskaltzain bat joan zaigu. Hiru aldiz baztertu zuen Euskaltzaindiak soziolinguistikaren oinarriak ezarri zituen gizona, euskal eleberri modernoaren sortzailea. Euskaltzainak euskara zaintzen duena esan nahi badu, behintzat, euskaltzain osoa izan da Txillardegi. Inork baino hobeto zaindu du euskara: hitz eginez, irakurriz, idatziz, biziz eta maitatuz. Berari zor diogu Euskal Herrian Euskaraz bizirik egotea ere, eta haren sortzaile izan bazen, euskaraz bizi den Euskal Herria nahi izan zuelako izango zen. Pena ematen dit justu orain hiltzeak: bere ametsa egia bihurtzeko pauso historikoak eman direnean. Nik pentsatzen nuen Euskal Herria burujabea eta euskalduna denean Txillardegi edo Jokin Gorostidi edo etxabetarrak han egongo zirela, baina ez da hala izango. Gaur inoiz baino argiago ikusten dut Euskal Herri burujabe eta euskaldunaren beharra: bidea hasi zutenei zor diegu bidearen amaieraraino iristea.

Iribarne

2012-01-17

Ezin dut burutik kendu aitita Balentin eta Patxi ze pozik egongo liratekeen bizirik baleude. Ze poz hartuko luketen ikurrina legeztatu aurretik euskaldunak bere gorpuaren gainetik pasatuko ginela esan zuen gizona hil dela jakitean. Francoren diktadura garaian Turismo eta Informazio ministro izandakoa hil da, eta pena ematen dit, hainbeste zapaldu zuen belaunaldiko askok eta askok egun hau ikusteko aukerarik ez izateak. Amorruez ikusi zuten, oster, nola Manuel Fraga Iribarne demokrata bihurtu zen, eta nola Galiziako Xuntako presidente izendatu zuten. Telebistaren aurrean negar egin zutenak ezagutzen ditut. Espainian ez dago desberdintasunik diktaduratik demokraziara. Egia da demokrazian hauteskundeak egon direla, baina hautetsiak izan diren asko diktadura garaian ministro izandakoak edo haien ondorengoak dira. Hala ere, haize berria badator, eta, zorionez, atmosfera kutsatu zaharra joaten ari da. Agur, Manuel Fraga Iribarne; ohorerik bat ere ez. Pentsatu dut ez zitzaiola gustatuko artikulua izenburua bere bigarren abizena izatea, lotsatu egiten baitzen euskalduna zelako. Baina izorratu egin nahi nuke. Jurramendin edo martxoaren hiru batez Gasteizen hildakoak justizia eske ari dira hilobietatik, eta hiltzaileak ez du bakean atsedean hartzerik merezi.

Domeka

2012-01-18

Batzuentzat astelehenaren aurreko egun depresibo hori izaten da domeka, eta besteontzat guk nahi badugu zoragarria izan dadila lor dezakegun egun bat gehiago. Batzuk Jaungoikoarekin zita izaten dute, eta mezetara joaten dira. Beste batzuk, berriro jaisteko igotzeari zentzua aurkitzen diotenak, mendira joaten dira; eta besteok herriko plazan itxaroten diegu elkarrekin bazkaltzeko edo txikiteorako. Futbola gustatzen zaienentzat ere, polita da igandea: partidak ikusi, futbol zelaira joan, garagardo batzuk hartu lagunekin zenbait talderengatik kristorenak esanez... Zinemara joateko ere egun aproposa da igandea: zapatuko parrandatxoa galdu gabe, arratsaldea goxo-goxo igarotzeko aukera ematen du. Familia elkartzeko ere egun aproposa da igandea, gehienok ez dugu bestelako planik izaten: baten urtebetetzea ospatzeko txokolatea, talo jana, aspaldian izozkailuan gordetako txahalaren txuletak, edo kroketak... Domeketan siesta egitea ere ez dago gaizki ikusita. Zurrunga egitea aste barruan baino libreagoa da: bezperan edo igande eguerdian edaten dugunarekin, ia guztiok egiten dugu. Ulertzen ez dudana da, igandeetan egin daitezkeen gauza guztiekin, nola enkapritxatu zaion Bilboko alkateari igandeetan erosketak egitera joatea. Izorratzeko gogoa behar da!

Dominak

2012-01-19

Ez dugu aukeratzen noiz jaio, eta hala aukeratu dugula sinistek ez du batere aldatuko esango dudana. Noiz jaio aukeratu egin badugu ere, ez gara aukera hori egiteko arrazoiez gogoratzen. Beraz, alferrik. Nioen ez dugula aukeratzen noiz jaio: 1979an, 1990ean, 1946an... ahalik eta ondoen bizi dugu tokatu zaigun garaia, eta datozenei joan zirenek utzi zigutena baino mundu hobea uzteak arduratu behar gintuzke. Horren orde, ordea, batzuek garai bat idealizatzeko joera dute: gure garaian, gu gazteak ginenean... Horrek ez du ezertarako balio, baina balioa ez da gehien izorratzen nauena. Nire onetik ateratzen nauena da lehengoa idealizatuz oraingoa kakaren pare uztea. Lehengo gazteek dena hain ondo egiten zuten, oraingok ez dute nahita ere asmatuko. Nazkatuta nago Francoren poliziaren aurrean korrika egin zenutela, ez dakit zenbat mila pankarta egin zenituztela edo gu jaio orduko klandestinitatea ezagutu zenutela entzuteaz. Itzelak izango ziren Burgosko epaiketa edo Lemoiz, baina jaio gabe geunden. Zuek ere gerran jaio gabe egon zineten moduan. Beraz, nahi baduzue elkarrekin egingo dugu bidea, eta bestela, beheko suaren ondoan eseri beharko duzue gerrako dominak elkarri erakusten. Guk tokatu zaigun garaiari eutsi nahi diogu.

Ume hilak

2012-01-20

Ni ez naiz inoiz haurdun egon, baina pentsatze hutsak oilo ipurdia jartzen dit. Ilusio guztiak bizitza berri batean jarri ondoren bizitza berri hori hilik jaio dela konturatzea beldurgarria izango dela pentsatzen dut. Ez nuke halako trantzetik igaro beharrik izan nahi. Ba al dago hori baino ezer okerragorik? Bada, bai: bizirik jaio den umearen amari esatea umea hilik jaio dela eta ume hori beste batzuei ematea. Munduan egin daitekeen gauzarik miserableenetako da, ez baitzait beste hitzik bururatzen, gorria edo pobrea delako norbaiti umea kentzea eta beste bati ematea aberatsa edo agintzen duenaren ideologia berekoa delako. Filmetan ikusi ditugu halakoak, Argentinan aspaldi hasi ziren diktadura garaian ostutako umeen bila, eta orain hemen espabilatu gara. Hilkutxak ireki, eta zorotzat hartu ziren emakume haiek, isildu zituzten emakume haiek arrazoia zeukatela ikusi dugu hilkutxa hutsetara begiratu dugunean. Ez dira kasu partikularrak. Sare oso batek parte hartu zuen umeen lapurretan, eta helburu argiekin egin ziren halakoak. Ume hilak bizirik egotea notizia ona da, dudarik gabe. Nork epaituko ditu, baina, ume haiek gurasoen eskuetatik kendu zituztenak? Nori eskatuko diote barkamena oraindik ere bizi diren zenbait medikuk? Eta Elizak?

Kritikoak

2012-01-21

Batzuk beti dira beste guztiok baino kritikoagoak, eta kritikoak besteok baino azkarragoak izaten dira gehienetan: kapaz izaten dira beste guztiok ikusi ez ditugun gauzak ikusteko. Zoritxarrekoak gu, ardirik beltzenak izanda ere, artaldean bizitzea erabaki dugulako. Zorionekoak kritikoak: egundo artaldean sartzen ez diren ardiak dira, ardi zurietan zurienak izan arren. Arretaz irakurtzen ditut euren burua kritikotzat duten zenbaitek politikaz esaten dituztenak. Harrigarria iruditzen zait lehen politika egiteko modu bat oldarkorregia-edo zelako kritikatzeko zutenek, orain, politika bigunegiak kritikatzeko. Nik ez dakit dena, eta nire sinpletasunean onartu egiten ditut zenbait erabaki; ez guztiak, jakina. Hala ere, kritikak egin behar ditudanean, edo zerbaitekin ados ez nagoela adierazi nahi dudanean, arazorik gabe esaten dut pentsatzen dudana. Zorionez, badaukat nire ekarpenak non egin eta nire zalantza guztiak non adierazi. Ez daukat egunkarrietan edo irratian edo tabernan inork baino ozenago hitz egin beharrik, guztiak jakin dezaten, botoa eman diodan alderdiarekin ez natorrela guztiz bat. Ez daukat horren beharrik, eta harrigarria iruditzen zait zenbaitek altabozen beharra dutela ikusteak: ezer berririk ez esateko, beti kontra daudela argi uzteko...

Dioguna

2012-01-22

Gauetan etxera noanean niri ere gustatzen zait, mandoa eskuan hartuta, zapping egitea: gustatzen ez zaidana kendu, eta gustatzen zaidana ikusi. Euskaraz kate gutxi daude, eta gaztelaniaz dozena bitik gora, beraz, ez da kalkulu matematiko handirik egin behar telebista batez ere gaztelaniaz ikusten dugula jakiteko. Gainera, niri gustatu egiten zait Espainiako telebista. Bai, litekeena da gaixorik egotea, baina egia da. Txutxu-mutxuak amaitzen zaizkienean kolaboratzaileei buruz kristorenak esaten dituzten programa horiek izugarri gustatzen zaizkit. Lotsa ere ematen dit aitortzeak, baina ez zait telebista aurrean gehiegi pentsatzea gustatzen, eta Goenkalen tragedia handiegiak dituzte. Egia esango dut: niri Salvame, Vuelveme Loca, Enemigos Intimos, La Noria, Corazon... eta antzerako programak gustatu egiten zaizkit. Ulertuko nuke hau izatea irakurtzen didazuen azken zutabea, baina begiratu zuen ingurura ni gurutziltzatu baino lehen. Ratioek diotena egia bada, Hego Euskal Herrian halako programak asko ikusten dira. Politikoki zuzenak izateko, badakigu zer esan; baina diogunetik egiten dugunera alde handiegia dago. Egia aitortzeak ez nau besteak baino hobe egiten, baina nire patologiak zeintzuk diren badakit behintzat; inoiz sendatzea bururatuko balitzait ere.

Min

2012-01-24

Umeak ginenean, eskailera mekanikoak zituen leku bakarra zen Bilbo guztian, eta, Metroak protagonismo handia kendu badio ere, hiriburuko lekurik mitikoenetakoa da Corte Ingelesa. Opari bat erosteko gogoak eroan nau gaur haraino, eta, pronostiko guztien kontra, ez dut niretzat ezer erosi. Eta kontatzera noana oparia erosi aurretik gertatu balitzait, hura ere ez nukeen erosiko. Galtzerdiak saltzen dituzten korridoretik oinez noala, saltzaile mehe batek galdetu dit ea zerbait behar nuen. Ezetz esan diot. Orduan, irribarre zabal-zabalarekin esan dit, ba omen dago produktu berri bat niri ziur interesatuko zaidana. Ziur hitza erabili du, eta faja bati buruzko eskuorria eman dit: zure figura murrizten du, zure kurbak nabarmenduko ditu mitxelinak disimulatuz, izarren pare sentituko zara. Eta nork esan dio nik ezer disimulatzeko interesa dudanik? Zergatik pentsatzen dugu potoloak beti daudela pozik eta ezerk ez dituela mintzen? Gustura erantzungo nion: «Badaukat nik ere zuri interesatuko zaizun zerbait: katilu bete txokolate bero txurroekin, eta goizero komunera lasai joateko pilula batzuk». Baina minduegi nengoen erreakzionatzeko. Eguna izorratu dit. Badirudi potola gaudelako ez dugula eskubiderik dotore egon nahi dugunean arnasa lasai hartzeko ere.

Borobila

2012-01-25

Bat-batean konturatu naiz ez zaidala niri bakarrik gertatu. Nire mina paperean jarri dudanerako, jendeak Facebookera igo du nire testua, eta kontatu dudanarekin identifikatuta sentitzen dira nire lagun eta ezagun asko. Bat-batean konturatu naiz jarrera sozial bat esplikatu dudala anekdota soil bat kontatu beharrean. Eta, bat-batean, pultsua azkartu zait, neure buruarekin haserretzeraino: hainbeste bagara mindu gaituztenak, fajak edo dena delakoak eroatera kondenatu gaituztenak, zergatik ez dugu ezer egiten? Esaten dugu gauden moduan ere erakargarriak eta ederrak garela, baina gehienok dirutza gastatu dugu dietetan. 34 neurriko bakeroak bai baina 46koak saltzen ez dituzten dendei boikota egin beharrean, amets egiten dugu halako leku batean noizbait gure neurriko zerbait aurkitzearekin. Geure burua autozentsuratzen dugu modan dauden zenbait prenda ez direlako gure neurrirako asmatuak. Itxurari garrantzi izugarria ematen zaio, baina ni ohartu naiz neuri ez zaidala nire itxura batere gustatzen. Maite ditudan lagunei, maitaleei, senideei exijitzen ez dizkiegun bertuteak ez izatearren, gutxietsi egiten dut neure burua. Gizarte honek ez dit borobila izaten uzten, eta taula itxura hartzen saiatzen naiz behin eta berriz, baina alferrik da: mundua bera ere borobila da.

Karratua

2012-01-26

Lau alde berdin dituen irudi geometrikoa da karratua. Lau alde berdin, eta lau angelu zuzen. Marra bat eskuinera, beste bat behera, ezkerrera, gora eta itxi. Borobila ikusten dugunean, gurpilarekin gogoratzen gara; edozein momentutan hara edo hona erraz mugi daitekeen gurpilaz. Karratua, berriz, albo baterantz bultza egingo bagenio ere, hanka baten gainean geldituko litzateke, eta, ondoren, berriro ere sendo zapalduko luke lurra. Eta pena ematen dit gero eta jende karratu gehiago ikusteak. Hanka bakarraren gainean eusten diote ustez zuzena denari: betiko bikotekideari, hipotekari, gustatzen ez zaien lanari, familiari... Noiz edo noiz arnasa hartzeko astia datorrenean berriro ere lurra zapaldu, eta, gero, berriro eutsi; beheraka jaustea ez baita komeni. Umetan, bizikletaren frenuak askatzen genituen aldapa behera gindoazenean, haizea aurpegian sentitzearren bakarrik. Ez genuen beti hanka bien gainean lur hartzen, baina ariketa errepikatu egiten genuen behin eta berriz, sentsazioa itzela zelako. Orain ere gurpil haiek bezain borobilak izan behar genuke: bizitza aldapa behera jartzen bada, segitu; aldapa gora jartzen bada, indar egin bideari jarraitzeko, eta leun badago, lasai egon. Zertarako eutsi? Mundua forma zoragarritz beteta dago.

Printzesak

2012-01-27

Edurne Zuriren berri izan nuen lehen egunetik galdetu diot ispiluari Muxikako neskarik politena nor den: sekula ez dit nire izena esan. Kuleroak lehen aldiz galdu nituenean, pentsatu nuen Errauskineri zapatarekin nola, niri ere agertuko zitzaidala printzea etxean kuleroak eskuan zituela. Honezkero, susmatzen dut topatu duela nire kuleroetan neu baino hobeto kabitzen den baten bat. Nerabea nintzen *Pretty Woman* ikusi nuenean, eta mila aldiz amets egin dut gure baserriko balkoipean limusina zuria dagoela nire zain. Eta egundo ez naiz ni baino diru gehiago duen inorekin oheratu. Aitzitik, gehienetan, taxia, afaria, garagardoak, gosaria, ostatua... ordaintzea tokatu zait. Aurkitu nuen lehenengo printzea kokaina uzteko zentro batean ikusi nuen azken aldiz. Bigarrena zoragarria zen, eta asko maite ninduen; baina ezkondata zegoen. Laugarrenaren atzetik hilabeteak eman nituen, eta, azkenean, proposamen erromantikoa egin zidan: «Onin, egingo dugu larrutan?». Ikusiak ikusita, ez nintzen eskandalizatu, baina oraindik ere deitzeko itxaroten nago. Hortik aurrerakoak ez kontatuta hobe, bestela baten batek pena hartuko dit. Beraz, nire alabei inork, inoiz, ipuin txoro horietako bat kontatzen badie, belarrondoko bi emango dizkiot. Ze kalte egin diguten, jolin!

Zaintza

2012-01-28

Begoñek esan dit zaintza partekatuaren kontra egotea gizonen kontrako misoginia dela. Orduan, minutu batez isildu egin naiz. Badirudi formula magiko bat dagoela dibortzioak konpontzeko, eta Begoñek bere arrazoiak orokortzen ditu. Nik almazena husten dut arrazoien bila, eta bilatzen ditudanean, orokortu egiten ditut neuk ezagutzen ditudan kasuak. Ez nago zaintza partekatuaren kontra, baina horren oinarrian gustatzen ez zaidan ideia bat dago: dibortzio legea emakumeen alde eginda dago. Eta ez dut esango hori hala ez denik, baina hori egiaren erdia baino ez da. Dibortzio legea ez du Jaungoikoak egin, gizonak idatzi du noizbait. Ez naiz erratu, gizona esan nahi nuen. Nork idatziak dira, bada, lege asko eta asko? Zaila egiten zait pentsatzea gizonak, batez ere orain dela urte batzuk, emakume guztientzat ona den zerbait idatziko zutela euren kaltetan. Dibortzioaren legeak egiten duena da urteetan sinetsarazi digutenari bide eman: umeek amarekin egon behar dute. Formula horrek gauza askotan mesede egin dio gizonari, eta emakumeari ezertan lagundu badio, dibortzioan bakarrik izan da. Eta galdetzen diot Begoñeri: baina benetan abantaila al da umeak gurekin gelditzea? Ez ote da misoginia emakume guztiok kustodia konpartituaren kontra gaudela pentsatzea?

Borroka

2012-01-29

Lagun batek esan dit borroka pertsonala hasi duela EuskoTreneko txartel ikuskatzaileen kontra, eta sekulako grazia egin dit. Egunero hartzen du Bilboko Tranbia, eta berak ere ez daki zenbat aldiz etorri zaizkion ikuskatzaileak bidaia txartel eske. Hasieran ez zen konturatu, antza, baina ez dakit zenbagarrenean, ikuskatzaileari 'zer?' batekin erantzuten hasi zen. Orain arte, batek bakarrik aurkitu du 'zer?' horrentzat erantzun zuzena: 'txartela, mesedez'. Beste guztiek gaizki erantzun diote, gaztelania garbian: ez dizut ulertzen, ez dakit euskararik, emadazu txartela behingoan... nik barre egin diot borroka pertsonalaren kontu horri, baina gauzez majo kosta zait lo egitea. Lanera autobusez joaten naizenetan, lo edo irakurtzen gehienetan, ikuskatzaileei zer esaten duten entzun ere egin gabe ematen diet txartela, euskaraz egin diezadaten eskatu gabe. Badakit oso gutxitan eskatu didatela euskaraz, eta garraio publikoko langileak dira, eta jendearekin harreman zuzena dute, eta euskara ulertu behintzat egin behar lukete. Argi dago borroka pertsonal gehiagori ekin behar diegula garraio publikoetako ikuskatzaile guztiak 'txartela, mesedez' esateko gai izan daitezen. Horretarako, baina, 'el billete, por favor' normaltzat hartzeari utzi beharko diogu.

Radarra

2012-01-31

Euskal Herriko sexologorik irribarretsuenak esplikatu zidan radar bi ditugula gure barruan. Bata, gauza txarrak jasotzen dituen, beti omen daukagu piztuta; eta bestea, guri buruzko gauza onak jaso behar dituen, itzalita izaten ei dugu. Ez zuen jakin azaltzen geu garen itzaltzen dugunak edo derrigortu egiten gaituzten itzaltzera, baina esperientziak irakatsi dio ez dugula piztuta izaten. Astebetean ibili nintzen ordura arte itzalita izandako radarrak jasotzen zuena koadernoan apuntatzen, eta ohartu nintzen beti piztuta izateak asko arinduko lidakeela neure buruari ezartzen diodan zama. Hurrengo pausoa zailagoa izan zen: radarra barrura begira jarri, eta neure buruari onartu nizkion hainbat gauza on. Koadernoan ez nituen apuntatu; lotsagatik. Aspaldian ez dut radarrari entzuteko astirik izan, eta aste honetan aktibatu egin didate Durangoko Udal Euskaltegiko ikasleek, hizkuntza eskolako ikasleekin bertso eskola osatu duen irakasleak, Facebookean esanak egunkarian berretsi dituen kazetariak, igande goizean kafea egin zidan lagunak eta astiro-astiro azala zeharkatzen ari zaidan norbaitek. Ordua dut radarra betirako piztuta uzteko; bestela, itzaltzen dudanean galtzen dudanak eragindako mina beti da piztuta dagoenean hartzen dudan poza baino handiagoa.

Erantzunak

2012-02-01

Bertso Egunean kanpora atera zen zigarro bat erretzera, eta han gazte batzuekin berbetan egon ei zen. Ea Onintza Enbeitaren zenbatgarren printzea den galdetu ziotela esan zidan, nahiz eta guzti-guztia ez diodan sinesten. Barre egin nuen, «biluzteak haxe dakar», pentsatuz. Bere ahora ekarri zuen gazteen galdera, eta zenbaki batekin erantzun nion. Galdera bera egin nion, eta zenbaki berarekin erantzun zidan. Badakit gezurra esan zidala, eta brometan genbiltzala, baina behin gezurra esatekotan, eskertuko nuen rankingean aurrerago jarri izan banindu. Nire pentsamenduaren erridikuluak, nerabekeriak, behinola entzun nuen txiste bat ekarri zidan gogora: mutil batek neska bati esan omen zion Eva deituko ziola aurrerantzean, bere ohean izan zen lehen emakumea bera izan zelako. Neskak, orduan, halako deklarazio baten aurrean derrigor erantzuteko beharrak eraginda, aitortu zion mutilari Peugeot deituko ziola aurrerantzean. Arrazoia zenbakian dago: 205. Ohitura txatxu samarra daukagu erantzunak aurretiaz jakinda ere galderak egiteko, baina errua ez dauka minik ez egiteko gezurra esaten duenak; are gutxiago, minik handiena eginda ere, egia esaten duenak. Errua, erantzuna gustatuko ez zaiola jakinda ere, galdera egiten duenak dauka.

Doilorrak

2012-02-02

Badakit ETA aitzakia erraza izan dela Euskal Herriaren izatea ukatzen duzuenontzat: independentziaren alde gauden guztiok ETA ginela sinetsarazi zenioten iritzi publikoari, eta guztiak balio izan du Euskal Herriaren kontra egiteko. Hala ere, pentsatzen nuen ez zinetela hain urrutira iritsiko. Gauza bat da ETARI zenbait erabaki politikoren errua botatzea; eta beste bat, aurpegian lehertu zaizkizuen injustiziak argitzeko dokumentazioa ETAREN bonba batek desagerrarazi zuela esatea. Nola esan dezake, kargudun politikari ustez serio batek, 70eko hamarkadan ETAREN atentatu batean desagertu zela haur lapurtuen kasuak argitzeko dokumentazioa? Eta 80ko hamarkadan lapurtutako umeez zer diozue, non desagertu da dokumentazioa? Herentzian hartu duzuen Espainia bakar eta libre horrek lapurtu zituen umeak elizaren laguntzaz, eta berrogei urtean bizi izan genuen izuaren ostean hutsetik hasteko gai ere ez zarete izan. Orduko bandera, militarrek, politikariak... ekarri dituzue gaur egunera arte, egindakoaz harro. Ez duzue hilarririk jaso nahi izan, eta orain hilkutxetatik datorren ustel usainak urduri jarri zaituzte. Ez duzue Gernika bonbardatu zenutenik ere onartu, eta nor zarete zuek, herri xeheri eragindako mina beste inori egozteko?

Elurra

2012-02-03

Ohetik jaiki naizenean zurituta zegoen dena. Baserritarrak pozik egongo dira: elurrak, urtzen denean, ortuetako izaki eta landare txarrak eramaten ditu bere bidean. Gauzez bota du elurra, baina ez dit ametsik eragotzi; isilik erori da, mara-mara. Ingurua zuri-zuri dago. Goizean ikusi ditudan malutak haizeak astindu ditu hara eta hona, eta beti bezala, airean galduko zirela zirudienean, lurrera erori dira bertan itsasteko. Maluta bat, bi, hiru, lau... bakarra urtu egingo litzaiguke eskuetan, baina asko biltzen baditugu, edonori min egiteko moduko pilota egin daiteke. Askok gustatzen zait elurra: nola erortzen den, ze diskretua den, nola estaltzen duen dena... baina konturatzen naizenerako jendea dabil elur gainean oinez. Bigarren aldiz begiratu dudanerako urratsak daude elurretan, pilotak egiteko hartu dutenez zuloak daude, lokaztuta daude bazterrak. Maite dut elurra bezalako jendea: bere bidea isilik egiten duena, pilota izan behar denean pilota izaten dakiena, baina urtzeko beldurrik ez daukana. Pena da, gehienok elurra zapaltzen dugun espeziekoak izatea: nabarmentzea gustatzen zaigu, gure urratsak ikus daitezen nahi dugu, pilota izan behar badugu berdin digu indarra nondik biltzen dugun... gehiegitan lokazten ditugu zuri behar luketen bazterrak.

Munduan

2012-02-04

Euskaldunek munduan ez dugu parerik, hortakotz ez ginuke guk behar nausirik». Halako zerbait dio kanta zahar batek. Geuk geure buruari buruz idazten ditugunak irakurrita, badirudi sinetsi egiten dugula kantuak dioena: Mirandes kopan ondo dabil eta han jokatzeko duten euskaldunei buruz idazten dugu, hemen baino hobeto inon ez dela jaten pentsatzen dugu, sinetsi egiten dugu oraindik euskaldun guztiak direla berbakoak, gure parajearen ederra besteak baino politagoa dela diogu... Dena den, leku guztietan daude pertsona onak eta txarrak, gauza ederrak eta ez hain ederrak: txakurrak ortozik. Baina guk uste dugu benetan ez dugula parerik: senak esaten digu baietz, meritu handia dugula mendeetan iraun dugun moduan irauteko. Ez, ez gara makalak; baina gure egoa folklore bihurtzen dugunean pentsatzen dut arriskutsua izango litzatekeela euskal selekzio ofiziala izatea. Han joango gara, egunen batean, hegazkin bete jende ikurrinak eskuan hartuta, Gora Euskadi txapela buruan jantzita ez dakit noraino. Espainiarren, frantziarren... moduan bajatuko gara hegazkinetik: gu baino hoberik munduan ez balego bezala, beste guztiak gu baino eskasagoak balira bezala. Eta ez nuke nahi gure herria mendeetan zapaldu duten herrien kopia huts izan dadin.

Meritua

2012-02-05

Ortuellakoak eta euskaldunak? Zuena bai dela meritua. Zergatik harritzen gaitu hainbeste ortuellarrek edo tafallarrek euskaraz jakiteak? Hori baino esperpentikoagoa da herri euskaldunetan bizi diren euskaldun zaharrek gaztelaniazko zenbait egunkari erostea eskela gehiago dituztelako euskarazkoek baino. Ez da Ortuella euskaraz bizitzeko herririk errazena izango, baina muxikarrek, bilbotarrek, tolosarrek, hendaiarrek edo gasteiztarrek ere ahalegina egin behar dugu euskaraz bizitzeko. Nire auzotik atera gabe biziko banintz, ez nuke arazorik izango: goizero jasotzen dut BERRIA etxean, Euskadi Irratia entzuten dut eta auzokideek euskaraz dakite. Baina nire auzoa txikia da, eta Karrantzatik Maulerako bidean, herri eta hiri asko daude, zorionez. Meritua ez da erdalduntzat ditugun herrietako jendeak euskara ikastea; meritua da euskaldun zaharron komentarioak jasatea. Euskara ikasi eta berrogei urtera ere, euskaldun berri deitzen diegu. Ez zaizkigu euren herriak interesatzen: zer dago, bada, Barakaldon guk ikusteko modukorik? Eta pentsatzen dugu haiek gure herrietara etorri eta flipatu egin behar dutela gure kulturarekin, euskararekin, bizimoduarekin... aber, gure alboko herrietan bizi dira, e? Ez dira euskara ikasi duten japoniarrak, euskal herritarrak dira, geure modu-moduan.

Sasoia

2012-02-07

Neguan elurra egitea gauza normala da, baina hemen berri garrantzitsutzat hartzen da. Informatiboetako kazetariak Opakuatik eta Urkiolatik egiten dituzte zuzenekoak errepideak nola dauden jakin dezagun. Han ikusten ditugu mikrofonoak eskutan, uzkurtuta, berba bakoitzean ahotik gandua dariola. Abuztua balitz, ulertuko nuke, baina otsailean elurra egitea gauza arrunta da. Neguan negukoak behar du. Ez dakit, ordea, arazoa larriagoa eta sakonagoa ez ote den. Antzina naturaren zikloen parte ginen, eta urte sasoi bakoitzak bere errituala, bizimodua, janaria... zituen. Orain, edozein sasoi tan jan nahi ditugu gereziak, eta negu gorrian eguzkia nahi badugu, nahikoa da hegazkina hartzea. Umetan pikuak jaten genituen udazkenean, tomateak udan, sagarrak ekainetik aurrera, neguan gaztainak... naturaren zikloa ez da aldatu, eta neguan elurra egiten jarraitzen du; ez baitago beste modurik udan eguzkia ateratzeko. Geu gara lehengo moduan bizi ez garenak. Txarrerako aldatu gara. Tomateak nahi ditugu udan, eta neguan, eta udazkenean, horretarako Argentina edo Txileko baserritarren ekoizpena hipotekatu behar badugu ere. Zentzua berreskuratu behar dugu sasoia joan baino lehen; lurrak ez dizkigu kapritxo hauek guztiak barkatuko.

Bateraezina

2012-02-08

Egunero esaten ditut garrantzi handirik ez duten gauza asko. Txiste txarrak egiten ditut lagun artean nagoenean, eta sekulako barre algarak egiten ditut neure buruari ateratzen dizkiodan akatsekin. Bizitza oso ariketa serioa delako egiten dut barre, ahal badut, egunero. Badaukat iritzi politiko bat, badaukat bizitza ulertzeko modu bat, badaukat maitasunari buruzko uste bat, asko irakurri dut ustez garrantzitsuak diren zenbait gauzaz, baina ez dut mundu guztiari hori esplikatzeko ibiltzeko beharrik. Maite nautenek badakite nola pentsatzen dudan eta zeren arabera ekiten dudan. Ez daukat beste inori ezer erakutsi beharrik, baina jendearen aurreiritziek nire onetik ateratzen naute. Parrandazalea bazara eta irribarretsu bazabiltza, badirudi ezinezkoa dela gauza potoloen gaineko iritzi bat izan dezazun. Aldizkari arrosak irakurtzen badituzu, ez zara gai liburu normalak ulertzeko. Vietnameko gudari buruzko dokumentala eman zutenean beste zerbait ikusten egon zinenez, jendeak pentsatzen du zuk ez dakizula Vietnam non dagoen ere. Zoritzarrekoak dakiten guztia etengabe erakutsi beharra sentitzen dutenak. Zorionekoak bizitza, jakituria eta umorea bateragarriak direla ulertu dutenak; hori ikasi dutenek gehiago dakite.

Naturala

2012-02-09

Bertsolaritzako irakaslea nintzela, bariku arratsaldeetan, gora-goraka hasten zirenean, «ia, umeak, zagoze natural», esaten nien ikasleei. Behin Lekeitioko mutil batek galdetu zidan ea zer zen natural egotea, eta ez nuen erantzuten jakin. Ez da erraza esplikatzen. Izan ere, bakoitzaren sineskeren edo heziketaren arabera, oso gauza desberdina da naturaltasuna. Esate baterako, guri umetan abadea etortzen zitzaigun eskolara erlijio klaseak ematera eta munduko gauzarik naturalena balitz legez esan zigun mundua Jaungoikoak sortu zuela. Harentzat historian ez da ezer naturalagorik gertatu gizakiaren sorrera baino: Jaungoikoak sortu zuen gizona eta haren saihetsetik emakumea. Ez zuen dudan jartzen Jesukristo uraren gainetik oinez ibili zenik, eta sinesmen osoz esan zigun Loten emaztea gatzezko estatua bihurtu zela Sodomatik ihesean zihoala atzera begiratu zuelako. Era berean, abade hori parte den elizak uste du sexu bereko pertsona biren arteko sexu harremanak ez direla naturalak. Gero eta gehiago hitz egiten dute komunikabideetan elizgizonek, eta gehienentzat, umeak egiteko ez den sexu harremana naturaren kontra doa. Hori bai, Ama Birjina sekula larrutan egin gabe erditu zela sinestea eta sinetsarazi nahi izatea munduko gauzarik naturalena da.

Inhabilitazioa

2012-02-10

Beste batzuek asmatu bazuten ere, berak egin zuen ezagun *guztia ETA da* leloa. Euskal Herrira etortzen zen bakoitzean 20-30 etxetako atea botatzen zituen Poliziak. Bolada batean ematen zuen euskaldun gehiago zirela haren bulegotik pasatutakoak pasatu ez zirenak baino. Guztia libre izan zuen. Egun batean, baina, ez dakit nik zergatik oso ondo, hain maite zutenen kontrako kasuak ikertzeari ekin zion. Eta hor, elizarekin topo egin zuen, gaztelania garbian esaten den moduan. Garzonen izen ona ez da hain ona izan harrezkero. Lehen, Espainia guztiak maite zuen, baina, orain, gehien maite zutenek kendu dute paretik. Ez zituen inoiz Euskal Herriaz harantzagoko hautsak harrotu behar: hemen balio duenak Espainian ez du balio, konpañero. Orain, sentimendu kontrajarriak ditut. Ez, ez erratu. Ez dit Baltasar Garzonek penarik ematen. Kontua da une batez pentsatu dudala hobe izango lukeela Espainiako justiziak —hala deitzerik baldin badago behintzat— orain dela hogeitun urte inhabilitatu balu. Hala ere, pentsatzen jarraitu dut, eta eskuak burura eraman ditut. Irudipena dut, Garzon epaile kutuna bistatik kentzeko ausardia izan badute, haren lekua betetzen ari den beste epaile kutun bat izango dutelako izango dela. Eta badakizue, litekeena da okerrena oraindik ikusi gabe egotea.

Murriztu

2012-02-11

Umetan irakatsi ziguten artoa mieztu egin behar dela. Ez dakit aditz hori esateko beste modurik etxean ikasi nuena baino, baina murrizteak balio dezake sinonimo gisa. Izan ere, hauxe da mieztea gutxi gorabehera: artoa ereiten denean, behar baino ale gehiago jartzen dira zuloan, baten batek indarrik hartuko ez balu ere, eta gero multzoka ernetzen da. Multzo guztiak batera ezin duenez behar den moduan gorantz egin, landare batzuk kendu egiten dira. Ez dakit baserritarrek onartuko luketen azalpen sinple hau, baina horretan utziko dugu. Murrizketei buruz politikariek kontatu diguten ipuina ere antzekoa da: ezin diogu gastu guztiari aurre egin aurrekontuetan daukagun diruarekin; beraz, lehentasunak ipini behar dira. Gertatzen dena da, baserritarrek sendoen dagoen landarea lehenesten duten moduan, politikariek ere euren interesik sendoenak lehenesten dituztela. Azkenean, belarra jorratzen dute, eta artoa sasira bota: gizarteak benetan dituen beharretara bideratutako partidetan murrizketak egiten dituzte, baina behar garbirik gabeko azpiegitura erraldoiak finantzatzeko badago dirua. Krisia egon badago, eta ez dut nik ukatuko murrizketak beharrezkoak direla, baina ez gaitzatela engaina: eurek gura dutenerako majo aurkitzen dute dirua ez dagoen lekuan ere.

Zapaldua

2012-02-12

Zapaltzen gaituen zera handi horren presentzia handiegia da euskaldunontzat: nortasun agirian daramagu, gure hizkuntza ulertu nahi ez duen funtzionario bakoitzarengan dago, animatzen ditugun futbol taldeek nazio arrotzetako ligetan jokatzearen erruduna da... Hori nahikoa ez, eta askotan, bizitzak berak areagotu egiten digu zama hori. Espainiako faxisten altxamenduan parte hartu zutenak eta berrogei urtez gure bide bazterrak hildakoz bete zituztenak ohean etzanda itxaron zioten heriotzari, lasai; adinduta. Espainiako demokraziak, demokrazia izan balitz, epaitu eta espetxeratu beharreko guardia zibilei domina eman die. Herriaren dirua ostu duten politikariak enpresa handien zuzendaritzetan kolokatu dituzte, eta guk, lubakian gordeta, hori guztia ikusi dugu gure begiokin. Euskal preso politikoek aspaldi behar zuten Euskal Herrian, kalean, etxean, baina ez daude. Eta orain pankartaren atzeko pauso isiletan bide lagun izandako Juan Mari joan egin zaigu; honezkero etxean behar lukeen semeari azken besarkada eman gabe. Orain ere zapaltzaileak egin du zati handi bat, aita eta semea behar baino gehiago urrunduz fisikoki, eta bizitzak egoera errematatu du. Nahi duzuen esango duzue, baina ez da justua; bizitza ez da batere justua zapalduokin.

San Balendin

2012-02-14

Gaurkolako egun batez maitasunezko postalen lehiaketa bat irabazi nuen behin. Etxetik urrun nengoen, lagunik gabe, eta komunitatean integratzeko modu bat izan zen parte hartzea. Ez nuen kontzientzia arazorik izan saria hartzeko. Behar bada etxeok ez nindutelako ikusten, nor eta ni, San Balendinen txatxukeria elikatzen; edo behar bada saria goxoa zelako: kaja bete gominola. Sariarekin batera hartu nuen bizitzan jaso dudan maitasunezko postal bakarra ere. Idatzi zuenaren arabera, gauza on asko nituen, eta batez ere harrituta zeukan nire barreak. Oso gauza *gorgeous* omen zen Onintza barreka. Irakasleari galdetu nion hitz horrek zer esan nahi zuen, eta, nik uste nuenaren kontra, zerbait zoragarria zen. Kosta zitzaidan hankekin lurra ukitzea tarte batez, baina halako batean postalaren egileak forma hartu zuen, izen-abizenak... eta kontuak enkantua galdu zuen. Etxetik kilometro askotara nengoen, lagunik gabe, eta komunitatean integratzeko modu bat izango zen baietz esatea, baina ez zitzaidan atera, ez nuen nahi. Postala hartu, etxera itzuli, sofan eseri, eta gominolak jan nituen telebistaren aurrean. Ez dut harrezkero maitasunezko postalik ez idatzi ez jaso, baina zenbat aldiz eseri naizen telebistaren aurrean gominolak jaten!

Zerbitzua

2012-02-15

Agurtzaneren tabernara sartzea zoragarria da; batez ere, barran bera dagoenean. Zimur bakoitzean muxu bat gordeko balu bezala begiratzen dit, eta barraren atzetik irten eta besarkadak ematen dizkit berezi sentiarazteraino. Ze guapa zatozen gaur ere, esaten dit. Neguan pertsiana gutxi altxatzen diren herri batean dago Agurtzaneren taberna, itsasoaren ondoan. Afaltzera geldituko zarete? Agurtzane, zenbat da gurea? Nik zuenera noanean ez dut ordaintzen eta hauxe da nire etxea, eta zuek nire lagunak zarete. Hala da: taberna egin aurretik zen haren etxea Txoberne, eta guk haren lagunak izateko zortea daukagu. Erretiroa hartzeko adina badauka, nahiz eta ez duen ematen; baina ez du erretiratu nahi. Kostako herri batzuetan asteburuetan eta udan bakarrik zabaltzen dituzte tabernak, baina Agurtzanek egunero eskaintzen die zerbitzua lanetik deskantsua hartu nahi dutenei, uda pasatzera kostaldera joaten direnei, gaur mozkortzeko gogoia dutenei, atzoko ajea pasatu nahi dutenei, lagunei, maite dugunoi. Gutxi garenean ere, atea zabaltzen digu. Taberna ulertzeko beste modu bat dauka Agurtzanek: ez du diruagatik bakarrik egiten. Eskerrak! Txoberneko bezerook, bi aldiz bizita ere ez genuke dirurik izango haren zerbitzu atsegina eta bezeroenganako arreta ordaintzeko.

Gazteluak

2012-02-16

Denok eraiki dugu noizbait gazteluren bat airean: lurrik gabe, porlanik gabe, zutaberik gabe. Guztioi erori zaigu noizbait gazteluren bat, eta ez umetan bakarrik. Ezagutzen dugu norbait eta gustatu egiten zaigu; asko, izugarria. Motxila beteta daukagu, mina hartzeak beldurra ematen digu, ezetzik ez dugu jaso nahi, eta, gainera, lotsatu egiten garenez gauzak zuzenean esaten, indirektak botatzen dizkiogu. Ez zaigu burutik pasatu ere egiten zer sentitzen duen galdetzerik, badaezpada. Haren aurrean ahulegi ez agertzearren, ez dugu esaten geuk zer sentitzen dugun, baina intuizioak hala dioelako-edo, ziur gaude guk bota dizkiogun indirekta guztiak ulertu dituela. Orduan pentsatzen dugu berak esaten duen guztiak ere bigarren zentzua duela, eta, polita mundu guztiari deitzen dion arren, guri desberdin esaten digula, eta Facebooken jartzen dituen kanta guztietan identifikatuta sentitzen gara, eta aurrez aurre dugunean urtu egiten gara, eta esango genioke heldu gogor berton erori behar dut-eta, baina ume batek baino azkarrago eta zentzu gutxiagorekin berba egiten dugu, eta azkenean nik esango eta zuk esango konturatzen gara ez dagoela ezer; edo egon dena hoztu egin dela. Airean eraikitako gazteluak ez erortzeko modu bakarra sentitzen duguna egitea da.

Mozorroa

2012-02-17

Beti gustatu izan zaizkit asko inauteriak, baina arrazoia ez dakit. Umetan esaten ziguten inauteriak aproposak zirela urte guztian izan nahi genuen hori izateko. Azalpen polita da ezer ulertzen ez duen umearentzat, baina ez dakit nik hori den mozorroak estaltzen duena. Ez dut uste mozorrotu naizen gauza guztiak izatea gustatuko litzaidakeenik: ijitoa, margolaria, Jorge Javier Vazquez, lamina, erromatarra, *Los Cinco Bilbainoseko* kidea, eskalea, *on line nago* iragarkiko gizona, Albako dukesa, pailazoa... mozorro horiek janzteak bestela egingo ez nukeen zerbait egin dezadan ahalbidetuko zuten noizbait, baina ez dute erakusten izan nahiko nukeena. Batzuetan, negarrari eusteko indar izugarria egiten dut, pentsatzen dudalako negar egitea ahuldadea dela, eta jendearen aurrean gogor azaldu behar dela irakatsi zidaten. Eta gogor-gogorra izan nahi nuke, baina ez naiz. Eta zenbat aldiz egin ote dut barre benetan min egin didaten gauzen aurrean! Barrearen moduko maskararik ez dago: lotsa, beldurrak eta mina estaltzen ditu askotan. Denborarekin ikasi dut inauteriak gozatzeko egunak direla; udaberria laster datorrelako pozteko egunak. Benetako mozorroak, izan nahi genukeena estaltzen dutenak, egunero-egunero janzten ditugu.

Momentuak

2012-02-18

Irentsi behar nuen harrotasuna, barkatu behar nion, ridikuloa izanda ere esan behar nion lehenengo gaueetik maite dudala. Momentua pasatu eta gero damutzea alferrik da. Bai, badakit errazagoa dela teoria praktika baino. Miretsi egiten ditut ateratzen zaiena momentuan bertan egiten dutenak. Esate baterako, lehenengo batean Bilboko erreka hegaletik burumakur nindoala emakume bat hurreratu zitzaidan. Egun txarra neukan, eta pentsatu nuen, «hauxe behar dot orain, kaleren baten bila galdua dabilen baten bat». Bada, ez. Barkamena eskatu zidan, eskutik helduta, ez zidala denbora asko kenduko esan zidan, egunero irakurtzen ninduela eta asko gustatzen zitzaiola idazten nuena. Pentsarazi egiten diodala ulertu nion, begiak zabal-zabal, harrituta. Eguna alaitu zidan; goizean izandako eztabaida guztiak ahaztu nituen, eta handik aurrerako pasiera burua jasota egin nuen. Hamar minutu lehenago asko gustatzen zaidan musikari bat ikusi nuen Boulevard kafetegiaren parean. Irrikaz nago aspalditik zerbait esateko, baina ez nion ezer esan. Momentuan eutsi egin nion inpultsoari astuna ez izatearren, zorotzat ez hartzearren. Baina, agian, nik ere eguna alaituko nion. Orain ez dut jakingo. Momentu bi haiek pasatu ziren bezala pasatu ziren, eta kito.

Harresiak

2012-02-19

Erresumaren geografia mugatzen zuten harresiek lehen, eta txaleta egiteko erosi dugun terrenoa noraino heltzen den erakusten dute orain. Komentuek eta monasterioek harresiak izaten dituzte, eta guretzat apaingarri hutsa dira, baina barruan bizi direnentzat ezinbesteko egiturak dira kanpoko tentazioei lepoa emanda bizi ahal izateko. Harresiak ez dira hutsean eraikitzen, zerbaiten inguruan altxatzen dira beti, eta horrek, kanpotik begiratzen dugunean barrua ikusi ezinak, erakargarri egiten ditu. Zer gertatuko ote da Alcazarrean? Zer gertatuko ote da palazioko alkobetan? Eta pertsonok, geuregandik ateratzen ditugunez munduan egin ditugun obra eder guztiak, geure buruari ere eraikitzen dizkiogu harresiak. Badago horma handiaren atzean ezkutatuta bizi den jendea, eta haren begiek ez dakit nolako mezu misteriotsuren bat dutelakoan, urteak ematen ditugu horma apurtu nahian. Pentsatzen dugu horma horren hoztasunak bihotz on bat babesten duela, eta bilatu egin nahi izaten dugu. Baina nik bihotza azalean daukat, eta inorenaren bila hormak botatzen hasten naizenean, neurea apurtzen dut. Harresien atzean ezkutatu nahi duenak horretarako eskubide osoa du, baina neuk ere ikasi dut kanpotik begira gelditzen; sartu gabe. Harresiek beti ez baitituzte gauza ederrak gordetzen.

Egunkaria

2012-02-21

Paper zuri bat hartu eta egin pilota bat. Gero papera alferrik galtzen ari zaretela kargutzen zaretenean, saiatu berriz ere paper zuria leuntzen. Ezingo duzue, jakina. Plantxatuta ere, paper horrek bistan izango du noizbait pilota bat egin zenutela berarekin. Minaren arrastoa hantxe izango du beti. Halako zerbait gertatu zitzaigun *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean. Hasieratik dakigu BERRIA sortzen erabili genuen indarra lehenagotik hamar urtean egin genuena indartzeko behar genuela. Hasieratik dakigu zuzendaritzako zenbait kide torturatu egin zituztela euskaldun gisa logikaz eta justiziaz geneukan ametsetako bat gauzatzearen: hau da, goizetik gauera euskaraz bizi nahi izatearren. Hasieratik dakigu honen aurretik egon zela beste bat itxi egin zutena, eta orain ere, gauzak ez baditugu haiek nahi duten bezala egiten, daukagun euskarazko egunkari bakarra itxi egin dezaketela. Hasieratik espero genuen *Euskaldunon Egunkaria* frogarik gabe ixteak ez ziela ondoriorik ekarriko, baina barkamenik ere ez dute eskatu. Amorrua ematen dit epaileari arrazoia eman gabe baina arrazoirik ez duela esatera ausartu gabe ibili zirenak euskarazko berripaperarekin egin zuten pilota leundu nahian ikusteak orain. Alferrik da; mina eginda dago.

Amodioa

2012-02-22

Gaztelaniaren hurbiltasunak ekarriko zion euskarari gauza onik, baina euskaldunon harremanetan eragin eskasa izan dute erdarakadek. Euskaldunok berbakoak izateko fama daukagu, baina sexu kontuetan estereotipo latzak eraiki dizkigute: kosta egiten zaigu sentimenduak azaltzea, Euskal Herrian ez da ligatzen... ez dut esango hori hala ez denik, baina gaztelaniak badauka errua horretan. Ez dakit historiako zein momentutan, eta nork erabakita, baina egun batean, gaztelaniaren eragin garbiz, larrutan egiteari sinonimo poetikoa asmatu genion: amodioa egin. Baditut lagunak halakorekin eta bestelakorekin amodioa egin dutela kontatzen didatenak, baina nik nahiago dut halako beharlekurik ez hartu. Izan ere, amodioa gaizki edo ondo, eginda dago. Aspaldiko kontua da. Asko jota, harremanak ondo ateratzen direnean edo pasioak denboran irauten duenean, amodioa berrasmatu egingo dut izara artean lantzean behin, baina gainontzean oso sinplea naiz. Nahiko konplikatua da berez aurrean biluzik duguna ulertzea, mugimenduak sinkronizatzea, gustatzen zaiguna zer den esplikatzeko, bera gu bezain gustura sentiaraztea eta gaurkoa amaitu eta gero biok zer nahi dugun definitzea, gainera amodioa ere egin behar izateko. Barkatuko didazue, baina larrua jotzea askoz errazagoa da.

Jaio

2012-02-23

Inauteri gaua zen, gaurkolako egun batez. Ez dakit zelan gertatu zen, ez dakit aurreko minutuetan zer gertatu zen, baina badakit esnatu nintzenean errekan nengoela txikitutako kotxearen barruan. Anbulantziako gizonak esan zidan pozik egoteko, mirari bi egin nituela: hartutako kolpearekin bizirik irtetea, eta errekatik neu bakarrik ateratzea sastraka artetik gora. Negar eta barre egiten nuen ambulanzian ospitalerako bidean: negar ikarak eraginda edo, eta barre bizirik nengoelako. Bizitzak bigarren aukera bat eman zidan, berriz jaio nintzen. Baina lehenengo jaiotzan ez bezala, bigarreanean oso kontziente nintzen heriotzaren gertutasunaz eta gaurko egunez urtero egiten dut hausnarketa bera: aukeratu zure lehentasunak ondo, maja, segundo bat nahikoa da guztia amaitzeko. Arazoa da otsailaren hogeita hirua urtean behin bakarrik izaten dela, eta gainerako egunetan, ez beti baina batzuetan bai, jan egiten ditut lehentasunak urgenteak diren gauzak egin ahal izateko. Ez dakit zenbat aldiz jaio beharko dudan eguneroko zurrunbiloari ihes egiten ikasteko, baina nire inguruan jende asko dabil neure antzean. Eta ez, askoren gaitza ez da kontsolamendurako arrazoia: askoren gaitza epidemia da. Kasu honetan arriskutsua gainera.

Hil

2012-02-24

Askotan ikusi dut neure burua zurrumbilotik irten ezinda: egiteko mila gauzarekin, aldi berean leku batean baino gehiagotan egon guran, zertan ari naizen kalkulatu ezinik, lehentasunak zehazteko larri... halakoetan, amak beti esaten dit ezetz esaten ikasi egin behar dudala, derrigorra hiltzea baino ez dela, eta egingo dituela gauzak beste norbaitek. Eta barruan badakit halaxe dela: derrigorra hiltzea baino ez da, eta, seguruenetik, egongo dira garrantzitsutzat hartzen ditugun inportantziarik gabeko gauzak. Areago, badira gauzak nik baino hobeto egiten dituztenak. Baina teoria horren aurrean, oker ari garela esaten zigun gure herriko gizon batek. Haren arabera, derrigorra ez da hiltzea, derrigorra hil arte bizitzea da. Jakina, hil arte bizirik egotea eta hil arte bizitzea ez dira derrigor sinonimoak. Eta bizitzeak horixe dauka: batzuetan, ez beti, zurrumbiloak harrapatzen gaituela. Nekatzea, nazkatzea, maitatzea, negar egitea, barrez lehertzea, min egitea eta hartzea, poztea, tristatzea, estresatzea, lasaitzea... guztiak dira bizi garen seinale, eta zurrumbiloa kontrolatzen ez dakidan arren, beharrezkoa dut bizitzea. Aukera bat egin behar dut, eta nahiago dut tarteka zurrumbiloari irensten utzi birizik egotearekin konformatzea baino. Hil arte gutxienez, bizi egin nahi dut.

Lehentasunak

2012-02-25

Ez omen dago dirurik. Gizarte laguntzak murriztu egin dituzte, baina AHTa ordaintzeko dirutza ederra bideratuko dute aurten ere. Ez hori bakarrik, AHTaren trenbideak txikitu dituen herriei diru laguntzak emango dizkie Espainiako Gobernuak: isilik egon daitezen edo. Ez dut sinesten dirurik ez dagoenik. Krisia gora eta krisia behera, guretzat beharrezkoak diren gauzak uzten dituzte egin gabe; noski, haientzat beste gauza batzuk dira beharrezkoak. Ez dago dirurik Euskal Herriko txirrindulari itzulia eta Donostiako klasikoa finantzatzeko, baina badakigu Espainiako Itzuliko etaparen bat Euskal Herrian amaitzeak ilusioa egiten diela. Euskaldunon lehentasuna ez da Espainiako Itzulia; guk badugu geurea. Guk finantzatu nahi dugun itzulia hemen hasi eta amaitzen dena da, baina geure gobernu triprobintzian ere ez dugu agintzen. Euskaldunontzat inoiz ez dago dirurik. Apustu egingo nuke espainiarrei mila aldiz bururatu zaiela Vueltako etaparen bat Donostian amaitzea: Kontxa atzean dagoela TVE1eko erreportariak sekulako kronikak egingo lituzkete zuzenean. Euskaldunon lehentasuna ez da Espainiako Itzulia, baina antza denez, espainiarren lehentasuna gu izorratzea da, eta guk ez dugunez agintzen, izorratzea baino ez zaigu geratzen.

Isiltasuna

2012-02-26

Goizean jaikitzen garenetik berriro oheratzen garenera arte, zarataz inguratuta bizi gara: autoak, barbaroa, kaleko lanak, trena, musika... Eta ez bakarrik hirian, herrian ere badira zaratak: txorien txioak, errekaren hotsa, behiak, haizea, ardiak... Bake gutxi izaten dugu egunak irauten duen denboran. Egun guztian izaten ditugu belarriak soinu beteta, eta, hala ere, etxeo bakardadean kanpoko atea itxi arte ez gara konturatzen. Halako batean, lasaitu egiten gara, ez dakigu garbi zer den, baina zeruan gaudela iruditzen zaigu: noski, etxean gaude eta ez dago zaratarik. Harrigarria dirudi, baina zaraten munduan gure belarriak harritzen dituen isiltasuna da. Bat-batean ezer ez entzuteak erne jartzen gaitu, eta gustatu egiten zait sentazio hori. Lekutik ateratzen naute isiltasunean lasai dagoenari bakea lapurtzen diotenek «zer pentsatzen ari zara?» galdetuz; auzo lotsa ematen didate herrian dauden hitzaldi, batzar edo dena delako guztietan ezer garrantzitsurik ez esateko beti berba egiten dutenek; eztabaidak irabazteko denek baino ozenago berba egiten dutenak ez zaizkit gustatzen; urduri jartzen nau igogailuetan derrigor zerbait esan beharrak. Isiltasuna benetan da gauza ederra, eta neugandik hasita, saiatu behar genuke, merezi duen zerbait esateko bakarrik apurtzen.

Frikiak

2012-02-28

Ni frikia? Beste batzuek sudokuak egiten dituzte, Onin, eta nik hau!», esaten dit beti lagun batek. Arrazoia du: bakoitzak daki non dagoen bere gogoko aldapa. Niri egunero joaten zait orduren bat sare sozialetan. Azkar eta urrutira komunikatzeko aukera ematen didate, eta, jende asko dagoenez Facebooken edo Twitterren dena kontatzen duena, gauza asko jakiten ditut aulkitik jaiki gabe. Edozein lekutan ikusten dut jendea sakelakoa atera eta egiten ari dena idazten. «Zelako frikiak diren», esaten didate sudokuak egiten orduak ematen dituzten lagun batzuek. Nire pozerako, ordea, euskal twitterro frikiek maite naute eta ezin izan diot kontua zabaltzeko tentazioari eutsi. Orain bizio doblea daukat sare sozialetan: frikitzen ari naiz. Askok esan didate sare sozialak uzteko, kontrolerako eta kuxkuxeatzeko baino ez direla. Zenbait gunetan gaizki ikusita dago frikismo hau, antza. Harritzen nau: ni askoz ere gehiago biluzten naiz hemen, sare sozialetan baino, eta inork ez dit horregatik friki deitzen. Jendeak gutxiesten dituen lekuetan ari direnei deitzen die frikiak, baina nik maite ditut frikiak. Nahiago ditut, munduko gauzarik arraroenari lotuta bada ere, pasioaren bat duten lagunak, edozein gauzaren aurrean sorbaldak jasotzen dituztenak baino.

Harriak

2012-02-29

Egin aproba. Esan norbaiti, lurrean ahoz behera zaudela, erreka harriak jartzeko bizkarrean, ipurdian, izterretan eta hanketan. Egon apur batean, eta gero esan harriak ipini dizkizunari kentzeko: ea gai zareten guztiak noiz kendu dizkizuen igartzeko. Nik, zutitu nintzenean, oraindik, harriak neuzkan bizkarrean. Lurrera erortzean atera zuten zaratagatik ez balitz, ez nuen sinetsiko. Eta lurrean zeuden harriei begira urrun joan zitzaidan gogoan. Behin eta berriro esan zidaten neska politak beste batzuk zirela, eta sinetsi egin nuen. Irakatsi zidaten zaindu behar zela familia, lagunak, gizonak, zaharrak, eta azkenean neure burua zaintzeaz ahaztu naiz. Lehenengo aldiz «honeek enbrak» entzun nuenean mindu egin nintzen, bigarrenean haserretu, bosgarrenetik aurrera herri guztiarekin haserretu nintzen, baina azkenean, entzunaren poderioz, berba bat baino ez da niretzat. Argi esan zidaten noiz dagoen ondo hankak zabaltzea eta noiz ez, noiz maitatu behar nuen, noiz hitz egin, noiz dantzara irten, noiz utzi karrera profesionala eta zenbat urte baino lehen izan ama. Motxila harriz bete zidaten, eta eskerrak lantzean behin nire barruak oihera egiten didan. Harriek nire barruan eztanda egiten dutenean ateratzen duten zaratagatik ez balitz, ez nuke igarriko aldean daramatzadanik.

Azalpenak

2012-03-01

Inork ez zigun galdetu jaio gura genuen, eta geuk aukeratu gabe jaio ginen batzuk eme eta besteak ar. Ez ziguten aurretiaz esan zein izen jarriko ziguten, eta ez ziguten galdetu ea belarritakoak jartzerik nahi genuen edo ez; ezta zein eskolatan matrikulatzea nahi genuen ere. Ez digute sekula galdetu gure zergekin monarkia mantendu nahi dugun, eskoletan irakasten den erlijio bakarra kristaua izateari ondo deritzogun edo herri guztietan polizia izatea beharrezko ikusten dugun. Ez digute egundo iritzirik eskatu ejerzitoa guztion diruarekin mantentzeari buruz, eta bankuan dauzkagun lau txakur txikiak guri ezer esan gabe mugitzen dituzte batera eta bestera. Ez digute ezer galdetu etorkinen legea idatzi aurretik: maite ditugun, gure etxean nahi ditugun, ondo ikusten dugun ematen zaien tratua, benetan pentsatzen dugun gure lana kentzera etorri direla... inork ez digu inoiz ezer galdetzen, eta guri zuzenean eragiten diguten mila erabaki hartzen dira. Hori bai, guk ezer egin behar dugunean dena dira galderak, eta milagarren azalpenean ere, oraindik, administrazioko eskailera berean jarraitzen dugu. Hara, aspalditik egiten diet amaren galderei intsumisioa, baina heldu da ordua beste guztiei ere egiteko. Azalpenak nahi dituenak bere ekintzak arrazoitu ditzala lehenengo.

Hiru milioi

2012-03-02

Demokrazia hiru milioi. Hala zuen izena hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko Ezker Abertzaleak asmatu zuen enegarren izenak. Estatistiken arabera, euskal herritarrok ez gara hiru milioi baino gehiago; beraz, guztiontzako demokrazia eskatzen zuen hautes elkarte horrek. Hala ere, badira, agi denez, Ezker Abertzalea baino demokratagoak diren erakundeak, instituzioak eta gobernuak. Are gehiago; oro har, euskaldunok baino askoz ere jende zibilizatuagoa bizi da gure inguruan, eta demokraziak zein elkarbizitzaren arau logikoek hala diotenez, askatasuna eta D3Mko kide izatearren hainbat lagun atxilotu zituzten. Apirilean hasiko da haien kontrako epaiketa, eta atzo prentsaren aurrean agertu ziren berriro ere. Fiskalak urte askotako zigorrak eskatzen ditu haientzat guztientzat, baina demokrazia aho betean darabilten hiru milioi euskal herritar horiei ez die askorik ardura. Kosta egin zitzaidan auzipetuei buruzko notizia orrialde digitaletan aurkitzea. Ez dut kazetarien lana kritikatu nahi; izango ziren berri inportanteagoak. Athletic eta Manchesterren arteko partidarako sarrerak erosteko ilara luzea egon zela, esate baterako. Hori da, antza, hiru milioi euskal herritarrak gehien arduratzen dituen.

Grabaketa

2012-03-03

San Frantzisko elizatik hurbil dago jenderik gehien. Jendea badago, haien bila. Bidali hona jende gehiago eliza ostea ere zaintzeko. Orduan, interesatzen zaizuna atzetik harrapatzea da? Bai. Elizan gaude, zer egingo dugu, sartu? Bidali indar gehiago, ez badator errefortzurik armak erabili beharko ditugu. Hustu eliza! Ezin dugu eliza hustu, beteta dago. Iritsi zaizue eliza husteko agindua? Bai, J-3ak dauka, eta husten hasita daude. Pena izan da neu bertan ez egotea. Komunikatu nahian nabil, baina inork ez du erantzuten, elizan egongo dira lehoien moduan borrokan. Hiru mila tiro baino gehiago bota ditugu. Pentsa nola dagoen kalea. Eskerrik asko, zerbitzu ona. Esan Salinasi historiako egurrik handiena banatu dugula, hemen sarraskia gertatu da. Ados, ados. Benetako sarraskia. Itzulpena librea da (Eusko Jaurlaritzaren modari jarraituz), baina grabatuta dago 1976ko martxoaren 3an Gasteizen gertatu zena. Berdin dio. Gau hartan lasaien lo egin zuena zaharraren zaharraz hil da Galizian duela gutxi; ohean, nola ez. Ez du barkamenik egundo eskatu, ez du biktimarik egundo onartu. Ez onartzearren egindako krimenak ere ez ditu onartu. Baina berdin dio: Gasteizen hil zituzten bostak langileak baino ez ziren, eta Manuel Fraga demokrata handia izan da.

Ni naiz

2012-03-04

Oso ondo ikasi dugu gure bizitzaren zentroa geuk izan behar dugula, eta geure burua maitatzen ikasi behar dugula besteek maita gaitzaten. Eta ondo dago nor garen jakitea eta gure barrura begiratzea; baina teoritik praktikara salto egin dugunean besteez ahaztu gara. Badakit beti besteei begira dagoenak ez duela ezer onik egingo bizimoduan, baina irudipena dut gu garen hori baino gehiago landu dugula eman nahi dugun itxura hori. Ez dago ondo eskatzen dizkiguten azalpen guztiei «ni horrelakoa naiz» simple batekin erantzutea. Askotan izan dut gogoia hori esaten didanari muturreko eder bat emateko, eta bisigu begien aurrean lasai esango nioke: «Zuk horrelakoa zarelakoa izorratu nauzu, ezta? Bada, ni horrelakoa naiz, ez dakit gauzak bestela konpontzen». Garena izan behar dugu, ez gehiago ez gutxiago, baina komunitatean bizi gara, eta irla desertu batean geu bakarrik bizi ez garen artean, jakin behar dugu komunitate horretako kide guztien askatasuna zaintzen geurearekin batera. Total, amorrua ematen didatela horrelakoak direlako berekoikeriaz jokutzen direnek, nahi dutena esaten dutenek, gauzak lortzeko erabili egiten nautenek edo bordeak direnek. Eskubide osoa daukat, gainera, amorrua eman diezadaten: ni ez naiz horrelakoa.

Erreferenteak

2012-03-06

Bizkaiko bertsolarien txapelketa bateko finalean boxeolariaren azalean jarri ninduten. Gaia zaila egin zitzaidan ez dakidalako nik boxeolari buruz ia ezer. Lagun batekin txapelketaren balorazio pertsonal-emozionala egiten ari nintzela, gaiaren zailtasuna azaldu nion, baina bera ez zegoen ados: haren ustez, gaia zaila egin zitzaidan boxeolariaren lekuan ez nuelako neure burua ikusten, mutil bat baizik. Nik, ezetz: «Zu boxeolaria zara», esan zidala gai-jartzaileak eta nik Onintza ikusten nuela boxeoko eskularruak jantzita. Berak berea: han egon zen jende gehienak, nik barne, mutila ikusten genuela. Oraindik oraintsu, bertso afari batean futbolari buruzko gaia jarri ziguten. Ordura arte ez, eta, orduan, mutil bihurtu ninduten momentu batez. Norbaitek oharra pasatu zion gai-jartzaileari eta, «barkatu, semea ez, alaba», esan zuen. Plazaz plaza egin dudan denboran, halako mila batu ditut, eta, kontatzen hasten naizenean, jendeak esaten dit adibide txikiak direla, ez dutela ezer esaten, banaka batzuen joera dela. Ez. Ez dugu neska boxeolaririk ezagutzen, eta oraindik ere kostatzen zaigu futbola nesken gauza ere badela onartzea. Halako adibideek erakusten didate oraindik leku asko daukagula irabazteko, eta irabazi ditugun lekuetan ez digutela erreferente izaten uzten.

Lekua

2012-03-07

Zenbat bider pasatu ote zait burutik bertsolaritza ez dela nire lekua! Nerabeak ginenean bertsotan ausardiaz egin genezan «paparra atara eta altu kantau», esaten ziguten, eta nik, «kaka!», pentsatzen nuen, «orain guztiek begiratuko didate nahi ez dudan lekura!». Telefonoz deitu, eta bertsotarako neska bat behar duela esan didan bakoitzak derrigortu egin nau kolektibo baten parte izatera: emakume bertsolariak. Hitzetik Hortzerako pantailan nire bularrek atentzioa ematen dutela entzun nuen behin; atera kontuak! Lehenengo paparra ateratzeko, eta gero, ezkutatzea ezinezkoa denean, haziogia omen! Entzunak entzun, bertsotan nagoela guztiak ondo egon behar duela sartu zitzaidan buruan: ez dezala inork esan arropen buruz ezer, bularrari buruz ezer, ileari buruz ezer... izan dezatela arreta bertsotan bakarrik. Eta orduan, etiketak aldatu egin ziren: erosiko zenuen zuk zerbait berria finalerako, nik uste nuen gaur *fashionago* etorriko zinela... zenbat aldiz pentsatu dudan euskaldun jatorrak buru-estuak direla eta zenbat aldiz haserretu naizen munduarekin. Baina ikasten ari naiz. Banabil neu izateko zirrikituak aurkitzen, eta kolektibotik ihes egin gabe gizabanakoari bide ematen, eta honela gustua ematen du!

Gaur eta beti

2012-03-08

Ez da egia agintean gaudenean emakumeok gizonak baino okerragoak garela. Ez da egia gizonezkoek larrutan egiteko guk baino desio gehiago daukazuela, eta larrutan norekin eta noiz egin nahi dugun erabakitzen dugulako ez gara izterestuak. Egia da gure ziklo hormonalaren arabera umore aldaketak izaten ditugula, baina horregatik ez gara ez desorekatuak ez histerikoak. Gezurra da gizon guztiak zaretela arrazionalak eta emakume guztiok garela pasionalak. Eta pasionalak izateak ez du esan nahi gure asmo bakarra kortejatu gaituen lehenengo mozoloarekin ezkontzea denik. Ez da egia ez zaizkigula pelikula pornoak gustatzen, eta ez dugula kanpairik jotzen. Amatasun sena ez da jaiotzatik daukagun marka bat, eta guk ez dakigu gizonek baino hobeto etxeko ekonomia kudeatzen; ezta haiek ere guk baino hobeto ekonomia orokorra kudeatzen. Esparruak konpartituz gero, guztiok izango ginateke gehiagorako gai. Ez da egia dibortzio legea guri laguntzeko asmatu zenutela: umeak amarekin hobeto daudela sinetsarazi zeniguten, eta orain guztiok gaude behar ez genukeen lege bati lotuta. Eme jaio nintzen, eta urteekin emakume egin naiz. Hala ere, ez ditut guri buruz asmatu dituzuen topiko guztiak irentsiko. Hori baino askoz ere gehiago naiz.

Kolektiboa

2012-03-09

Emakume futbolariak. Muniain, Aranburu, Griezman. Emakume sukaldariak. Eneko Atxa, Martin Berasategi, Karlos Argiñano. Emakume idazleak. Ramon Saizarbitoria, Harkaitz Cano, Bernardo Atxaga. Emakume politikariak. Arnaldo Otegi, Oskar Matute, Iñigo Urkullu. Emakume pilotariak. Abel Barriola, Juan Martinez de Irujo, Aimar Olaizola. Emakume irakasleak. Ramon Zallo, Mario Zubiaga, Josu Amezaga. Emakume dantzariak. Jon Maya, Igor Yebra, Oier Araolaza. Emakume poetak. Jose Luis Otamendi, Iñigo Aranbarri. Emakume kazetariak. Imanol Murua Uriñ, Iñaki Petxarroman, Iñaki Soto. Emakume zientzialariak. Albert Einstein, Alexander Graham Bell, Pitagoras. Emakume umoregileak. Anjel Alkain, Rowan Atkinson, Buenafuente. Emakume zuzendariak. Asier Altuna, Telmo Esnal, Alberto Gorritibeherea. Emakume astronautak. Yuri Gagarin, Neil Amstrong, Michael Collins. Emakume aurkezleak. Asier Odriozola, Xabier Euskitze, Kike Amonarriz. Emakume musikariak. J. Crisostomo Arriaga, Vivaldi, Beethoven. Emakume artistak. Nestor Basterretxea, Koldobika Jauregi, Anselmo Guinea. Emakume bertsolariak. Unai Iturriaga, Jon Maia, Aitor Sarriegi. Emakume alpinistak. Alberto Iñurrategi, Juanito Oartzabal, Alex Txikon. Emakumeen eguna. Ikusezinak garen 364 egun (aurten, 365).

Etxekoandreak

2012-03-10

Bizkaiko Foru Aldundiak Berdintasun Sariak banatu zituen martxoaren zortzian, eta aurtengo sarietako bat etxekoandreen kolektiboari eman zion. Guztien izenean Pilar Gilek hartu zuen saria. Mikrofonora hurbildu zenean, apenas ikusten zen atrilaren atzean: «Atril hau legeak egin dituztenek egingo zuten gure ahotsa entzun ez dadin, baina berdin dio. Ohituta nago ikus ez nazaten, baina ez entzun ez nazaten», esan zuen. Eta majo entzun genuen. Aldundiko ordezkariak aurrean egon arren, argi berba egin zuen: etxekoandreen lan baldintzak zein eskasak diren inoren etxean lan egiten dutenean, ze gutxi estimatzen den haien lana euren etxean lan egiten dutenean, ez daukatela langabeziarako eskubiderik, jasotzen dituzten diru laguntzak ez direla nahikoa... entzuten ari nintzela barre egin nion, baina egia ederrak esan zituen. Ez da bera ikusezina izatera ohitu duten emakume bakarra, ezta guztiek entzuteko besteek baino ozenago hitz egin behar duen bakarra ere. Sentsazio horiek han egon ginen neska askok izango genituen. Hala ere, nola aldatu den etxekoandreaken izaera. Oxala, gure amamek halako lekuetan berba egiteko aukera eta adorea izan balute neskame bidaltzen zituzten garaian. Asko falta da, baina, egin ere, bide luzea egin dugu. Zorionak, Pilar Gil; eskerrik asko.

Pasatu da

2012-03-11

Gaur amaituko da aste morea. Ala, nahikoa aldarrikatu dugu. Orain, berriro hitz egingo dugu gai unibertsalez; ez gara beti nesken gaiez berbetan egongo. Emakumeon askapenaren alde dauden gizonak arnasa hartuko dute: ulertzen ez dituzten sentimenduak ulertzen eta konpartitzen dituztela esateari utzi ahal izango diote. Instituzioek berriro gordeko dituzte kaxoian hain maite dituzten datuak: honenbeste emakume daude gure mankomunitateko zuzendaritzan, honenbeste emakumeri laguntzak indarkeria matxistaren kasuetan, hainbeste udaletan berdintasun planak. Zenbaki hutsak: ez dugu ikusten horien eraginik ez geuregan ez gure inguruan. Nahiko nuke bihartik aurrera egiten ditugun gauza guztietan ere gizarte osoa izatea presente, ez % 50a bakarrik. Hitzaldi bat antolatzen dugunean, eskolak ematen ari garenean, udaletxeko pleno aretoan esertzen garenean, tornuak egitera goazenean, aitona zaintzeko norbait kontratatzen dugunean edo goizaldeko bostetan garagardoz lepo gaudenean. Beti izan behar genituzke presente neskenak bakarrik direla pentsatzen dugun gaiak: berdintasuna, aukerak, desioak, enpoderamendua... ez dira emakumeen gaiak. Gizartearen beste % 50aren gaiak dira, eta, ondorioz, gizonaen gaitzat hartzen diren gaiak bezain unibertsalak.

Nork ulertu?

2012-03-13

Barre egin dut beti lagun bezala bakarrik maite nautela esan didatenean. Beno, barre aste bi pasatu eta gero, lehenengo momentuan negar ere egin izan dut eta. Izan ere, asko asko asko maite zaituen norbaitek, justu horregatik, maite zaituelako ezin izatea zurekin larrutan egin oso arraroa da. Diot nik maite banau, normalena nirekin larrua jo nahi izatea izango dela, ezta? Azken batean, nik ez dut hainbeste maite, baina desiratzen nago berarekin larrua jotzeko. Izan liteke ni itsusiegia izatea ere, horrela uler nezake bere barruak maitasun purutik tentsio sexualera dagoen saltoa eman ezin izatea. Edozein kasutan, nahiago dut ezetz esan diezadaten adornurik gabe: «Ez, Onintza, begira, ez dut zurekin larrua jo nahi. Nahi baduzu beste garagardo bat hartuko dugu!». Zoragarri. Horrela hobeto, bestela hainbeste maitasunekin nahastu egiten naiz. Eta hori gutxi balitz, Eusko Jaurlaritzak ere ni nahasten ari da. Hara, ikusi du Eusko Jaurlaritzak martxoaren 29an lanuztea egiteko arrazoiak badirela, baina ez da grebara aterako. Nork ulertu dezake hori? Barkatuko didazue, baina ez dut ezer sinesten. Pentsatzen dut, nire sinplean, nire xumean, benetan arrazoiak ikusten dituenak egin egingo duela greba, eta egiten ez duenak ez duela egingo arrazoiak ikusten ez dituelako.

Euskal Herrira

2012-03-14

Gipuzkoako zaborrak Euskal Herrira. Halaxe dio Gazte Sozialistek edo Sozialista Gazteek (ez dakit euskaraz nola diren) sare sozialetan zabaldu duten pegatinamuntaiak; argi baitago *Euskal Presoak Euskal Herrira* jartzen duen pegatinaren plagioa dela, mapa eta guzti. Poztekoa da sozialista zaharren ondorengoek Euskal Herria badela onartzea, baina triste da halako gai baten kontura bromak egitea. Ez dut inoren minarekin jolastea gogoko, eta nahiago nuke neurearekin inork jolastuko ez balu. Batzuentzat, baina, denak balio du. Larriena, ordea, Gipuzkoako zaborrekin egiten ari diren diskurtso txatxua da. Badakit Gipuzkoak birziklatzen ez duenarekin zerbait egin behar dela, baina, beste lurraldeetan ere atez ateko bilketa astiro-astiro sartuz gero, agian nahikoa izango da ditugun zabortegiekin eta errauste plantekin. Euskal Herria osorik hartuta ere, ez da herri handia; beraz, azpiegiturak bana ditzakegu gure artean. Esaterako, sei aireportu ditugu, eta gehienak txikiegiak dira ganorazko hegaldi eskaintza bat egiteko. Lurralde bakoitzak bere gauzak izatea ondo dago, baina halako azpiegitura handiez ari garenean, zabortegiak edo errauste plantak kasu, ondo kalkulatu behar dugu ze eremu geografiko daukagun eta zer behar dugun benetan.

Akabo

2012-03-15

Pronostiko guztien arabera, gaur mundua gelditu egingo da. Tira, mundua ez dakit, baina Bizkaia bai. Eta Bizkaia gelditzen bada, munduaren zati inportante bat geldituko da, ze arraiio! Espainiako selekzioak munduko kopa irabazi zuenean Madrilgo kaleetan pilatu ziren jarraitzaileek pena eman zuten; Espainia lur jota, eta haiek futbol selekzioari agurka. Gu ez gara horrelakoak. Gurea zaletasuna da: inoiz ez dira UEFAko partida bat ikustera Manchesterrera mugitu ziren beste jarraitzaile mugitu. Gurea da zaletasuna, eta ez Bartzelonakoen edo Madrilgoen histeria. Guk Athletic bihotzean daramagu. Gaur inork ez du arazorik izango. Gaur mundua gelditu egingo da laurogeita hamar minutuan, eta, ondoren, ikusiko dugu ea martxan hasten den edo ez. Gure mutilen eskuetan dago gure etorkizuna; nesken taldea ere badute, baina ez dago konparaziorik. Egia da, bertoko jokalaria izanda, arraroa dela gehienek euskararik ez egitea, baina ereserkia euskaraz da, eta bizkaitar guztiek dakigu. Zelan ez bada, Athletic gure ikurra izanda. Gaur mundua gelditu egingo da; eta futbola kulero azpitik pasatzen bazait ere, ezingo dut ezer egin, mundu guztia partidari begira egongo delako. Baina, noski, arazoa nirea da: nik histeria kolektiboa ikusten dut beste guztiek zaletasuna ikusten duten lekuan.

Erljioa

2012-03-16

Jesukristoren adinetik hurbilago nago hogeita hamabitik baino, eta ez dut ikasi. Jakin behar nuke honezkero ezin dela edozein gai edozein tonutan atera. Gai batzuen inguruan dugun iritzia gorde egin behar da nonbait; eta nik gorde ez. Kafe Antzokiaren aurrean marmarti betaurrekodun batek ondo deskribatu zuen lez, nire besaulkian jesarri lasai, eta idazteari ekin nion asteazkenean. Ez dakit zer pasatu zitzaidan burutik, baina Athletic zaleekin sartu nintzen. Eta orain futbolaren kontra hitz egitea *cool*-a omen denez, lagunak etsaitu egin zaizkit. Baina oso *cool*-a ez den norbaitek aspaldi esan zuen: gola zelaian, bakea lurrean. Nik ikusten nuena nola ulertzen nuen baino ez nuen azaldu, eta, hara, badirudi intelektualarena egiten hasi naizela orain. Bada, jakin ezazue gaur eta asteazkenean berdin pentsatzen jarraitzen dudala, eta prest nago edozein barra bazterretan nahi duenarekin eztabaidatzeko. Bart gauean mozkortu ziren lagunak mozkortu ez zirenen beste maite ditut, eta, marea hau pasatzen denean, berriro ere lasai hitz egingo dut haiekin futbolari buruz. Eta aurtengoz ere amaituko da liga, eta Real Madrileko zaleak Cibelesen ikusten ditugunean, «erotuta daude», esango dugu guztiok; bai atzo mozkortu zirenek eta bai mozkortu ez zirenek ere.

Jateaz

2012-03-17

Halako eta holako marroiak jaten ditugula esaten dugu askotan. Gustatzen zaigu kontatzea zein gaizki pasatzen dugun lanean, zein estresatuta gauden, zein pozik aldatuko genukeen. Ez dakit benetan esaten ditugun halakoak, hala Gabonetan loteria kontzientzia garbiz erosi ahal izateko geure burua konbentzitzen ibiltzen ote garen. Nik pentsatzen dut laneko marroiak direla jaten ditugun gauzarik gozoenetarikoa. Garratzagoak dira jaten ditugun hitzak. Ez sutsuki eztabaidatu ostean arrazoirik ez dugula ohartzean, edo bizitza osoan ezetz esan diogunari baietz esatean jaten ditugunak; ez. Esaten ez ditugun gauzek ixten digute urdailaren atea. Gainera, sinestezina dirudien arren, sentimendu onak dira gehien isiltzen ditugunak. Txarra beti ateratzen dugu, nola edo hala; besterik ez bada leher egiten dugunean. Ona ordea ez. Gutxitan aitortzen diogu norbaiti maite dugula, gutxitan esaten diogu lagun bati haren falta dugula... ez dut ulertzen zergatik. Desioa gorde egiten dugu beldurreratik, edo ezetz esan ez diezaguten, edo nork jakin zergatik. Harrigarria da nola jaten ditugun berba politak inork pentsatu ez dezan harekin zerbait gehiago nahi dugula, edo inork pentsatu ez dezan tuntunak garela, edo inork pentsatu ez dezan ahulak garela. Zelan ez dugu, bada, bihotzerrerik izango?

Iparra

2012-03-18

Sorginei buruzko hitzaldi batean izan ginen, eta atera ginenerako gau zarratua zegoen Artzentalesen. Lagun batek zerura begiratu zuen, eta «begira, hori, besteak baino pixka bat laranjagoa den hori, Marte dela uste dut», esan zigun. Burua jaso genuen guztiok, eta zerua zoragarri zegoen. Garbi-garbi ikusten ziren izarrak, eta argi bereizten ziren hartz handia eta txikia, eta garbi ikusi genuen ipar izarra. Brujula perfektu haren berri lehenengoz izan nuenetik dakit ze garrantzitsua den iparra ez galtzea. Baina, gaur egun, inoiz baino brujula eta GPS gehiago ditugun sasoiotan, sekula baino galduago gabiltza: beti geure buruaren bila, eta egundo aurkitu ez guztiz. Itsasontzi bakarra ozeanoaren inmentsitatean galtzen den moduan galtzen gara hiri handietan. Denbora inoiz baino gehiago betetzen dugu. Goizero joaten gara lanera, lagunekin elkartzen ahalegintzen gara ordu erdirako bada ere, afaltzeko orduak bileretan harrapatzen gaitu, tarteka ikastaro interesgarriak egiten saiatzen gara, eta goizaldeko ordu txikietan irakurtzen ditugu azken nobedadeak. Eta hala ere, inoiz ez gaude ziur: eguneroko autopista hau ote da nire bidea? Sarriago hartu behar genuke gora begiratzeko astia. Iparra hantxe dago gauero norabidea erakutsiz; baina guk ez daukagu begiratzeko astirik.

Geltokiak

2012-03-20

Izugarri gustatzen zaizkit tren geltoki handiak; bizitzaren antz handia dute. Nasa bakoitzean tren luze bat egoten da, eta guk, aukeratu dugun norabidearen arabera, bakarra hartzen dugu. Txartela erosten dugunetik dakigu geltokian dagoen jende guztiak ez duela gure bidaia bera egingo: gure ondoan eser daitezten nahiko genukeen askok beste tren bat hartuko dute, eta usain eskasa ekarri duten zenbaitek, gure ondoan ez bada ere, bagoi berean egingo dute bidaia. Txartela erosten ez badugu, bidaia emozionantea egingo dugu, baina, agian, ez gara nahi dugun lekura helduko. Trena sasoiz hartzen duen marearen erdian, ostera, beti dago baten bat, azken orduan lo gelditu delako trena galtzen duena. Hartuko du hurrengo trena, baina galdu duen trenean zer edo nor zegoen ez du inoiz jakingo. Trenaren barruan ahal duena egiten du bakoitzak: lo, paisaia ikusi, maitea besarkatu, sudokuak, tabernara joan, bagoi batetik bestera ibili... eta badira, oinetakoak kendu eta aulkia haientzat eginda balego legez, oso eroso joaten direnak ere. Bidaiaren amaieran geltokiko atea gurutzatu, eta zain inor ez dugunean, edo euria ari duenean, edo postura onik hartu ezin izan dugulako kokoteko mina daukagunean, ohartzen gara zein garrantzitsua den bidaia ahalik eta ondoen aprobetxatzea.

Negarra

2012-03-21

Ez dakit andereño Pilitxuri ze enkargu ematera joan nintzen Gernikako institutura, baina akordatzen naiz kafetegirako bidean Amaia aurkitu genuela, orduan hango ikaslea baitzen. Orain gogoratu nahi ez dudan motibo bategatik, Amaiak negar egin zuen, eta nik lasaitzeko esan nion, ez egiteko negarrik. Andereño Pilitxuk, orduan ere historia baino askoz gehiago irakatsiz, agirika egin zidan: «Zergatik ez, Onintza? Negar egitea ona da!». Terapeutek ere hala diote: sentimendu mingarriak barruan gordetzea ez da ona. Horiek guztiak ateratzeko bide bat da negarra, eta pentsatu nahi dut malkoek libratzen nautela barruan korapilo handiegiak izatetik. Joan den igandean, Jose Luis Kortak kamaren aurrean negar egin zuen, eta, sare sozialetan irakurri dudanez, uste genuen baino «ahulagoa» da Korta. Ez nator bat. Negarrik ez egitearren dena gordetzen duenari egunen batean astunegi egingo zaio barruan gordetakoaren zama, eta nortasuna ozpinduko zaio, eta «honaino heldu naiz» esaten duenean ez da atzera bueltarik egongo. Negar egiten duena, berriz, mindu edo amorrarazi duten bakoitzean hustuta iritsi da dagoen lekura; une latzak latz egin zaizkiola irakatsi diote negar anpuluek, baina gainditu egin ditu. Horrek une latzagoak gainditzeko segurtasuna ematen dio.

Amerikanoak

2012-03-22

Ez dakit ezertarako balioko duen, baina pozik irakurri dut Idahoko Estatu Gaietarako Batzordearen adierazpen instituzionala. Hemendik Amerikara itsas legoa asko daude, baina pausoak eman behar dituenak ematen ez dituenen, urrunetik heltzen zaizkigun keinuak eskertu egiten dira. Familia askok daukate senide amerikanoren bat, eta odolak lotu egiten duenez, askotan izan dugu Amerika Euskal Herritik hurbil. Pentsatzen dut Idahoko legebiltzarrak eta senatuak elkarrekin adostutako adierazpena sinbolikoa izango dela askorentzat, baina hemendik hara behinola zenbat jende joan zen jakinda, gehiago izan dadin nahi nuke. Euskal herritarrok gatazka konpondu egin nahi dugu, gure etorkizuna erabaki eta aurrera egin. Eta badirudi bizimodu hobearen bila hemendik joan zirenen ondorengoek ere gurekin bat egiten dutela sentimendu horretan. Gure auzoko gizon batek behin esan zidan «han Ameriketan» jendea ez dela guk uste dugun bezain bizkorra. Bera egona zen bolada batez Ameriketan eta ez omen da han ondo jaten, eta ohitura harrigarriak omen dituzte euskaldunen aldean. Desiatzen nago gaur iluntzean, lanetik atera, eta ardo bat kentzeko. Esan nahi diot litekeena dela amerikanoak ez izatea hain bizkorrak, baina espainiarrek baino errazago ulertu dutela euskaldunok zer nahi dugun.

Gaitasunak

2012-03-23

Inor ez da iristen 80 urtera 20 urterekin zituen gaitasun berberekin. Amama Klarak, alzheimerak harrapatu aurretik, usaimena galdu zuen. Gure aitak ez du ondo entzuten. Amama Teresa oso torpe dabil, eta gure amari apuntatzen ez duen guztia, eta apuntatzen dituen zenbait gauza berdin, ahaztu egiten zaizkio egunero. Hala ere, gure amama, aita eta ama oraindik harritu egiten dira. Bizi izan diren guztia bizi eta gero, zenbait gauza kontatzen dizkiegunean harritu egiten zaizkigu. Eta hori zoragarria da; izan ere, urteetan aurrera doazen guztiek ez dute azkenera arte gordetzen. Harritzen ez denak ikusi du dena, usaindu du dena, entzun du dena, ukitu du dena, dastatu du dena. Ez du ezerk harritzen. Eta diot nik ezer ez zaiola gelditzen dena ikusi, entzun, usaindu, entzun, ukitu edo dastatu duenari. Nik zahartzarora iritsi nahi nuke, neure buruaren jabe banaiz behintzat. Baina, batez ere, hemendik berrogeita hamar urtera, harritzen jarraitu nahi dut. Zahar etxean banago ere, kontuak esaten datorkidanak esaten didanak interesa piztu diezadala. Eta hori galtzen dudanean, Nerek ondo esaten zidan moduan alboko ordenagailuan esertzen nintzenean, ez naiz izango ni, eta aspertu egingo naiz. Eta bizirik egonda aspertzea hiltzeko modu bat da.

Udaberria

2012-03-24

Umea nintzela, dermatitisa eragiten zidaten neguaren osteko lehenengo beroek. Garauak ateratzen zitzaizkidan gorputz guztian, eta azkura itzela izaten nuen. Medikuarenera joaten nintzenean, azkura kentzeko ukenduak ematen zizkidan, baina oraindik ez dakit udaberriro ateratzen zaizkidan lagun gorrixka txiki horiek zerk eragiten dizkidan. Azkuraren kontrako ukendu guztiak probatu ditut, farmaziakoak zein etxean egindakoak, baina sintoma hauentzat dudan azalpen bakarra amama Klarak umetan ematen zidana da: «Lasai, umea, hori odolaren aldaketa da!». Ez da oso zientifikoa, baina daukadan kontsolamendu bakarra da, eta gero eta garbiago daukat egia dela. Hartzek lo egiten dute negu guztian, eta udaberrian esnatu egiten dira neguan berriro lo egin ahal izateko. Inurriek gogor lan egiten dute beroaldian, hotza datorrenean lurpean eusteko udako erreserbekin. Neguan lurrean finkatutako egur zatiak baino ez diren zuhaitzak loratu egiten dira udaberrian. Zelaietan loreak ateratzen dira eta ortuetan kolore guztietako barazkiak, frutak eta intsektuak. Izaki bizidun guztiak bizi dira ziklikoki; beraz, ez du zentzu handirik ziklo horren eraginik jasaten ez duen izaki bizidun bakarra gu izateak. Udaberriak txolindu egiten zaituela? Zoragarri. Bizirik zaude.

Borobilean

2012-03-25

Borobilean bizi gara, zikloka. Sokaren mutur biak borobilean elkartu, eta katebegiak osatzen ditugu. Demagun eguna argitzen duenean sokamutur bat daukagula eskuetan, eta gauean, egin beharreko guztiak eginda ohea zabaltzen dugunean han dagoela beste muturra. Biak batu, eta osatzen dugun borobilak eguna itxiko du, eta zazpi borobil katean lotuta astea egingo genuke, eta lau asterekin hilabetea, eta hamabi hilabeterekin urtea. Eta halaxe bizi gara: egunak gaua dakar, eta gauak berriro argitzen du eguna; udak udazkena dakar, baina neguak udaberria zor du berriro ere. Eta guri buruan sartu zaigu lerro zuzen bat osatu behar dugula jaiotzen garenetik hil arte, eta hor goaz negua denean hotz egiten duelako eta udan beroa egiten duelako haserre, geure oinei begira oinez, lerroari jarraika. Altxa burua eta egin borobilak lerro zuzenean. Hasten den oro amaitzen da: harremanak, bidaiak, lagunak, lana, obrak... Hasierak eta amaierak korapilatu eta borobilak ixteak lagundu egiten digu ziklo berriei ateak zabalik itxaroten. Lerro zuzenak ez du muturrik lotzen eta ez du ziklorik ixten; aurtengo udaberria iazko neguaren jarraipena baino ez da. Eta orain dugun aro hau berria da. Ezagutzen dugun pertsona bakoitzaren moduan, edo hasten dugun lan bakoitzaren moduan.

Bidaiak

2012-03-27

Motxila edo maleta hartu, eta hara edo hona joatea gustatzen zaigu. Ez bakarrik neguan aurpegi beltzaranarekin harro-harro ibiltzearren; interesante sentitzearren ere bai. «Ni halako lekutan egonda nago...», esateak estatusa ematen digu. Hala ere, barregarria da leku batez zein beste batez berba egiten dugun bakoitzean nola guztiok antzerako gauzak kontatzen ditugun. Denetariko gidak ditugu bidaiatzeko: alternatiboak, leku garestiei buruzkoak, oso turistikoak, turistikoak baina desberdinak... Bakoitzak bat edo beste jarraitzen dugu gure interesen arabera, baina azkenean oso antzerako zirkuituak egiten ditugu hotelen prezioak salbu. Badirudi, Argentinara joan eta Iguazura ez bazoaz, alperrik joan zarela. Baten batek kantatzen zuen moduan: «Ez dezatela esan ez naizenik egon». Atera argazkia eta erakutsi guztiei. Bidaiatzea oporrak pasatzea baino zerbait gehiago izan dadin ikusten ditugun lekuetan bizi direnen kezkak, ohiturak, barrea, negarra... entzutea beharrezkoa da. Litekeena da, isilik denbora gutxi aguantatzen dudalako izatea, baina niri bakarrik bidaiatzeak lagundu dit horretan. Baina, bakarrik aproba egin nahi ez duenak ere badauka aukera Euskal Herritik mundura uda guztietan ateratzen diren brigadetan.

Jo eta hil

2012-03-28

Niri berdin dit Tolosan, Gasteizen edo Tuteran gertatu den; eta ez dut uste garrantzitsua denik hil dena Ekuadorkoa izatea edo hil duena Perutik etorri izana. Pentsatzen dut ez dela garrantzitsua aurten hildako zenbatgarrena den gaur hil dutena edo herenegun garbitu zutena. Bakarra ere nahikoa da eskuak burura eramateko, eta ez nuke nahi hildakoak zenbakitzat hartzerik. Telebistan eta egunkarietan gogaitu arte irakurtzen ditudan datuak alferrikakoak direla begitantzen zait. Tolosan hil zuten indarkeria matxistaren Euskal Autonomia Erkidegoko aurtengo lehen biktima. Hori ez da titulura eraman beharrekoa. Niretzat notizia da aurten, 2012an, XXI. mendean, oraindik ere indarkeria matxistaren ondorioz emakumeak hiltzea. Guk, ekialdeko bizilagunok, mundu guztira demokrasiari eta bakeari buruzko lezioak ematera joan garenok, urrutiko emakumeei askapenerako bideak irakatsi dizkiegun andre zein gizonok, geure burua garatutzat daukagunok, ez dugu izurrite mingarri eta jasangaitz horren kontra ezer eraginkorrik egin. Arazoa estrukturala da, beraz. Busti gaitezen benetan: alda dezagun botere harremanetan oinarritutako gizarte egitura hau. Pertsona askeak eraiki behar ditugu, eta ez sexuak indartsuago edo ahulago egingo dituen gizon-emakumeak.

Eskubidea

2012-03-30

Greba egiteko moduak asko aldatu dira, aldatu direnez. Lehen piketeak piketeak baino ez ziren. Orain pikete informatiboak egiten ditugu: ez da errepiderik mozten, ez da inoren lanerako bidea oztopatzen, ez da harririk botatzen... XXI. mendeko grebetan eskirolik ere ez dago: grebarik egin nahi ez duten langileek eskubidea daukate lanera joateko. Lanera joatea eskubidea balitz bezala! Lanera joatea, gure sistema honetan, beharrezkoa da. Eskubidea dugu lanean tratatu duina jasotzeko, soldata duina izateko, haurdunaldi bat despidorako motibo ez izateko, eta abar eta abar. Baina goizean jaiki eta kopeta ilunez lanera joatea ez da eskubidea, betebeharra da; edo beharra, besterik gabe. Pobreak lan egin behar du bizitzeko eta aberatsek derrigor behar dituela sinetsarazi dioten luxuak ordaintzeko. Hala ere, tartean behin, bere lantokian hamaikagarren aldiz zapaltzen dutenean, gutxienez «ai, min egin didazu» esateko eskubidea dauka. Beraz, ni eskema zaharretan harrapatuta geldituko naiz nahita: ai esan dugunok, nahikoa da esan dugunok, inposatu digutena onartu nahi ez dugunok, ez gara inoren lanerako eskubidea zapaltzen ari. Zuek, martxoaren 29an lan egin duzuenok urratu duzue edozein langilek munduko edozein lekutan inork zapaldu gabe lan egiteko duen eskubidea.

Martxoak 31

2012-03-31

Badirudi bostehun urte pasatu direla inoiz gertatu ez zen Gerra Zibil hartatik. Baina ez dira hainbeste urte Espainiako militarrek Errepublikaren eta, bidez batez, euren proiektu bakarra, handia eta librea defendatzeko traban zegoen guztiaren kontra oldartu zirela. Gure aitona-amonek ikusi egin zuten espainiarren gorrotoaren sua alemaniar eta italiar hegazkinetan. Martxoaren 31 batez Durango erre zuten, apirilaren 26 batez Gernika, uztailaren 22 batez Otxandio. Eta horrela osatu zuten menperatutako herrien zerrenda: bonbaz, suz eta odolez. Gerra zibila deitu zioten, baina egin zutena hurbilago dago estatu kolpetik gerra zibiletik baino. Elorrio partetik sartu omen ziren bat, bi, hiru, sei, zortzi hegazkin Durangora, eta pasatu ahala bota omen zituzten bederatzi, hamar... bomba herritarren gainera, eta hil zituzten herritarrak: hamaika. Eta harrezkero ez gaituzte bakean utzi. Hegazkinez ez bada, patrol berdeetan edo furgoneta urdinetan etorri zaizkigu: atxilotu gaituzte, torturatu gaituzte, legea aldatu dute kartzelan ustel gaituzten, hil gaituzte... eta lehengo militarren altxamenduari Gerra Zibila deitu zioten moduan, inork ulertzen ez duen zera honi demokrazia deitu diote orain. Ez dudarik izan: ahal izango balute, memoria ere erre egingo ligukete.

Liburutegian

2012-04-01

Gure herriko liburutegia oso ondo dago. Ez bakarrik liburuzaina jatorra eta dotorea delako eta bere lana guk merezi baino hobeto egiten duelako; merezi baino nobedade gehiago eta hobeak ekartzen dizkigutelako baino. Eta lehengo egunean oso ariketa frikia egin nuen: liburutegiko apaletan begira hasi nintzen ea zenbat liburu irakurri ote ditudan gure bildumatik. Gutxi. Oso gutxi. Egia da liburutegian gaztelaniaz dauden batzuk euskaraz irakurri ditudala nik, eta horiek ez nituela kontatu, baina hala ere gutxiegi irakurri ditut. Litekeena da nik pentsatzen dudan baino irakurle eskasagoa izatea, baina uste dut arazoa beste bat dela. Liburutegiko apaletan bueltaka ibili ordez, zenbait dendatako apaletan ibiltzen naiz, eta azkenean liburu asko erosi egiten ditut. Baina ez justu liburu horiek direlako erosi nahi ditudanak: titulua gustatu zaidalako, azala oso ona delako... eta badakit ariketa hori bera liburutegian egingo banu garagardotarako diru gehiago geldituko litzaidakeela. Baina gustatzen zait etxeko apalategietan liburuak ikustea, poemak buruz ikastea, azpimarratutako esaldiak behin eta berriro irakurtzea... eta gustatzen ez zaizkidan liburuak liburutegira eramaten ditut. Bai, ez dago dudarik, nik uste nuen baino askoz frikiagoa naiz.

Maketoak

2012-04-03

Badakit euskaltegira joaten dela egunero fin-fin. Gero eta euskara gehiago hitz egiten dut berarekin, eta jakin dakit niri ingelesez egitea kostatzen zaidan adina kostatzen zaiola oraindik euskaraz komunikatzea. Gaur, nik ere ez dakit oso garbi zergatik, baina galdetu diot ea bere emazteak euskararik badakien, eta ezetz esan dit: «Denok gara maketoak». Barreka hasi gara biok, baina esan diot halakorik ez esateko, nahiz eta berak egia dela azpimarratu. Izan ere, hain despektiboa da hitz hori, hain mingarria jende askorentzat, eta hain merke esaten dugu. Behin lagun bati esan nion brometan, eta haserretu egin zitzaidan; edo hori baino okerragoa dena, mindu egin nuen. Ez dut nik justifikatuko aukera izanda euskararik ez ikastea, baina irudipena daukat eskolan euskaraz egitearren eraztuna eraman zuten haien mina ezin dugula halako adjektiboekin konpondu. Maketo hauek esaten dugun aldiro administraziora joan eta izapide orriak euskara hutsez beteko bagenitu, guk ere mesede egingo genioke euskarari. Zer esanik ez, maketo hauek kritikatzten ditugun aldiro, eskela asko dituzten egunkariak erosteari utziko bagenio, edo gaztelaniazko telebista ikusteari, edo hiriburuko dendetan gaztelaniaz eskatzeari, edo *sichicapues* esanda elkarrizketak hasteari.

Lotsa

2012-04-04

Zerk ematen dizu lotsa?»), galdetu didate. Harritu egin nau erantzuna zein argi dudan ikusteak, neure burua hain seguru eta lasai erantzuten entzuteak. Etxean beti esan digute lapurretan egiteko bakarrik izan behar dela lotsa, baina hori erantzungo banu gezurra esango nuke. Batetik, inoiz gominolaren batzuk ostutakoa naizelako; eta, bestetik, lapurretak ez nauelako lotsarazten, harrapatuko banindute pasatuko nukeen tratuak baizik. Ez nau lotsatzen jatorriak, brageta zabalik ibiltzeak, jendearen aurrean hitz egiteak, kalean noala erortzeak... Ni biluzteak lotsatzen nau. Norbaiten aurrean arropak kentzea ariketa zaila da niretzat; baita medikuaren aurrean ere. Pentsatzen dut horregatik gustatzen zaidala gero eta gehiago hondartzara bakarrik joatea. Beste norbaitek biluzten nauenean ere igarri egiten dut nola gorritzen zaizkidan matrailak infinitura arte: hasten dira arropak ohe barrenera erortzen, eta hasten da nire gorputza agertzen. Sorbaldak, titiak, zilborra, alua, izterrak, ipurdia, belaunak, bernak, oinak... denak bistan beren indar eta ahuldadeekin, beren plazer eta minekin, sekreturik gabe, erori zirenak altxatuko dituen zerarik gabe, bolumena disimulatu edo estaliko duen estalkirik gabe. Besterik gabe, biluzik. Sinestezina dirudi, baina lotsa ematen dit!

Beldurra

2012-04-05

Nik ez dakit amama Klarak Biblia irakurrita izango zuen edo ez, baina Walt Disneyk ipuinak baino hobeto kontatzen zituen bertako kontuak. Bereziki gogoratzen dut nola kontatzen zigun azken juizioko eguna: «Zerutik aingeruak jaitsiko dira tronpeta joz, eta Jainkoak guztiok eramango gaitu Josafateko zelaira, eta han onak eta txarrak bereiziko ditu. Baina gu lasai joango gara onak izan baikara; eta onak salbatu egingo gara betirako infernutik». Pentsatze hutsak kakatan jartzen ninduen. Atera kontuak: amamaren ohe buruko Ama Birjinaren inguruko aingeruei tronpetak ikusten nizkien. Orain badakit hor goietan ez dagoela izaki potolo hegodunik, baina egunotan Bilbon ikusi ditudan tronpeta jotzaileek beldurra ematen didate: sotana luzeak jantzita ibili dira, gurutzea eskuan, aurpegia estalita, oinutsik. Beti galdetu diot neure buruari ea zergatik erabiltzen duten beldurra fedea zabaltzeko: Jainkoak zigortuko zaitu, bizkarrezurra okertuko zaizu... eta pentsatzen dut kontua dela lehenengo beldurrak sortzen dizkigutela, eta gero, eurek sortutako beldurren irtenbide gisa, zerua eskaintzen digutela. Esan nahi dut Josafateko zelaia dagoela sinesten ez duenak ez duela behar Jainkoaren salbaziorik, eta salbaziorik behar ez duenak ez duela zertan hura lortzeko meriturik egin.

Gurutziltzatu

2012-04-06

Gaur bezalako egun batez, duela bi mila urte inguru, Jesus izeneko gizona bat gurutziltzatu omen zuten. Bezperan hamabi lagunekin elkartu zen afaritan, eta haietako batek saldu egin zuen. Soldaduek eta salatariak tratua eginda zuten: atxilotu behar zena hamabietako zein zen jakin zezaten, Judasek muxu emango zion Jesusi soldaduen aurrean. Atxilotuta zegoela, erromatar enperadorearengana jo zuten soldaduek, eta atxilotu bakarra Jesus ez zenez, enperadoreak aukeratu egin behar izan zuen nor askatu. Eskuak garbitu zituen: herriari eman zion aukeratzeko aukera, eta bera errugabeak gurutziltzatzetik libre gelditu zen. Azkenean, zigortu eta torturatu ondoren, Golgotan gurutziltzatu zuten Jesus. Hori da gutxi gorabehera Eliza katolikoak kontatu diguna, eta hori da, hain zuzen ere, berak egundo sinetsi ez duena. Fedea ez da txarra, baina fede katolikoa zabaldu dutenek sekulako sarraskiak egin dituzte Jainkoaren izenean: jendea torturatu eta sutan erre zuten haien doktrina ez onartzearen; faxistei muxu eman izan diete, ostia santuarekin batera; eta eliza barruan egin diren haur lapurreta zein haur bortxaketen aurrean eskuak garbitu dituzte. Lotsa apur bat izango balute, konfesioaren ordezt, barkamena eskatuko ligukete.

Aberria

2012-04-08

Aberriaren eguna da gaur. Bere berrian izen zaharkitua da aberria. Guk herria esan dugu beti: eta gure herria esaten dugunean, abertzaleok behintzat, Maule, Karrantza, Oion eta Tuteran hartzen dituen eremu geografikoaz ari gara. Nire iruditerian, bihotzean, buruan edo nahi duzuen lekuan, horixe da Euskal Herria, eta, gaur, Euskal Herri horren eguna izan dadin nahi nuke. Baina oraindik aldarrikapenen aroan gaude, eta inbidia ematen didate munduko beste herriek; batez ere, euren herriaren eguna ospatu egin dezaketenek. Gaur, Iruñeako manifestaziora joango naiz, herri hau nazio izatea nahi dudalako, eta ospatzeko baino gehiago egiteko daukagula konturatuko naiz. «Aspaldi, kolonialistak oraindik hemen bizi zirenean», esaten dutenen moduan hitz egin nahi nuke. Egunen batean, aberriaren edo herriaren egunean memoria ariketa egin nahi nuke: poliziek estu hartzen gintuzten sasoiak urrutitik ikusi, gure hizkuntzarekiko zelako jarrera izan duten garailearen irribarrez gogoratu. Aberriaz lehenengoz hitz egin zidatenak beste dimentsio batean daude orain, baina nahi nuke, nik inori esplikatu beharrik ez izatea eskolako liburuan agertzen dena ez dela Euskal Herria, espainiarrek asmatutako zerbait baizik. Egunen batean aberri eguna ospakizun egun hutsa izatea nahi nuke.

Zelofana

2012-04-10

Guztiok ez dugu gauza bera bilatzen egunkaria zabaltzen dugunean, eta horrexegatik iruditu zitzaidan kritika ona nik idazten dudana goi mailako literatura ez dela esan zidan gizonak egindakoa. «Ez, ez da», argitu nion, «baina kontua da hori ez dela nik egin nahi dudana». Bizipen soilez idazten dut, gertatzen zaizkidanez. Zelofanarekin bil ditzaket, baina gauza arruntak dira pozten, harritzen, mintzen edo irribarretsu jartzen nautenak. Ez dut goi mailako literaturarik egin nahi; besteak beste, ez dakidalako horretarako gai naizen ere! Ni hauxe naiz. Eta horixe da Iruñeako taberna batean etorri zitzaidan neskari esan niona ere: pena dela halako aitzurrarekin ezagutu beharra, agian pentsatuko zuela pertsona zentzuduna naizela, baina halakoxea naizela. Poztu egin zen. Hala esan zidan: «Orain badakit egia idazten duzula». Nik idatz dezaket igandean whisky garestia edan nuela, eta kamareroak ez dakit zein bakarlari amerikarren musika jarri zuela, eta musikaren erritmo sentsualari jarraiki hurreratu nintzela nire bizitzako gizonarengana. Zelofana, zelofana eta zelofana. Beste askoren moduan, garagardo merkearekin galdu nituen paperak, fitxak sartu zizkidaten eta sartu nituen (azkenerako trakets) eta kanturik eskasenekin egin nuen dantzan lehertu arte.

Indarkeria

2012-04-11

Telebistan ez dute hiltzailearen izenik esan, ezta hildakoaren familiaren edo lagunaren saminik erakutsi ere. Egunkari handiek «ustez» hitza errepikatu zuten autopsiaren emaitza argitaratu zen arte. Hilketez, demokraziaz eta tolerantziaz hitz egitea gustatzen zaien zenbait politikariek indarkeriaren gaineko analisiak egiteko momentu egokiaren zain geratzea deliberatu zuten. Gaueko informatiboetan ez genuen hiltzailea etxetik atxilotuta nola ateratzen duten ikusteko aukerarik izan; armak gordetzen zituen zuloko argazkirik ez dago inon, bere «modukoekin» biltzen den taberna edo egoitza ez dute miatu. Egia ezkutatu nahi izan digute, baina aurpegian leher egin die gezurrak. Eta gezurtia harrapatu egiten da: noiz arte sinetsiko genuen astelehen gaueko Teleberrian, arazo tekniko bat dela medio, ezin izan zutela Iñigo Cabacasi buruz hitz egin? Aspaldi desagertuta behar zuten gomazko pilotek gurean, baina berriz ere desegin dute familia bat, gazte bat lurrian zerraldo utzi dute, ezintasuna airean gelditu da. Libre dira nahi dutena egiteko. Lehen ere egin dituzte halakoak: kazetarien kontra oldartu ziren duela gutxi, Xuban Nafarrate larri dago... beldurtzen nauena ez da Ertzaintzak herritarron kontra darabilen indarkeria, indarkeria hori erabiltzeko duen inpunitatea baino.

Politizatzeaz

2012-04-12

lñigo Cabacasek ez zeraman borrarik, ez zeraman gomazko pilotak jaurtitzeko gailurik, ez kaskorik. Bere talde kutunaren garaipenaren poza baino ez zeraman, eta pilota batek kendu egin zion betiko. Pentsatzen dut momentuaren larritasuna: ihesbiderik gabeko kalea, gomazko pilotak airean, jendea nora ezean, Ertzainak harro irteera bakarra itxiz... eta halako batean, edonor izan zitekeen arren, Cabacas lurrean. Eta ezin lagundu, ezin eutsi, ezin anbulantziari deitu, ezin esan, ezin eskua estutu... gure segurtasuna zaindu behar luketen agenteek ez zieten han zirenei gazteari laguntzen utzi. Gorputzaren ondora makurtu zirenak jipoitu egin zituzten, hemen beraiek agintzen dutelako, eta hori argi uztea gustatzen zaielako. Herritarron segurtasuna bermatu behar luketenak herritarren kontra. Inpotentzia, amorrua, mina, estualdia, urduritasuna eta giza miseria. Eta Barne Saila isilik asteartera arte. Eta diozue Ertzaintzaren jarrera hau ahalbidetu eta baimendu duen politikariaren dimisioa eskatzea hilketa politizatzea dela. Eta hilketa honi heriotza deitzea ez da gertatu dena politizatzea? Eta gertatu den lekuan Herriko Taberna egon dela behin eta berriro azpimarratzea? Eta sare sozialetan idatzi ziren zenbait lekukotza ezabatzea?

Haizetan

2012-04-13

Ez dakit egoerak kontrolatzen. Asko irakurri dut inpultsoei eustearen gainean eta komeni ez zaidan egoeretara ez hurbiltzearen gainean, baina praktikan beti egiten dut laban leku berean. Miresten ditut lekuan egoten dakitenak, gauzak komeni zaizkien edo ez aurretiaz dakitenak. Nik salto egiten dut lehenengo, gero hasten naiz paraxutaren hariari tiraka, eta ez dela zabalduko konturatzen naizenerako, gorputza kolperako prestatzea baino ez zait gelditzen. Haizeari eramaten utziz gero, askotan leku zoragarrietara heltzen da bat, baina argi izan behar da beste askotan ez dela hala izango. Edozelan ere, heldu zaren leku zoragarri bakoitzak ahaztarazi egiten dizkizu lurreratze txar guztiak. Batzuentzat ausardia da halakoa izatea, eta beste batzuentzat erokeria zentzugabea. Inoiz inbidia ere eman didate egoera aurretiaz ikusten dutenek, ezer egin aurretik bi aldiz pentsatzen dutenek; Kurasaalean Ametsek mikroaren aurretik mugitu gabe erantzuten zidanean bezala. Kontrako itxura eman arren, ez nengoen bera baino erosoago. Baina ez dut derrigor eroso egon behar gustura egoteko; ez dut dena kontrolatu behar ondo egoteko. Nik egoera kontrolatu edo ez, gertatu behar duena berdin gertatuko da, eta, orduan, zertarako balio izan dit dena kontrolatzen eman dudan denborak?

Errepublika

2012-04-14

Jendeak kaleak hartu zituen. Erregeak Frantziara alde egin behar izan zuen familia guztiarekin. Laster hartu zituen errepublika jaioberriko gobernuak bere lehen erabakiak, baina kontrario gehiegi zituen. Espainia deitzen dioten mila konkistaren ondorio geografiko horrek ezin izan zuen benetako errepublika garatu, eta Franco hil ondoren izandako trantsizioak argi erakutsi zuen. Euren burua errepublikazaletzat zutenek ere onartu egin zuten erregea izatea estatu berriko burua, baita errege hori Francok ezartzea ere. Trantsizioa deitzen dioten iruzur politiko horrek ez zuen Espainiako banderatzat hartzen dena ere aldatu. Eta banderatzat hartu diot, errepublika garaian banderak hiru kolore zituelako. Zeren arabera erabaki ote zuten diktadura garaiko bandera mantentzea? Ereserkia ere ez zuten berreskuratu: Francori jotzen zioten musika bera jotzen diote munduan zehar nazioaren izena goraiatzan ari diren kirolariei. Espainiarrek ahaztu egin dute errepublika, berrogei urteko izuak memoriatik ezabatu balie bezala. Madrilen diseinatutako eskola curriculumean ez dago errepublikako izen propiorik, ez dago emakumeek botoa ematearen aldeko borrokarik, ez dago erlijioaren derringortasuna ezabatzeko ahaleginik. Finean, ez dago errepublika izan zenaren transmisiorik.

Titanic

2012-04-15

Esaten dute kapitainak ez zuela abiadura moteldu. Gizakiok beti behar dugu errudun bat, eta, *Titanic*-en kasuan, kapitaina izan zen itsasontzia izozmendiaren kontra eraman zuena. Harengan utzi du historiak ardura. Gure lagun batek esango lukeen moduan, «zerbaitegatik kobratuko zuen besteek baino gehiago». Baina ez ote zuen presio handiegia? Pentsa ezazue inoiz izandako itsasontzirik dotoreena, handiena, luxuzkoena itsasoa zeharkatzera zihoala eta foku guztiak hari begira zeudela. Egia da orain dela ehun urte ez zirela hainbeste foku egongo, baina zeudenak kapitainak gidatu behar zuen ontzi hari begira zeuden. Hollywoodek nahi duena esango du, baina *Titanic*-era sartu ziren bidaiari gehienak aberatsak zirela esango nuke; eta diru asko ordaindu zuten itsasoa zeharkatzeko. Haurdun omen zegoen emakume batek erizaina eta etxeko zerbitzari bi eraman omen zituen berarekin. Horrek asko esaten du haren maila sozialari buruz, eta besteak ere antzera ibiliko ziren. Beraz, ardura guztia bati eman bazaio ere, nire Onintza erromantikoak esaten dit kapitainari ez ziotela beste aukerarik eman. Abiadura mantsotu izan balu arriskuaren aurrean, ordaindu zutenak kexatu egingo zitzaizkion. Orain ere ez du beti kapitainak agintzen.

Elefanteak

2012-04-17

Familia hau terriblea da. Suhiak sekulako dirutza ostu du Palman, eta dirua benetan jaso behar zutenei barkamena eskatu beharrean, haren emaztea negarrez agertu zen bihotzeko aldizkarietan: ez omen da haien sufrimendua errespetatu, gaizki pasatzen ari omen dira... hala ere, ez dute Palmako dirurik behar hantxe bertan jartzen zaien guztia egiteko. Suhi ohia eta haren semea indio eta bakeroetara jolasten dira. Ez nintzateke piperrik ere harrituko benetako armekin egingo ez balute! Azkenean umeak behatza jo du balaz, eta anbulantzian sartu zutenerako igarri omen zuen gertaeraren larria: aitona asko haserretuko zela esan omen zuen, baina bere aitak ez omen du zerikusirik izan istripuarekin. Aitona haserretu? Ez horixe. Aitona bera ere halako jolasetan ibiltzen zen anaiarekin, baina behin, ilobak hanka bezala, anaia jo zuen arte bala batek. Orain, lagun berriak aurkitu behar izan ditu jolasean jarraitzeko, eta guztiori osten digun diruarekin Botswanara joan da. *Interreconomía*-ko zezena ere hil zezakeen, baina ez, horretarako badago tradizio odoltsu bat. Errege txit gorenak elefanteak hil nahi izan ditu. Elefanteak eta monarkia. Biak desagertzeko zorian. Pozten naiz Botswanako istripuan tiroak bota behar zituen lesionatu delako. Pena handia emango lidake elefanteak desagertzeak.

Ulertezina

2012-04-18

Lagun batek katastroaz hitz egin dit. Hitza bera entzuna nuen, baina ez dut egundo jakin zer den. Badakit baserria konpontzen hasi ginenean zerikusia izan zuela gero ordaindu beharreko hainbat paperarekin, baina ez dakit garbi zer den. Lagunak dena azaldu zidan: Higiezin Gainera Zergan eragina duela, udalen finantzaketari lotuta dagoela... ez daukat interes berezirik gaian, baina pentsatzen hasi nintzen itzulpenak egiten nituenean asko kostatzen zitzaidala instituzioetako aktak itzultzea. Esaten dute gaztelaniaz irakurtzera ohitu denari zaila egiten zaiola euskarazko paper ofizialak ulertzea, baina duda egiten dut gaztelaniaz ere lehen irakurraldian ulertzen direnik paperok: esaldi luzeak, hiztegi teknikoetan ere agertzen ez diren hitzak, ponposotasun faltsu hori... ez dut uste kasualitatea denik administrazio-hiztegia, batez ere herritarroi ordaintzea tokatzen zaigun kasuetan, hain konplexua izatea. Instituzioak atek itxita kudeatzeari oso lotuta dago gramatika korapilatsu hori. Guztiok ulertzeko moduan hitz egingo edo idatziko balute, azalpenak eskatuko genituzke, gehiagotan asaldatuko ginatke eta ez lukete gure diruarekin nahi duten guztia egiteko aukerarik izango. Demokrazia egiazko batean, administrazio politikoak ulertterraza izan behar luke.

Ihes

2012-04-19

Gaur inoiz baino gehiago gogoratu naiz Isabel Pantojarekin. Benetan. Frank Sinatraren *My Way* kantuaren bertsioa egiten du Sevillako kantariak, eta edaten dudanean gustatu egiten zait Pantoja imitatzea; beno, edan gabe ere bai. Ingelesez baino errazagoa zait gaztelaniaz kantatzea batetik; eta bestetik, azken batean, Sinatra gizona zen. Ez dut esango emakumeok elkar ulertzeko gaitasun berezia dugunik, baina Sinatrak «*for what is a man?*» galdetzen du bere kantuan: zertarako da gizona? Eta ni nola gizona ez naizen, harroago ibiltzen naiz gaztelaniazko bertsioarekin. Batez ere, gustatzen zaizkigun gauzak utzi beharraz hitz egiten duenean. Esaten du, «zer kritikatu dezakete, nik errenuntziatzen ikasi badut? Negar egin dut, eta negar egin badut, nire erara izan da». Itzulpena libre samarra da, baina ez didazue ukatuko erabakiak hartzea zaila bada horrexegatik dela: pauso guztiek dute gozotik eta gazitik. Gauza batzuk hartzeak beste batzuk uztea dakar askotan, eta egoera norberaren gainetik jartzen denean, litekeena da alperrik izaten nahi denari eusteko ahalegina. Gozoak ez du gazia arintzen; baina ikasi behar dugu gaziari bere neurrian erreparatzen. Mexikon esan zidaten behin: bizitzak limoiak ematen badizkizu, eskatu barran tekila eta gatza!

Zezenak

2012-04-20

Gure ama euskara ta ohitura zaharrak / horreek doguz herriko jostailu bakarrak / kendu guran badatoz toreru azkarrak / burrukarako ondo zorrotz adarrak», kantatzen ikasi nuen umetan. Aitonak irakatsi zidan. Berak zorrotz izan zituen adarrak, eta guri ere hala izaten irakatsi nahi izan zigun. Kontua da mundua zezenez beteta dagoela, eta toreroak falta direla. Indarra beti indarraren kontra, eta arrazoia falta askotan. Inoiz ez dut hain hurbil izan Interreconomiako zezena. Baina lehenengo begiradan konturatu naiz adarrak zein zorrotz dituen. Osborneko zezena ez bezala, Interreconomiakoa erasorako gertu dago, jarreran igartzen zaio. Eta ez da jarrera horretan dagoen zezen bakarra. Krisia konpontzeko bide berrietan sinesten dutenek, feministek, erraustegiaren kontra daudenek, euskararen aldekoek, jendea etxetik bota ez dezaten lan egiten dutenek, elikadura subiranotasunaren alde daudenek, internazionalistek... guztiek daukate zezena aurrez aurre. Nahi eta nahi ez izan behar dute toreroak. Adar zorrotzak izaten hasi, eta kapotea maneiatzen ikastea lortu dugu, baina mila bataila txikik aldatuko dute mundua, eta zezenak animalia zoragarriak izango dira egunen batean. Ez mehatxua, ez espektakulu ankerretan hiltzen duten piztia: animalia dotorea.

Bertsioak

2012-04-21

Guk ez genuen ikusi, baina bertan izan zirenek kontatu digute zer gertatu zen. Eguerdi inguruan hegazkin bat agertu omen zen zeruan, eta hiru edo lau buelta egin ostean, joan egin omen zen. Gero, arratsaldeko laurak inguruan, hegazkin gehiago etorri ei ziren, eta orduan bai, orduan sirenak jo zuen, eta hegazkinak bonba hotsean hasi ziren. Astelehena zen; azoka eguna Gernikan. Jendea hasi zen korrika, eta gutxi batzuk bunkerretara heldu ziren, baina gehienek ahal zuten lekura egin zuten ihes, eta asko bidean gelditu ziren. Gainera, ihes egiten saiatzen zirenak metrailatu egin zituzten hegazkinetatik. Alboko herrietatik sua ikusten omen zen nahinon, eta gau hartan ez omen zen gaurik izan: Gernikako suarekin, argirik piztu gabe sartu omen zitekeen haria jostorrazaren begian. Hurrengo hiru egunetan ere, kea zerion herria izandakoaren hondakin erraustuari. Bertan egon ez zirenek esan zuten euskaldunak, errepublikazaleak eta gorriak izan zirela Gernika erre zutenak. Jakina, ez ziren bertan egon, Alemaniako lagunak bidali zituztelako eurek egin ezin zuten lana egitera. Eta 75 urte pasatu diren arren, egon ez zirenen baina zapaldu gintuztenen seme-alaben seme-alabek oraindik ere ez dute bertsio ofiziala aldatu.

Memoria

2012-04-22

Amama Klararen etxean zegoen guztia eraman zuten auzokoek. Ustez abertzale zirenak ere lapurretako parte izan ziren. Horregatik esaten zigun burua galtzen ari zenean «*zuek txaketa kanbiau sekula be ez*». Andonek eta Jesusek gogoan dute Oleskoko zein zubiren azpian ezkutatu ziren Gernika erretzen hasi zirenean, eta haien etxeko lastategitik hegazkinei tiroka gudariak egon zirela kontatu digute. Kontatu ahala, begiak pizten zaizkie, edo itzali, edo behera begira gelditzen dira... Ondarroako lagun batek kontatu zidan han emakumeei ilea mozten zietela, eta herri guztiaren aurrean desfilea eginarazten zietela gorriak izatearren zigorra izan zutela jakiteko. Alzheimerrak eta beldurrak ez digute memoria guztia eraman, zorionez. Hil nahi, baina hil ezin izan zituzten gizon-emakumeen ondorengoak gara gu: bonbarik bota ezin izan digutenez, torturatu eta kartzelatu egin gaituzte, gure nortasuna ukatzen saiatu dira. Baina hemen gaude. Eduardo Galeanori irakurri nion gogoratzea gauzak berriro ere bihotzetik pasatzea dela. Nik memoria biziak gordetzen dituzten xehetasun guztiak jakin nahi ditut. Negar egingo dut entzundakoa bihotzetik pasatzen zaidan aldiro, baina negar horrek gogoraraziko dit egia zor digutela oraindik ere.

Isilean

2012-04-24

Ospakizunen erdian esan zidan Txikik gernikarrek ez dakitela ia ezer 1937an gertatutakoaz: «Gernika isiltasunaren gainean berreraikita dago», esan zidan. Arrazoi du. Orain 75 urte Gernikan egondakoetatik bizirik daudenak ume ziren orduan. Berandu hasi gara gertatuez hitz egiten, eta anekdota asko batu ditugun arren burdinazko gerrikoan edo Bilbo nazionalek hartu zutenean, edo Intxortan gertatutakotik ez dakigu askorik. Frentera joan zirenak hilda daude. Garaile atera zirenek kontatu ziguten bertsio ofiziala, eta galtzaile asko isilik geratu ziren. Berrogei urte iraun zuen beldurraren aroak, eta batzuek zerotik hasi nahi izan zuten Franco hil ondoren. Espainiako bandera balkoitik kendu, eta ikurrinak jarri zituzten. Eta ez zuten ezer esan. Baina berrogei urtean haien nagusitasuna jasan behar izan zutenek ere, ez zuten ezer esan. Ez publikoki behintzat. Isilean esan ziguten nortzuk izan ziren txaketa aldatu zutenak, ahapeka entzun genuen nortzuk izan ziren txibatoak, ia ez entzuteko legez esan zuen norbaitek Gernikako Andra Mari elizan errepublikaren aldeko familietako neskak bortxatzen zituztela... eta zenbait alderdi politikok euren barruan onartu zituen hori guztia ahalbidetu zutenak. Inoiz ezer gertatu ez balitz bezala. Baina gertatu, gauza asko gertatu ziren.

Kanpora

2012-04-25

Baraualdia egitea zuten asmo bakarra. Legebiltzarreko gela bat hartu zuten, D3Mren kontrako epaiketako auzipetuei euren babesa emateko eta epaiketa politikorik gehiago egin ez dadin eskatzeko. Ez zuten oihurik egin, ez zuten ezer apurtu, ez zuten ezer nabarmenik egin, baina Ertzaintzak kanpora atera zituen. D3M legez kanpo utzi zutenean ehun mila lagunetik gora gelditu ziren Eusko Jaurlaritzan ordezkartzarik gabe, baina epaituko dituztenak ez dira herritarrak ahotsik gabe utzi zituztenak. Epaituko dituztenak ahotsik gabe utzi zituztenak dira; proiektu politiko bat defendatzearen kartzelara eraman zituzten haiek. Eta hau guztiau okerrera doa. Laster amorrua, haserrea eta poza bera ere irentsi egin behar izango ditugu. Ez digute utziko kanpora ateratzen. Sare sozialetan halako edo holako protesta ekintzetara deitzea arriskutsua izango da, eta poliziaren aurrean esertzea delitutzat hartuko da. Aurpegia estalita, borrak eskuan, peloteroak kargatuta eta pistolak erabiltzeko prest dituztenen aurrean esertzea delitua da demokrazia deitzen duten sistema honetan. Ezin dugu inposatzen digutena baino bizimodu hoberik aukeratu. Gero eta delitu gehiago daude zigor kodean. Bitartean, Espainiako militarrek, berriro ere, Elgeta hartu dute.

Sarraskia

2012-04-26

Erreaktoreak krak egin zuen, eta agintariak isildu egin ziren. Gertatzen ari zena isilean gordetzea erabaki zuten, alarma piztuz gero sor zitekeen egoera saihestu nahian edo. Inoiz ez dugu garbi jakingo zergatik ez zuten lehenengo momentutik guztia esan. Lehen egunean ehunka suhiltzaile gaixotu ziren, larri erreaktibitatearen eraginez. Handik kilometro batzuetara pinudi bat gorritu zen goizetik gauera, baina jendeak ez zeukan gertatzen ari zena esplikatzeke frogarik. Mila eta ehun kilometrotara, Suedian, zentral nuklear bateko langileen arropetan partikula erradiaktiboak agertu ziren. Arazoa lan egiten zuten zentrolean zegoelakoan, egoera ikertzen hasi ziren, eta orduan jakin zuen munduak Txernobylek sua hartu zuela. 2.500 gradura iritsi omen zen erreaktorea. Inork ezer jakin zuenerako, milioika partikula kutsakor aireratu zituen Txernobylgo zentral nuklearrak. Gaur bete dira hogeita sei urte, eta oraindik beste hainbeste eta gehiago pasatu beharko dira erreaktorea hoztu arte. Txernobylgo umeak uda pasatzera gurera etortzen dira, aire garbia arnasteko beharra dutelako, eta harrezkero jaio diren belaunaldi berri guztiek daramate sarraskiaren arrastoa azalean, biriketan, odolean... eta, dakigun guztia jakinda ere, Garoña zabalik dago.

Lekukoak

2012-04-27

«Ni ez naiz joaten», esan zidan. Gernikan hildakoen omenezko ekitaldiak aspalditik egiten dira, baina bera ez zen joaten. «Zertarako?», galdetu zidan. Bizitakoak kontatzeaz, gogoratzeaz, hitz egin nion. «Guk memorian daukagun guztia esango bagenu, zenbaitek larri behar lukete!», esan zidan. Ez zuen hizketan jarraitu nahi, baina igarri zidan erantzun hark ez zidala balio. «Gazteak dena jakin nahi du, baina gauza batzuk ez jakitea hobe da». Isilik begiratu nion, eta esan zidan omenaldien kontua zabaldu ahala irabazleen bandokoak ikusten zituela edonon, lehen ilaran. «Tristea da herrian egiten ziren ospakizunetan Francoren insignia hartuta aurretik joaten zirenak oroitzapen ekitaldietan ikustea. Nork erre zuen Gernika, bada?». Maite zuen alderdia ere utzi egin zuen: «karlistaz» beteta omen zegoen. Bazuen, guk ikusten ez genion lekuren batean, zama handi bat. «Ez fidatu zorri biztuez», esaten zigun. Asko ikusi zituen ezereztik burua atera, Francoren alde jarri, eta aberasten. Galtzaileen bandokoa zen bera. Memoria baino ez zitzaion geratzen, eta, zenbait balkoitan ikurrinak ikusten zituenean, iruditzen zitzaion irabazleek historia idazteaz gain izan zirenaren memoria ere ezabatu egin nahi izan ziotela. Hildako guztiak bandera bera defendatzearren hil balira bezala.

Pena

2012-04-28

Guardiolak Bartzelona entrenatzeari utziko dio. Badoala esan du. Deitzeko gogoia izan dut une batez: «aizu, eta orain nik noren aitzakiaren ikusiko ditut futbolari buruzko programak?». Akabo dotorezia, akabo ganoraz hitz egitea, akabo *glamour*-a. Akabo. Futbola batez ere baina oro har telebista nola dauden ikusita, luxua da zapping egiten ari zarela Guardiola aurkitzea. Momentu batez triste jarri naiz. Futbolari bakanak bildu eta taldea egin du Guardiolak, probokazioetan erori gabe joko zelaian isildu ditu arerioak, berezko dotorezia agertu du edonon, taldea kudeatzen badakiela erakutsi digu eta etxekoei konfiantza osoa eman die. Ez naiz futbolzalea, baina bere izarren konstelazio hori gidatzeko izan duen gaitasuna nagusi askok behar lukete lantokian. Pertsonak kudeatzea zailagoa da zenbakiak eta kontabilitatea kudeatzea baino, eta askotan, gehienok, pertsonekin ari garenean huts egiten dugu. Pena eman dit albisteak, eta ez dakit oso ondo zergatik. Prentsaurrekoaren zati bat ikusi dut Begoñerekin: burusoiltzen ari da, baina aurpegi polita dauka. Agian, horregatik ematen digu pena: telebistan guapo bat gutxiago ikusiko dugulako. Edo ez. Benetan, tartean behin, oso gutxitan bada ere, futbola negozioa baino gehiago izan daitekeela transmititu izan didalako.

Desberdinak

2012-04-29

Ez dakit zergatik den normala neskak mutilekin elkartzea. Esan nahi dut ez dudala oso ondo ulertzen zergatik den arraroa mutilak mutilekin eta neskak neskekin elkartzea. Dena klasifikatu behar dugu, gauza guztiei izena jarri behar diegu, bestela urduri jartzen gara: zu heterosexuala zara, zu bisexuala, zu homosexuala, zu gorria, zu horia... ezin dut jasan. Azkenean, kolektiboetan banatuta daukagu gizarte osoa: zaharrak zahar etxean, gazteak gaztetxean, homosexualak ambienteetan, heterosexualak nahi duten lekuan, amak parkean eta aitak futbola ikusten. Eta lesbiana talde batek Bilboko Santiago plazan elkarri muxu ematea erabakitzen badu, herritarrak asaldu egiten dira. Ez direlako neskak, aizue, lesbiana zerriak omen direlako; baina Santiago plaza haiena ere bada, santuak berak hala nahi ez lukeen arren. Ni ez naiz lesbiana, edo bai, edo ez dakit zer pentsatu ere honezkero, baina animatzen ditut ezberdintzat ditugun guztiak kaleak hartzera, eta Bilbon lesbianeiei oldartu zitzaizen gizon haren modukoak gera daitezela etxean, euren ambienteetan; hobeak baitira bakarrik egoteko elkarbizitzarako baino. Ken ditzagun etiketak; senti dezala bakoitzak nahi duena nahi duenarengatik, eta egin dezala bakoitzak ahal duena ahal duen lekuan.

Langileak

2012-05-01

Oraingo langileek ez dute 1886an Chicagon hil zituztenekin zerikusirik. Oraingo langileek oporretarako etxea dute, auto handiak, trago luzeak edaten dituzte noiznahi, markako arropa janzten dute, ez dira grebara ateratzen diru gehiegi deskontatuko dietelako, manifestazioak bertan behera uzten dituzte eguraldi eskasa argudiatuta, haserretu egiten dira beste langile batzuk grebara atera direlako ezin badute zubia pasatzeko hegazkina hartu, jatetxe garestietara joaten dira. Ez dugu 1886an baino baldintza hobeetan lan egiten. Harrezkero irabazitako eskubideak galtzen ari gara krisiaren izenean; eta, hala ere, langile asko ez dira manifestaziora joango gaur: zubia egin dute, eta oporretara joan dira. Maiatzaren bata ez da abuztuaren hamabosta baino bereziagoa oraingo langileentzat: marka gorria baino ez da egutegian. Eskuinak irabazi egin digu: klase kontzientzia galdu egin dugu. Aberatsen eta enpresaburuen bizimoduak liluratu gaitu, ez gaude langile izateaz harro, gure gurasoak gizarajo langileegiak izan zirela iruditzen zaigu. Eta ez gara konturatzen geu zein leloak izan garen. Engainatu egin gaituzte: materialista hutsak gara. Zoriontsu izateko ez dira etxe bi behar. Egiten dugunarekin harro egotetik hasi behar genuke.

Gora

2012-05-02

Gure aitona-amonentzat gora igotzea eskailerak edo aldapak igotzea zen. Igogailurik ezagutu ez zuten haientzat, igotzea ariketa neketsua baina sinplea zen. Bideak gora egiten zuen lekuan haiek ere gora egiten zuten, besterik gabe. Orain, ordea, igotzea bizitzako helburua da askorentzat. Inork ez du 25 urterekin tornugile sartu den fabrikari jarraitu 65 urterekin; are gutxiago, oraindik ere tornugilea izaterik. Jendeak gora egin nahi du: tornugile hasi, enkargatu jarraitu, sekzioko buru izan, eta ahal bada, atzetik datozen bidea itxi egiten diete eurak heldu diren lekura iritsi ez daitezela. Anbizioren ez duenari barre egiten diogu: bitza guztian hori egongo zara? Ez gara konturatzen tornugileak buruko min gutxiago eta lagun gehiago izaten dituela sekzioko buruak baino. Baina hori ez da okerrena: okerrena da, gailurrerako bidea hasten dugunean, ez dugula guztiok norabide bera hartzen. Goia eta behea, goia eta behea dira. Baina batzuek goia okerreko lekuan ikusten dute. Edo, agian, neu izango naiz gailurra non dagoen ulertu ez duena. Kontua da batzuentzat Madril goian dagoela, eta, esan didatenez, hara joatea gora egitea da. Nik hilabete inguru daramat mapari bueltaka, eta, oraindik ere, Euskal Herriaren goian Ingalaterra ikusten dut.

Adierazpena

2012-05-03

Prentsa askatasunaren eguna da gaur. Irakurri dudanez, 1994an izendatu zuten hala Nazio Batuek. Guk badakigu zer den goiz batean esnatu, eta egunero irakurtzen izan dugun egunkariaren egoitza poliziak itxi duela jakitea. Demokrazia eta askatasuna nork bere interesen arabera erabil ditzakeen seinale, bi aldiz gertatu zaigu. Eta horren berri ere ez dute kazetari guztiek berdin eman: batzuek justifikatu egin dute euren ofizioaren kontra halakoak egitea. Objektibotasunik ez dago: batzuek heriotza ikusten duten lekuan besteek hilketa ikusten dute, eta batzuek adierazpen askatasunaren kontrako ekintzak ikusten dituzten lekuan, besteek terrorismoaren kontrako operazioa. Bakoitzak sentitzen duena adierazten baitu. Goyak marraztu egin zituen 1808ko maiatzaren hiruan Madrilen izandako fusilatzeak. Hainbat hildakoren ondoan, momentuan hiltzera doazen errebolalaria ikusten da eskuak jasota, alkandora zuria paparrean zabalik duela. Indefentsio osoa erakusten du frantziar gizon armatuen aurrean. Gaez, farol txiki batean argitan, herritik urrun samar; fusilatze errazak izan zirela esaten digu Goyak. Herri zapalduaren kontra egindakoak. Eskuek idazten, marrazten, jotzen zein laztantzen dutenean, guk egoera baten aurrean sentitzen duguna baino ez dute adierazten.

Dotore

2012-05-04

Ezin da kongresura alkandora hutsean joan; are gutxiago alkandorako mahukak gorantz tolestuta badauzkazu. Bizkaiko Batzar Nagusietan, mozorrotzat hartzen da inolako arrazoirik gabe epaitzen dituzten lagunen aldeko kamisetak eramatea. Herriko Tabernan gaizki begiratzen digute goretexik ez daramagunoi, eta goizero eskolara txandalarekin doazen irakasle bakarrak gimnasiakoak dira. Lanera begi zuloekin noan aldiro, badago norbait makillaje markaren bat gomendatzen didana. Ezkontzetara takoiekin doazen askok grazia egiten didate goizaldean ibili ezinik dabilzanean, eta gorbata eraman beharraren eraman beharraz trajea izorratzen duten gizonez zer esan! Dotore egon behar dugu, beti. Goazen lekura goazela, asmatu egin behar dugu zelan joan; eta ez da erraza. Metro bat eta hirurogei neurtzen badituzu, eta berrogei tailatik gora bazaude, praka guztiak luzeegi gelditzen zaizkizu. Bularretakoan ehun neurrira iristen bazara, XL kamisetek ere arnasa mozten dizute, eta mitxelinak badituzu, ahaztu zure neurriko niki normalak aurkitzeaz. Dotore egotea gustatzen zait, bi aldiz pentsatzen dut ze arropa jantzi etxetik atera aurretik, baina zin dagizuet neurri jakin batetik gora nahikoa lan badela ispiluarekin bakean bizitzea saltzen dizkiguten estereotipo eta predekin.

Modernoak

2012-05-05

Nire lagun gehienek tangak erabiltzen dituzte, modernoagoa delako kuleroak baino. Esaten didate erosotasunagatik dela, eta barre egiten didate nik beti kuleroak erabiltzen ditudalako. Badago bat, medikuarengana joan behar duenean, kuleroak janzten dituen, eta beste batek, tanga kendu eta kuleroak janzten ditu lotara joateko. «Ea», esaten diot nik, «oherakoan, denok egon nahi izaten dugu eroso, eta oherako kuleroak janzten badituzu, nola sinetsiko dut erosotasunagatik erabiltzen duzula tanga?». Lagun bat daukat gauza modernoak erosteko obsesioa duena: arropak, altzariak, kotxea... denak izan behar du modernoak haren gustukoa izateko; nahiz eta gero orain dela 50 urteko ideiak defendatuko dituen zenbait gairi buruz ari denean. Gurasoei brometan esan nien behin umedun nengoela, eta amak penaz esan zidan ez dela uste duen bezain modernoak: aita zein den izan zen bururatu zitzaion lehen galdera. Modernoak izan behar dugu: eta zer da moderno izatea? Gauza berriak modan jarri nahi dituenak, ordura arte egondakoak apurtu egin behar ditu. Horregatik ateratzen naiz kulerorik ez tangarik gabe egun errebeldea daukadanean: iraultza txikiak barrutik kanpora egin behar direlako, jendeak bere modukoa zarela pentsatzen duen bitartean.

Bizkargi

2012-05-06

Maiatzaren hiruaurren hurrengo domekan izaten da. Urtero joaten gara Gorozikan gora, ogitartekoak eta logurea motxilan hartuta. Umetan eramane egiten gintuzten, baina, gero, bakarrik joaten ikasi genuen. Denborarekin ulertu genuen Burdinazko Gerrikoa zer zen, eta Bizkargin egiten den ospakizuna nor omentzeko eta nori eskertzeko den. Askotariko jendea igotzen da ermitaren inguruko zelaira, eta, ideia ezberdinak defendatzen ditugun arren, inori ez zaio gaizki iruditzen Espainiako militarren kontra altxatu zirenak omentzea. Badauka Bizkargik zerbait batu egiten gaituena. Iaz, beltzez jantzitako andra-gizonak izan genituen bisitari: norbaitek Bizkargiko egunari terrorismoa goraiatzeko asmoa ikusi ziolako. Hortzetaraino armatuta etorri ziren, autoz. Ez zuten Burdinazko Gerrikorik aurkitu, eta buelta egin zuten berriz ere beherantz. Edo, agian, aurkitu zutena burdina baino gogorragoa egingo zitzaien: zahar eta gazteak ospakizunetan, bertsolariak, meza, erromeria, jendea dantzan... lotsarik duenarentzat lotsagarria izan zen agertze hutsa. Gu aurten ere joango gara. Mendira urtean behin bakarrik joaten garenak kostata iritsiko gara, baina heldu helduko gara. Ez nuke bisitari arrarorik nahi. Historiarekin, izan zirenekin bat egin nahi nuke; uzten badigute, bake-bakean.

Lehortea

2012-05-08

Asteburuan gauza asko gertatu zaizkizu, baina ez dakizu nola hitz bihurtu. Orri zuriaren dirdirak min egiten dizu begietan, baina zurtasun horrek zerbait esango balizu bezala zaude ordenagailuko pantailan begiak iltzatuta. Begiak ixten dituzun aldiro, pentsatzen duzu irekitzerakoan hor ikusiko duzula idatzi nahi duzuna. Orria mutu dago, eta eskuak geldi. Tekla bat zapaldu duzu, eta idatzitakoa ezabatu duzu; beste zerbait idatzi duzu, ezabatu duzu, beste bat, berriro ezabatu... Miguel Angelek esaten ei zuen marmolak esaten ziola zein eskultura egin: mailua eta zintzela hartu eta lanean hasten zen harriak nonbait idatzita zituen marrei jarraituz. Ia-ia errezatu egiten duzu zuri ere orri zuriak zerbait esan diezazun, baina goizaldeko seietan erdi mozkortuta zatozenean igogailuko ispiluak esaten dizuna esaten dizu orriak: niri ez begiratu, nik beste aldean dagoena baino ez dut erakusten. Bai, zeu zara zuri dagoena, ustez esateko ezer gabe. Hala ere, zeu zara idatzi egin behar duena, eta bertsotan egin behar duena astelehena izan arren. Eta justu gaur, inork ez dizu ganorazko konbertsaziorik eman. Planetak ez dira lerroan jarri, hitzek ez dute testu izan nahi, eta zeuk daukazu arazoa hor barruan: normalean letrak egoten diren lekuan gaur zulo bat daukazu.

Sinpleak

2012-05-09

Nik pentsatzen nuen futbola gustatzen zitzaion jendea zela sinplea. Ezetz esan zidan. Arrazoiak azaldu zizkidanean isilik gelditu nintzen, eta hainbat buelta eman nizkion buruari. Lo gutxi egiteko aukera ematen zidan hurrengo goizean goizegi jaiki beharrak, eta, hala ere, burua martxan izan nuen izarapean esna eman nituen azken minutuetan. Futbola ulertzea zaila dela esan zidan, eta futbola bizitzeko asko ikasi beharra dagoela; futbolaz, noski, baina asko. Pilotaz, ordea, ez omen da gauza askorik jakin behar. Hala izango da seguruenetik: «gehienez ere bik jokatzen dute». Eman zizkidan azalpen gehiago ere, baina honetan konkretuki arrazoa eman nion: pilota partida bakarrarekin uler daiteke jokia nola den. Arauak ez dira asko, eta egin beharrekoa sinplea da. Orduan konturatu nintzen futbolari buruz ez dakizkidan hainbat gauza daudela, eta egia da orain beste modu batera begiratzen diedala futbol zaleei. Zenbait jarrera justifika ezinak iruditzen zaizkit oraindik ere, baina litekeena da asteon Bilbo hartuko duen masa hori ez izatea nik uste bezain sinplea, edo bai; baina ez nuke garbi esaten asmatuko. Hala ere, gauza bat ulertu nuen lagunaren argudioen lerro artean: oso desberdina da futbol zalea izatea edo talde jakin baten zalea izatea.

Ahaztuta

2012-05-10

Gaurko moduko egun batean aurkitu zituzten Gargelerako errepidean, Almerian. Auto barruan zeuden hiru lagunak, erreta. Guardia Zibilaren lehen bertsioaren arabera, etakideak ziren: hiru egun lehenago, Joakin Valenzuela jeneralaren kontrako atentatuan parte hartu zuten ekintzaileak. Izenak ere eman egin zituzten komunikabideek: Mazusta, Goienetxea eta Bereziartua. Baina, hildakoak beste batzuk izan ziren: Luis Montero Garcia, Luis Cobo Mier eta Juan Mañas Morales. Guardia Zibilak hil arte torturatu zituen; eta hil zituzten haiek hil nahi izan zituztenekin zerikusirik ez zutela ikusi zutenean, erre egin zituzten auto eta guzti. Horrela saiatu ziren tortura zantzuak gorpuetatik ezabatzen. Hiru gazte horien izenak biktimez ozenen hitz egiten duten kontakizunean falta dira, baina, seguru nago, egongo dela orduan egindakoa zergatik egin zuten ahaztu ez duenik. Hiru gazte hiltzea larria da, baina are larriagoa da hildakoak beste batzuk izan direla sinetsarazten saiatzea. Badirudi izen faltsuak eman zituztenentzat asko aldatuko zirela kontuak hildakoak Montero, Cobo eta Mañas izan beharrean, Mazusta, Goienetxea eta Bereziartua izan balira. Baina ez dakit larriagoa zer den: hiru errugabe hiltzea, ala erruduntzat jotzen dituzunek torturapean hiltzea merezi dutela pentsatzea.

Aldartea

2012-05-11

Mezu bat bota diot goizean goiz. Banekien Bukarestera joana zela, eta pentsatu dut triste samar egongo dela. Lanerako buelta gogorregia egin ez dakion bota diot mezua. Ez dit batere ondo erantzun, eta izugarri haserretu naiz. Hainbeste maite nauela jakinda, ez dakit nola pentsatu duen bera triste egotearekin poztu naizela. Barruraino sartu zait erantzun hori eman izana, eta i bakoitzari bere puntua jartzea erabaki dut. Erreakzionatu egin du, eta bere modura, barkamena eskatu dit: asko maite nauela eta ez haserretzeko, ondo pasatu duela... Badakit Athleticzaleentzat egun konplikatua izan zela atzokoa, baina errua ez da nirea. Asteazkenean euforia izugarriarekin zebilen jendea Bilbon, eta nik astearteko gorputz berbera nuen. Seria naizela esan zidaten: nor eta ni seria? Bada, bai; ez nengoelako pletoriko. Atzo, ostera, beste guztiak baino pozago nengoen, baina ez nengoen asteazkenean baino pozago. Berdin dio: besteen minari barre egiten ari nintzela esan zidaten. Ez dakit seinale ona edo txarra den, baina eguaztenean eta eguenean antzera jaiki nintzen: neure betiko poz, ardura, min eta motibazioekin. Barka nazazue, partidak ez dit aldartean eragin; baina ez dut inor izorratzearren egin. Halakoak entzungo nituela jakinda, disimulatu egingo nuen.

Lehendakaria

2012-05-12

Alderdi politikoak lehendakari egokia izango litzatekeenaren bila dabilta. *Bateragune auziaren* epaia berretsi ondoren, norbaitek esan zuen Arnaldo Otegi ez dela lehendakari gaia izango. Pozik ematen zuen. Litekeena da Otegi izatea Ezker Abertzalearen lehendakari gaia, edo ez. Nik ez dakit zein den Ezker Abertzalearen hautagaia, eta are gutxiago, koalizio kide dituenek postu horretan nor nahi duten. Gauzak ez dira horren errazak politikan; edo bai. Agian, gauzak kanpotik ematen duena baino sinpleagoak izateak egiten du politika ulergaitz. Kontua da nik ez dudala Otegi lehendakari izaterik nahi. Pentsatzen dut Otegi garai garrantzitsu baten ordezkaria izan dela gure herrian, eta daukan meritu guztia onartzen diot; baita gehiago ere. Dena den, lehendakari freskoagoa nahi nuke, berriagoa, gazteagoa, politikan ibili gabeagoa, eta ahal bada, zergatik ez, emea. Badakit nire gustuak ez direla garrantzitsuak lehendakaria aurkezteko afera honetan. Hemen arazoa da Otegi eskubidea baduela lehendakari gaia izateko eta demokratek ez diotela uzten. Hobe dute, baina, ez harrotzea hainbeste: herri honek hartu duen bidea ikusita, gauza jakina da errazago izango dela Otegi berriro lehendakari gaia izatea, Basagoiti edo Lopez dibortziatu berriak lehendakari baino.

Etxeko lanak

2012-05-13

Badaramate denbora bat elkarrekin bizitzen, baina mutilak ez ditu etxeko lanak egin nahi. Ez da hori larriena: mutilaren kuadrillako beste mutilen emazteek argi dute ez dituztela beren gizonak fregona pasatzen ikusi nahi. Behin ikusi omen zuten aurrez aurreko balkoian bizi den gizona fregonarekin, eta ez omen zitzaien batere gustatu argazkia. Ez lukete beren senarra horrela ikusi nahi. Gure lagunak negar egiten zuen hasieran: XX. mendean jaio eta hau dena aguantatu behar al dut? Kalkuluak atera zituen. Urte guztian etxea garbituko dien pertsona bat kontratatzeak zenbat balioko lukeen kalkulatu zuen, eta, erdibana eginda, bakoitzak zenbat diru ipini beharko zuen jakin zuen horrela. Berak egiten ditu etxeko lan asko, baina mutilari bere erdia kobratu egiten dio. Lasaiago omen dago orain. Ez da konponbide txarra. Azken batean, izan daiteke hori modu bat, zure ondokoak etxeko lanak egitea zein gogaikarria eta nekea den jakiteko. Ez dakit garbi zer adieraz daitekeen horrela, baina buelta asko eman dizkiot joan deneko gauetan. Pentsa gure amamek edo amek aitonei eta aitei etxeko lanak egitearren kobratu izan baliete. Amamek ez zuten menpekotasun ekonomiko larririk izango, eta aitonak konturatuko ziren, eurek edonora dotore joan zitezten lan asko egin behar zela.

San Isidro

2012-05-15

San Isidro baserriarren patroia dela irakatsi ziguten. Andoni abadeak kontatzen zigun nola ari zen santua soroan beharrea jo eta ke mezetarako ordua iritsi zitzaionean. Kostata, baina elizara joatea erabaki zuen, eta bueltan etorri zenean soroa goldatuta aurkitu zuen. Askotan gogoratzen naiz Isidro, baina ez dut ezagutzen mezetan egon den denboran aingeruek lurra goldatu dioten beste inor; nahiz eta gure inguruko zaharrak urtero joaten ziren mezetara gaurko egunez. Gaur, baina, ospatzeko ere apenas duten ezer baserriarrek. Gero eta lur gutxiago lantzen da. Belarra erregalatu egiten dute askok, eta, hala ere, inork ez du behar; gero eta ganadu gutxiago baitago kortetan. Urtetik urtera, gero eta gehiago dira moztutako belarra erre egiten dutenak, eta ez naiz marihuanaz ari, sekula belarra eta alpapa moztu eta bertan erretzeari buruz baizik. Lurra baduenak ez du lurrak ematen dionetik bizi nahi, eta dendan erosteaz nazkatu denak ez du lantzeko lurrik. Bitartean, baserriarrei hitz politak esan, eta hiltegiak ixten ari dira instituzioak. Lehen ortua zuena autosufizientea zen. Gaur diru laguntzen menpe bizitzera behartu nahi dute. Edo gure politikariak lehen sektoreari heltzen diote, edo Isidroren aingeruei deitu beharko diegu gure paisaia sasiak har ez dezan.

Denborak

2012-05-16

Lobak ikuskizunean parte hartu behar nuela-eta sarrerak atera nizkien gurasoei, izeko Pili eta osaba Moisesi eta amaren barikuetako lagun Karmen eta Bedari. Pozik egon ziren seiak Gernikako bonbardaketan egondakoen ilobek antolatutako ikuskizunaren ostean: asko gustatu zitzaien. Dena ez zuten berdin gozatu, baina ez galtzeko modukoa izan zela esan zidaten. Audiencek Astrako bunkerrean grabatutako bideoarekin, ordea, zalantzan ikusi nuen ama. Ez zitzaion asko gustatu letrarik gabeko kantu hura. Bunkerreko iluntasunean ahots urratu bi oihuka entzuteak ez zuen hunkitu, edo lehen bezala gelditu zen entzun eta gero, edo azaltzen ez zekien sentipena zuen. Barre egin nion. Hogeita bost urte lehenago Santanape frontoira joan ginen hiru ahizpok gurasoekin. Mikel Laboa zuzenean ikusi nuen lehen aldia izan zen, eta *Lobak* ikuskizunean Audiencekoen ahotik entzun genuen kantua nola kantatzen zuen entzun genuen; izan ere, *Gernika* da kantuaren izena. Orduan entzun genuena zoragarria iruditu zitzaien gure gurasoei, edo hori da gordeta daukadan sentipena: gu izugarri aspertu ginela, eta haiek gogor txalo egin zutela. Orain, alderantziz izan da: ama ez da konbentzituta atera, baina niri itzela iruditu zitzaidan. Bakoitzak bere sasoian bere sasoikoa, bota zidan amak.

Gaixotasuna

2012-05-17

Harrigarria da zenbat kausak daukaten euren eguna: tabakoaren kontrako eguna, ama hizkuntzen eguna, amaren eta aitaren eguna, autorik gabeko eguna... gaur homolestransfobiaren kontrako eguna da. Lotsagarria da XXI. mendean aukera sexuala defendatzen ibili behar izatea. Grezia klasikoan, Jesukristo gurutziltzatu baino urte dezente lehenago, normala omen zen gizonak gizonekin eta emakumeak emakumeekin ibiltzea. Gero etxean elkartu egiten ziren eta familiak sortzen zituzten, baina nonbait irakurria dut etxetik kanpo bakoitzak antolatzen zuela bere bizitza gehien gustatzen zitzaion moduan. Ni ez nintzen han egon, noski, baina ez litzateke bizimodu txarra. Izurde eta koalek harreman sexualak izaten dituzte sexu berekoekin, eta ez dut uste homo edo hetereo diren pentsatzen loa galtzen dutenik. Eta hemen etorri gara gu, modernoak, hirugarren mundura askatasuna eramaten ari garenok, eta asmatu dugu eguna: homolestransfobiaren kontrako eguna. Hogeita bi urte baino ez dira homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik kendu zutela. Ez ehun ez berrogei: hogeita bi. Zenbat urte pasako ote dira gaurko eguna egutegitik kentzen dugunera arte? Batek daki. Baina benetan gaixorik daudenak euren ez den sexu aukera ororen kontra daudenak dira.

Eroak

2012-05-18

Espainiako Barne ministroak ez du ETArekin hitz egin nahi. Gatazka konpontzeko inoiz izan duten aukerarik onena dute, eta ez dute baliatu nahi: espainiar hauek erotuta daude. Edo ez. Aurten 520 urte beteko dira gaur egun Amerika esaten diogun kontinentera iritsi zirenetik, eta 1898an Kuba eta Filipinak galdu arte, Espainiako errege-erreginak majo loditu ziren indietan ostutakoarekin. Hasieran indigenak menperatuta izan zituzten guztiz, baina urteen poderioz, eta injustizia jasan ezinaren jasan ezinaz, indigenak altxatzen hasi ziren. Espainiarrek ezin izan zuten halakorik jasan, eta euren nagusitasuna erakutsi zieten. Gaur beteko dira 221 urte Tupac Amaru II.a hil zutela. Lehenengo, torturatu egin zuten; gero, bere emaztea eta seme biak nola torturatu eta hiltzen zituzten ikustera derrigortu zuten, eta, azkenean, lau zatitan apurtzen ahalegindu ziren gorputzaren adar bakoitza zaldi bati lotuz. Ez dakit mirariz, edo zientifikoki azaldu daitekeen azalpenen baten ondorioz, baina Tupac Amaru II.aren larruak osorik eutsi zion sakrifizioari. Burua moztu zioten orduan; eta lantza baten puntan ipinita erakutsi zuten, inori bere eskubideak aldarrikatzerik bururatuko balitzaio ere. Espainiar hauek orduko haien ondorengoak dira.

Kristorena

2012-05-19

Orain dela hogeita hamahiru urte, gaurko egunez, Balentin Enbeitak negar egin zuen. Negar egin zuen, etxeko hirugarren iloba jaio zitzaiolako eta neska zelako. Aurrekoetxeko Mariarengana joan omen zen eta «gurean orain ere urrixa jaio da», esan omen zion (Bizkaieraz urrixa animalia emea izatean da). Etxeko semearen emaztea hirugarrenez erditu zen, eta Balentinek espero zuenaren kontra, hirugarrena ere aurreko bien moduan, alaba izan zen. Hori da behintzat, ikusi zutenek kontatzen zutena. Honezkero, zoritxarrez, ez daude ez negar egin zuena ez negarrez ikusi zutenak, baina neska txiki hark gaur hogeita hamahiru urte bete ditu: aitona negarrez ipini zuen jaio berri hura, neu naiz. Eta ze pozik nagoen alaba izateaz, inoiz lekutik atera nauten ahizpa zoragarri bi izateaz, ze bizirik sentiarazten nauten aldaketa hormonalek, ze maitagarria edo ze lehorra izan naitekeen egunaren arabera, ze pozik entzuten dudana «zu beti dotore» esaldia, ze urrun ikusten dudana oraindik ama izateko aukera, zenbat maite izan nuen behinola negar egin zuen gizon zahar hura eta ze poza hartuko lukeen gaur naizen neska hau ikusiko balu. Gaur Kristoren adinera heldu naiz, baina Maria Madalena bezain eder sentitzen naiz. Bizitza, bere negar eta guzti, zoragarria da.

Txinatarrak

2012-05-20

Egia da asko direla euren herrian eta asko mundu guztian. Eta normala izango da asko izatea Bilboko alkateak dioena egia bada. Txinatarrek dendetan jaten omen dute, bertan lo egin eta bartan larrutan ere. Gaztelania garbian, *procrear* hitza erabili du Azkunak. Domeketan dendak zabaltzeko aitzakia ezin hobea eman diote txinatarrek: gure dendariak espabilatu egin behar dute, txinatarrek igandeetan ireki egiten dute-eta. Ireki behar, aizue: jan, lan, larrutan... dena leku berean egiten badute, lantzean-lantzean haizeari sartzen utzi beharko diote lonjetara. Jatetxe txinatarren gaineko mitoak ere asko dira: katuak eta arratoiak prestatzen dituztela eta abar. Beti jan dut gustura jatetxe txinatarretan, eta ez dakit zer pentsatu: edo arratoiaren okela gustatu egiten zait, edo jendeak edozer esaten du. Baina orain inoiz baino gehiago estutu naiz gai honekin. Azkunak dio berak ez omen dakiela txinatarrak non hiltzen diren. Horrela esanda, minik egiteko intentzio barik esandako esaldia da, baina esandako guztiak kontuan hartuta, larria da agian esan nahi zuena. Azken batean, jan, lo eta beste guztia dendetan egiten badute, baina non hiltzen diren ez badakigu, zer esan nahi du Bilboko alkateak? Jatetxe txinatarretan txinatarren okela jaten dugula?

Alkatea

2012-05-22

Demokrazian biziko bagina, kargu politikoak ez genituzke hain gaizki ikusiko; edozein herritarri tokatu dakioken zerbait izango litzateke alkate izatea, adibidez. Guztiok sinetsiko bagenu instituzioak herriarenak direla, guztiok gobernatuko genuke desberdin gure txanda heltzean, baina jakingo genuke herriaren interesak gureen gainetik jartzen. Ez hori bakarrik, boterea guztiona dela ulertuko bagenu, ez genuke onartuko hiruk edo lauk eurentzat gordetzerik eta herritarren bizimoduan nahi duten moduan eragiterik. Gure alboko herrian, Errigoitin, herritarrak tontotzat hartzen dituen alkatea dago. Badira hamahiru urte alkatetza hartu zuela, eta, dagoneko, behin baino gehiagotan esan du herria berea dela. Eta nola herria berea den, berak erabakitzen du nor eta non bizi den Errigoitin. Hauteskundeak ere horrela irabazi zituen iazko maiatzean: ez dauden etxeetan jendea erroldatuz. Osoko bilkuretarako entzule kopurua ere mugatu egin du, non eta Errigoitin! Baina agian hori izango da gaitz txikiena, legeak agintzen dituen gutxieneko osoko bilkurak justu-justu antolatzen ditu eta. Epaiaren aurrean ere ez da kokiltzen, ez da lotsatzen. Zer esango dio, bada, epaile batek? Aspaldi esan zigun bera dela alkatea, eta bera dela legea. Harrapazank!

Txapelketak

2012-05-23

Urduri egon dira. Doinuz erratu dira batzuk, eta berriro hasterakoan arineketan kantatu dute erritmoari eutsi ezinik. Mikrofonotik ihes egin du baten batek, eta handik minutu batzuetara itzuli da bertso ederra botatzeko. Lehenengoak kantatu duenean, beste guztiak urduriago jarri dira. Burmuina nola estutzen zuten errez-errez igarri dut urrunetik, neuk ere sasoi batean halaxe estutzen nuelako. Errimen papera eman didatenean konturatu naiz eskuak izerditan dituztela: paper gehienak umel-umel zeuden. Kantatu gabe geratu dira batzuk. Gurasoekin bertso saioetan ikusten ditudan batzuk egon dira. Beste batzuek harritu egin naute, mikrofonoaren aurrean duten patxada ikusita. Nahi nuke neuk ere! Orain dela urte batzuk, asko gutxi gorabehera, neu ere estu egoten nintzen: izerditan, urduri, bertsoa noiz buruan sartuko kantura ateratzeko. Orain, honezkero edozein parte hartzailearen ama izateko moduan nagoenean, pentsatzen dut egon behar duela beste formularen batek. Neuri ez zait okurritzen, eta esatea erraza da, noski; baina txapelketak beste modu batera egiterik ez ote dago? Sekulako harrobia daukagu, neska-mutilek jatortasun, jenialitate eta gaitasun lezioa ematen digute urtero, eta eskuak izerdi hotzez blaitu gabe mikrofonora atera daitezten lortu behar genuke.

Jakintza

2012-05-24

Nik ez diot inoiz mediku bati eztabaidatu minbizia sendatzeko bideen inguruan, eta arkitekto bati ez nintzaioke inoiz hasiko azalpenak ematen etxe bat egitera doanean. Ez dakit zelan defendatzen den kasu bat epaitegian eta dendariari erosi egiten diot nola saldu behar duen azaldu gabe. Filologoekin hizkuntzaz eztabaidatzea zaila da, eta zientzietan ezjakin hutsa naiz. Baina nik kazetaritza ikasi nuen, eta asko ez bada ere, zerbait badakit komunikazioaz, artikuluak idazteaz... Jakintza arlo zabala da, ordea: medikuek, arkitektuek, abokatuek, dendariak, filologoek, kimikariek eta apaizek ere asko dakite komunikazioaz. Erreza omen da. Iritzi artikuluak, esate baterako, edonork idatz ditzake. Hori da esaten didatena, zenbait ezagunek pentsatzen dutena, gizarte erdiak uste duena: edonork aurkez dezake informatiboa ondo. Makina bat eztabaidatu dut nik uste ustel horietaz: halakoxe perlak irakurtzen baititut ustez oso ondo idazten dutenek argitaratuta. Inork ez dit jaramonik egiten, ordea; Leioako campusean kafeteritza deitzen zioten gure karrera errazegi horri. Hala ere, akaso, hainbeste kritikatzin diren komunikabideak horren txarrak izatearen arrazoietakoa bat horixe izango da: ustez denok dakigula komunikazioaz, baina ustez bakarrik.

Balioaz

2012-05-25

Udan ikastaro bat egingo dugula kontatu diogu, eta barre egin du. Lehenengo esan digu aukeratu dugun gaiak ez digula ezertarako balio. Berriro ere betiko eztabaida izan dugu: zer eta zertarako ikasi. Badira curriculumari begira bizi direnak. Ikasketa prozesua bizitzari lotu ordez, karrera bati lotzen diote, eta horri buruzko gauzak bakarrik ikasten dituzte. Ondo dago; baina nik nahiago dut curriculumerako balio ez didaten gauzak ere ikastea. Agian ez dago ia guztiz kontrolatzen dudan gairik, baina ispiluaren aurrean ikusten dudan neska horrek egunero ikusten dituen hainbat gauzarentzako erantzunak behar ditu. Bizitza arlo askok osatzen dute, eta horietako bat bakarrik da gure karrera. Besteak asko izan daitezke pertsonaren arabera: lana, maitasuna, oporrak, irakurtzea, bidaiak, familia, dirua, kirola, musika, etxea, sexua... eta hori guztia sakonago, beteago bizi nahiak eskoletan ikasi ez dudana ikastera eramaten naute egunero-egunero. Nekazaritza eta ekologia dira, barre egin didanaren ustez, nire azken kapritxoak. Niretzat orain arte modu jakin batean bizi izan ditudan etxea, ingurua eta herria beste modu batean bizitzen ikasteko bidea dira. Zertarako balioko didan? Balkoiko atea zabaltzen dudanean aurrean dudana neureago sentitzeko.

Zentzua

2012-05-26

Guztiak batera kontrolatzea zaila zitzaienez, sakabanatu egin zituzten: Galizia, Cadiz, Alacant, Asturias, Zaragoza, Logroño, Almeria, Murtzia, Avila, Badajoz, Salamanca, Huelva... eta guk kilometroak pilatzeari ekin genion. Guztiok eta bisita guztiak zenbatuta egin ditugun minutu guztiak kontatuta ere, ez ginateke egin ditugun kilometroen erdira iritsiko. Kartzela-turismoa asmatu dugu geure buruari barre egiteko, baina negarretik hurbilago egon gara elurrak eta behe lainoak paisaia lausotu digutenean. Jende zoragarria ezagutu dugu bidaietan, eta bidean izandako istripuetan hainbat lagun hil zaizkigu. Urteak dira joan-etorrietan hasi ginela, eta, batzuek iazko urriaren hogeian argia ikusi bazuten ere, aurten ere munduari bira emateko beste kilometro batu ditugu. Espainiako Gobernuak erotu egingo gaitu. Lehenengo esan zuen ez duela ETArekin negoziatuko, eta presoen irtenbidea barkamena eskatzea dela. Orain esan dute egoera berrian sakabanaketak ez duela zentzurik. Ederto, ministro jauna, pozten naiz konturatu bazara; baina jakin ezazu guretzat sakabanaketak ez duela inoiz zentzurik izan. Sufrimenduaren ginetik berdin-berdin eutsi diegu gureei, eta distantziak haiekin ditugun lotura sentimentalak indartzeko baino ez du balio izan.

Zaila

2012-05-27

Ez zaio buruan sartzen agertokira igotzera ausartzen den neska batek halako konplexuak izan ditzakeenik. Saiatu naiz azaltzen, normalean ez nautela mugatzen, baina jendeak noizbait egindako zenbait komentario hor barruan iltzatuta ditudala. Horraino buruarekin baiezkoa egin dit, baina hortik aurrera, psikologoek erabiltzen duten hitz ponpoxo bat esan dit. Ez dakit zer den zehazki esan nahi duena, baina lagunaren arabera da, bizitzak beldurrak gainditzeko armak ematen dizkizunean, beldur horiek edo konplexu horiek gainditzea. Ez dago gaizki esana. Esan diot badakidala bizitzak eman dizkidala konplexuak gainditzeko behar adina bide: jende zoragarria ezagutu dut, gehien gustatzen zaidana egitearren ordaindu egiten didate, bertsolaria naiz, bidaiak egin ditut eta egiteko asmoa dut... gizarteak ezarri nahi izan dizkidan praktetan ez kabitzea ez da arazoa izan nahi ditudan gauzak egiteko. Hala ere, min handia egin dizuten egoerak eta hitzak hor daude, eta bizitzan dena denez ziklikoa, tarteka, mamuak esnatu egiten dira. «Horregatik izan zara hain bordea berarekin?», galdetu dit. Bai, triste da, baina behin hondoratu egin ninduen, eta orain mendeku antzerakoa egiten diot. Zer egingo diogu, denok daukagu gustatzen ez zaigun alderdiren bat.

Zergatia

2012-05-29

Nonbait entzun nuenez, kopa irabaziz gero, Athleticek maiatzaren 27an atera nahi zuen gabarra, eta, orduan, Ibilaldiaren data aldatu egin zuten. Ez dago ezer talde zuri-gorriari gerizperik egingo dionik Gernikako Arbolaren eta BBKren lurraldean. Finaletarako bakarrik zaletu diren futbolzaleak baretuta daudenez, gertaerak hausnartu nahi nituzke ezer ez dudala ulertu aurpegiratu didatenekin. Jokalariek sekulako denboraldia egin dute: haien aurrean txapela kentzea baino ez zait gelditzen. Baina jokalarien aldean asko aberastu dira Bukarestera eta Madrilera joateko kreditu bereziak eman zituztenak. Kreditua ordaindu behar dutenen krisiak, ostera, lehengoan dirau. Gainera, nahiz eta tituluak usaindu ere ez dituzten egin, ez diete bueltatuko xahututako dirurik. Pantaila erraldoietan, oihaletan, musika ekipoetan... gastatu denak ez dirudi zale berririk erakarri duenik: datorren urtean Athletic ondo ez badoa, ea zenbat balkoitan dagoen bandera zuri-gorria. Eztabaidatu dut, denetarik esan didate, bideoak bidali dizkidate postaz, baina oraindik ere pentsatzen dut probintzia osoa paralizatze hau Ibaiganetik urrun diseinatu dutela. Zergatik aprobetxatu zuten bestela Europako Ligako finaleko eguna Bateraguneren auziaren sententzia argitaratzeko?

Harremanak

2012-05-30

Gauza kurioso bat dauka, nire kuadrillan behintzat, bikotekiderik ez izateak: bikotekidea duten lagun guztiek kontatzen didate ze ondo bizi ziren bikotekiderik ez zutenean. Nik entzun egiten diet begiak garagardotik jaso gabe. Ezer esan orduko esaten didate ez dudala ulertzen esan nahi dutena, eta eusten saiatu arren, azkenean, beti ematen diet ulertzera gauza bera: «Hain gaizki bazaude bikotekidearekin, utzi. Inork ez zaitu derrigortzen harekin egotera!». Orduan, haien bizitza barik, nirea bihurtzen da hizketa gai: ni harroegia naiz inor jasateko, nobioek ere esaten diete ez dutela ulertzen nik bikotekiderik ez izatea, agian ni izango naiz okerrera bikotekidea dudanean... Isilik nagoenean ze polita naizen ohartzen naiz, eta neure bakardade lasaian ohera noanean zin egiten diot neure buruari ez naizela berriro eztabaida horretan jausiko; haien ohea nirea baino epelago egongo baita, ziurrenez. Baina hurrengoan ere nazkatu arte entzuten dut mutilak zein berekoiak eta arraroak diren. Batzuetan, garagardoak baino buruko min handiagoa egiten didate lagunek. Hala ere, badakit nire egoera ez dela haiena baino hobea, ezta haiena nirea baino hobea ere. Kontua da ni lasai nagoela, baina, antza, bikotekidea duten zenbait lagunek sinatu egin dute nonbait ezin dutela lehen bezain libre eta zoriontsu izan.

Txikiak

2012-05-31

Herri handietan bizi direnentzat herri txikiak asteburua pasatzeko leku ederrak dira. Bertan jaio ginenok, osterara, edozein gauza behar dugun aldiro, alboko herrira joan behar dugu autoan; baita gutun zertifikatuen bila ere postaria etorri denean ez bagara etxean egon. Trenbide pasaerak beste guztienak egin eta gero egiten dizkigute, farmazia egun batzuetan bakarrik irekitzen dute, medikuak ordutegi estua du, herri askotan ez dago eskolarik, ogia non erosi ez daukagu, eta, orain, BBK-k Bizkaiko herri txikietako bulegoak itxi nahi ditu. Hesiz inguratutako txaletak eraikitzea modan jarri zenetik hona, han etorri zitzaizkigu ez dakit zenbat bizilagun berri. Gehienek lo bakarrik egiten dute gure ondoan eraiki dituzten etxeetan, baina guk, lo baino gehiago egin nahi dugu herrian. Lagun bat etorri zen gure etxea ikustera, eta «hemen lo ondo egingo da, bada», esan zidan. Jakina! Eta lorik egin ezin dugunean hementxe egiten dugu larrutan, edo irakurri, edo telebista ikusi. Eta esna gaudenean, ze herrian esna ere ibil daiteke, gure umeei bertan olgetan egiten dute, bertan mozkortzen gara, bertan bizi gara eta beste guztien moduan zergak ordaintzen ditugu. Horregatik pentsatzen dut, maila apalagoan bada ere, beste guztiek dituzten zerbitzuak izatea merezi dugula.

Gizon bat

2012-06-01

Aretoa beteta zegoen. Halakoetan ohikoa bada ere, agertokian ez zegoen musikarik edo antzerkirik edo dantzarik. Gizon bat bakarrik; idatzi duen azken liburuko testuak biltzen dituzten folioak eskuan hartuta; zain. Ikusleak aretoan sartu orduko, agertokian zegoen. Ez zuen txaloz betetako sarrerarik egin, baina amaieran, jendeak zutik txalo egin zion. Hasi zen liburuko zatiak irakurtzen, eta guztiak irakurrita izan arren, hara barruraino heldu zitzaizkigun. Maiengandik ikasi du egunen seme-alabak garela pertsonak, eta ez du sinetsi nahi atomoz osatuta gaudenik: txoritxo batek esan dio istorioz osatuta gaudela. Eta bere azken liburuan istorio bat idatzi du egun bakoitzerako. Urtarrilaren batetik hasi, eta abenduaren hogeita hamaikara arte biziko ditugu historiak ahaztutako izenen istorioak Eduardo Gleanoren azken liburuan. Azaldu ez zizkiguten arazo teknikoak zirela medio, ezin izan zen liburuak sinatzera gelditu. Arnasa lasai hartu nuen, ez bainuen libururik eraman. Gehienak kolorez azpimarratuta dauzkat eta lotsa handia emango lidake berak igartzeak, baina maiteminduta nago Gleanorekin. Esan nahi nituzkeen gauzak esaten ditu esan nahiko nituzkeen moduan: doinu lasaian, injustiziari drama kendu nahiko balio bezala. Ezinezkoa dirudi, baina modu magiko batean, berak lortu egiten du.

Gabardina

2012-06-02

Fusilatu zuten egunean soinean omen zeraman. Eskurik esku, ondo gordetako armairuetan egon ondoren, familiaren eskuetara itzuli zen orain urte batzuk. Lehenago, berrogei urte luzez Txaber Erraztik gorde zuen, «besterik gabe». Bazekien etxean gordetzen zuena gabardina bat baino askoz gehiago zela. Ez halako material bereziz egindakoa zelako, behinola Lauaxetaren gorputz gaztea bildu zuelako baino. Ez zen seme-alabez fidatzen, Estepan Urkiaga ez zutenez ezagutu, eta beldur zen Txaber ea gabardina hura, Euskal Herriarekiko maitasunaren historia gordetzen duen pieza hura, gabardina sinpletzat hartuko zuten. Azkenean, izan zuen aukera Lauaxeta gehien maite izan zutenei itzultzeko, eta ez zaio inoiz ahaztuko haren arrebak gabardina esku artean izan zuenean nola negar egin zuen. Baina berak «besterik gabe» gorde zuen. Eta pentsatzen hasi naiz gure aitona-amonek zenbat gauza egin zituzten egin behar zituztela sentitzen zutelako. Garrantzirik eman gabe, inork omenaldirik egingo dienik pentsatu gabe. Eta gero etorri ginen gu; gabardina hori eskuan izan bagenu bigarren egunerako kontatu egingo genukeenak eta txalo artean harro luzituko genukeenak; ez egiteko esan zigun arren Gabriel Arestiri bere izeneko kaleak eraiki genizkionak ilusioa egingo liokeelakoan.

Gutuna

2012-06-03

Remitean izen-abizenak jarri dizkit, baina ez dakit nork idatzi didan gutuna; ez diot aurpeirik jartzen. Bere amak Amuriza irakurtzen omen zuen *Eginen*, eta berak BERRIAN Zaldieroa eta ni neu. Harriduraz irakurri dut kaligrafia garbian, bizkaiera dotorean, idatzitako berba bakoitza. Hunkitu egin naiz. Zerrendan nor dagoen begiratu ere egin gabe, beti berdinei edo antzekoei ematen omen die botoa, eta orain Madrilera joan behar dudala jakin du. Ez dirudi sorpresak larritu egin duenik, bere berbetan poza eta animoak eskaintzen dizkit. Ezin dut gehiago eskatu. Idazten duenak ez du inor konbentzitu nahi, irakur dezaten gura eta behar du. Baina nik ezingo diot eskatzen didana bete. Erdi behartuta, erdi gogoz, abentura berrien bila abiatzeko gogoa dudalako, herri honekiko konpromisoa badudalako edo sinple eta laburrago, erabaki bat hartu dudalako, txoko hau beste bati utziko diot. Madrilera noa. Askorentzat hain emeak izan diren gaiok hartu, eta arrek agintzen duten urruneko leku horretan astinduko ditut indartsu. Ez ditut hona ekarriko, aldi batez behintzat, lotsak, beldurrak, maitasunak, Corte Inglesa, gizonak, andreak, printzeak eta printzesa frustratuak. Baina nirekin daude, jaso ditudan kritika guztiekin batera. Muxu handi bana! Plazetan elkartuko gara.